



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Eskola Antzerkia



ESKOLA ANTZERKIA 2

R. 10840



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA,
UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES
E INVESTIGACION

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lehenengo argitaraldia: 1992ko abendua
Ale kopurua: 1.500

© Euskadiko Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Prestatzaileak: Iñaki Artola, Joxe Mari Berasategi

Azala: Jesus Iturriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington dukearen kalea, 2 – 01011 Gasteiz

Fotokonposizioa: FONASA. Sancho el Fuerte etorbidea, 26. Iruña

Inprimatzailea: Estudios Gráficos ZURE, S. A.

Carretera Asua-Erandio, 24-A – 48950 Erandio-Goikoa

I.S.B.N.: 84-457-0208-4

Lege Gordailua: BI-2424-92

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
ERO-HAIZEAREN INDARREZ, JOLASKIDE <i>Lukas Dorronsoro</i>	9
ANTZERKI GIDOIAK:	
Amama Benidorrera <i>Mundakako herri ikastetxeko ikasleak, Mertxe Itxazoren ardura- pean</i>	17
Amonaren urtebetetzea <i>Mikel Iburguren. Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastola</i>	35
Atrakoa <i>Berriatuko ikasleak, Yolanda Arrietaren ardurapean</i>	49
Axeria eta otsoa, lagun ederrak!! <i>Maria Dolores Akizuk itzuli-egokitua. Aretxabaletako Kurtze- barri herri ikastetxea</i>	61
Egia bazan, sar dadila kalabazan <i>Jon Alonso. Bilboko Kirikiño ikastola</i>	89
Etxe hau bai dela guai!!! <i>Laudioko Canciller Ayala batxilergo institutuko ikasleak</i>	111

Ipotx-kalea	
<i>Javier Hernando. Eibarko Jesusen Bihotza ikastetxea</i>	129
Ipotxaren etxea	
<i>Angiozarko herri ikastetxeko ikasleek, Anselmo Vegaren ardura- pean egokitua</i>	139
Itsasminez	
<i>Yolanda Urzelaik egokitua. Ondarroako Zubi Zahar ikastola</i> .	151
Iurretoneko madarikazioa	
<i>Joxe Martin Urrutia. Durangoko Kurutziaga ikastola</i>	163
Jontxuren egoera larria	
<i>Aizarnako herri ikastetxeko ikasleak, Lukas Dorronsororen ardurarapean</i>	189

HITZAURREA

Zortzigarren ikasturtea bete du, 1992-93ko honekin, Eskola Antzerki-gintza laguntzeko Hezkuntza Sailak egiten duen laguntza deialdiak. Deialdi horretan parte hartu duten ikastetxeen, eta batez ere ikastetxe horietan gidoiak tajutzen eta lantzen hainbeste ahalegindu diren irakasle eta ikasleen frutu da liburu hau.

Ikastetxeetako taldeei laguntzen truke eskatzen zaiena hauxe da: eskabidearekin batera (beraiek asmatutakoa denean Eguberriak baino lehen) antzezlanaren gidoia Hezkuntza Sailera bidali, euskara landuz antzezlan prestatu eta gutxienez hiru emanaldi egitea, lehena norbere ikastetxean eta beste biak beste hainbatetan. Ikasturte bukaeran, emanaldi bakoitzari dagokion ebaluaketa-fitxa eta antzerkia nola landu den azaltzen duen galdekizuna bidali behar dute.

Eskoletatik bidalitako gidoiek Hezkuntza Sailean gordeta ezin dezaketela etekin handirik eman eta, irakasleek urtero aipatzen duten euskarazko gidoi eskasiari aurre egin nahirik, gidoiaren artean aukeraketa egin eta liburu hau argitaratzea erabaki da. Argitaratzeko aukeratu ez diren gidoiak, alfabeto ordenaz sailkaturik eta laburpen fitxa aurretik dutela, eskualdeko hedaturiko PATetan daude ikastetxeen eskueran 1992ko irailaz geroztik.

Gidoiok 1988 eta 1991 urteen bitartean jasotakoen artetik hautatuak dira eta, begibistakoa denez, ez dute inolako lehentasun ordenarik: alfabeto ordenaz daude iladan. Lanen egile, itzultzaile, moldatzaile... guztiei eman behar dizkiegu eskerrik beroenak argitalpen hau gauzatu zedin eman

dituzten erraztasunengatik. Esker mila, halaber, Txaro Senosiain lankide ohiari, eginkizun honi eskainitako arduragatik. Beste hainbeste Lukas Dorronsorori, gidoiak hautatzen eta hitzaurrearen ondoren azaltzen den sarrera prestatzen egin duen lanagatik.

Deialdiaren helburu eta nondik norako zehatzagoak jakin nahi dituenak, 1988an argitaratu zen eta honen aintzindari izan zen *Eskola Antzerkia* liburuaren hitzaurrean, urtero ateratzen den deialdian bertan edota Euskara Zerbitzu honek argitaratutako *Euskararen irakaskuntza: 10 urte* liburuan aurki ditzake.

Dena dela, deialdi horren inguruan ikastetxeetan zenbaterainoko mugimendua dagoen adierazten dute 1992-93 ikasturteko parte hartze datuek: 120 ikastetxe, 326 talde eta 632 emanaldi.

Gidoi bilduma honek (PATetan ikastetxeen eskuera dauden gainerakoek bezalaxe) Eskola Antzerkian murgildurik dabilen ikasle eta irakasle jendea sorkuntza lanerako nahi luke kilikatu, emaitzak beste eskolen eskura jarriko direla eta ahalegin horrek merezi duela erakutsiz. Edozein modutan, antzerki gidoi, liburu edo argitalpenei buruzko informazioa nahi izanez gero, PATeko Euskara Aholkulariarengana edota ANTZERTIra jo daiteke.

EUSKARA ZERBITZUA

ERO-HAIZEAREN INDARREZ, JOLASKIDE

Maisu antzerki-zale ero baten kontu eroak irakurtzeko bezain erotua baldin bazaude, ekin iezaiozu, seriooki, zu gehiago araztea beste helbururik ez duten lerro erogarri hauen irakurtzeari. Aitzitik, gizon edo emakume, maisu edo andereño zentzudunari dagokionez, zuhur gizenkorren sailekoa baldin bazara, nola ez dakizula, zuhurtziaren hondatzera etorri zaizun liburu asesino hau bota iezaiozu harrika hurbilenean daukazun eroari, ea, liburua purrukatuaz batera, irakasle eroa ere dasagertarazten duzun. Bejondeizula! Zuhurtziaren zale izanik ere ero-arriskuaren gaxia atsegin bazaizu, ordea, utz ezazu erabakia biharko eta liburua mahai gainean; eta zoaz lotara lasai, amets gaiztorik izan ez dezazun...

Orain, zuhur guztiek, liburua arbuiatu eta, deabruaren zirikaldi maltzurri zuhurki ihes egiteko adorea ukan dutelako atseginez, lo-zurrunka lasaiari ekin diotenean, badakit nortzurentzat ari naizen idazten. Eta, ero-haizearen babes epelean gozoro elkartu garenez, konfidentzia bat egin behar dizuet ezer gehiago esan aurretik, ustekabeen jaso dudan atsekabe dorpearen zama gainetik erauz dezadan.

Hara: sarrera hau behar den tajuz burutu nahi, ba, nik eta, lagun zahar ero baten liburuari bota diot eskua, nere egungo jokabideak eroarazi nindutenen irizpide eroen ildotik ote doazen ziurtatzeko. Eta, begira zer nolako zuhurkeria irakurri dudan lehenbiziko orrialdean.

**«LIBURU HONEN HELBURUA:
LEHENBIZI: DRAMATIKA KREATIBOA
BIGARREN: LUZARO BAINO LEHEN O.H.O.KO IKAS-BEHARREN
ZERRENDAN IKASGAI OBLIGATORIOETAKO BAT HAU
IZAN DADIN LORTZEA».**

Biziro haserretu nau, eta «tako» dramatiko desesperatua bota dut, imintzio eta guzti. Izan ere, esaidazue zuek, ero-haize izpiren batek bederen ikutu bide zaituztenok: haurrarentzat hezi-bide jator bakarra ez ote da jolasa? Eta, ez ote daude kontraesanean jolasa eta obligazioa? Noski! Obligazioa merezi ez duen zigorra da haurrarentzat; eta, antzerkizale purrukatua naizen arren, eta agian horretxegatik, ez dut obligaziozko antzerkirik ikusi nahi eskolan, haurrari obligaziozkorik ezer opa ez diodanez gero.

Nola heldu naizen horrenbesteko erokerietan sinestera? Bai, erotzen hasi berri direnentzat kolpegian ari naiz, agian, haserrearen eraginez neure barrua hustu nahian.

Konfidentzietan hasi garenez gero, kontatuko dizuet, ba, neure historiatxoaren ere:

Duela hamabost bat urte, Eusko Jaurlaritzaren ernamuina zen Kontseilaritza edo —dagoeneko izena ere ez dut xuxen gogoan— zena zelakoa eskola publikoa euskalduntzeko lehen urratsak ematera ausartu zenean, eskuartean borondate ona eta irakaslego tradizionalaren begirasun espatsua besterik ezer gutxi genuela hasi ginen, geuron gisara nolabait autoalfabeturiko, idoneo eta espezifikiko multzoa euskararen irakaskuntzarako didaktika bideak urratzen. Ezinaren kezka larriak hartu gintuen berehala. Eta, ezinak erraz zabaltzen baitizkio ateak auzoari, elkarrengana biltzen hasi ginen ezinpetu guztiok, bailaraz bailara sailkatu ginelarik. Ordurako aurkitua genuen bakoitzak bere nolabaiteko arnaspidea: bata musika, beste psikomotrizitatea, honek antzerkia, hark... Elkarren esperientzien berri entzute hutsa amets berrien iturri bilakatu zitzaigun. Ari ginela ari ginela, gauza batez ohartu ginen bapatean: haurrari jolasgarri zitzaiokeen eran saiatzeko ginela hori guztia egiten, euskara ikastea, obligazio ez baina jolas gerta zekion. Handik laister, haurraren hezkuntza bide jatorra jolasa dela erabaki genuen.

Intuzio hutsean oinarrituriko tesia zen, eta ez zuen balio gure geletan atera ohi genuen istilu alai bezain ezohiko eta, itxuraz, anarkiko haren zurigarriztat eskolako irakasle zuhurrei —gehienak ziren garai hartan— aurkezteko. Historian aurkitu genion tinkagunea geure tesiari. Baserriko

haurrak jolasean ikasten zuela nekazaritza, esan genien, eskulangilearen seme-alabak jolasera joaten zirela aitaren tailerrera, arrantzaleenak...; industrializazioak itxi zizkiela haurrei lantegietako ateak, jolas eginez bizibidean eta gizarte harremanetan naturalki hezitzen joateko aukera galeraziz.

Ez dakit ondo ulertu ziguten, baina gure jokabidea txartzat emateko arrazoi egokiagorik ez zutenez gero, bakean utzi gintuzten.

Hauek honela, heldu ziren 1980ko oporrak, eta hauekin batera ADARRA ihardunaldi ospetsu bezain heterodoxoak. Han bildu zen Euskal Herriko irakasle progresisten gehiengoa. Ehundaka erdi-ero dozena pare bat ero handiren gidaritzapean, besteren «monstruitoak» —barka! Zuhurren lexikotik hartu dut hitza— jolas-giroan edo ahalik eta nekerik gutxiena erabiliz eskola daitezen, didaktika ildo berriak sortu edo ikastea beste helbururik gabe, eta nork bere sakelatik ordainduz, gainera. Ez da harritzekoa zuhurrek boluntarismo hura *euskal masokada* izenez bataiatu izana.

Helburu orokor bakarra zuten, urterik urte errepikatzen joan ziren ihardunaldiek: eskola, haurraren zigor izatetik, atsegín bide izatera eramatea. Giro baikor honetan, bakoitzak bere ero-joeraren arabera aukeratu zuten arloa.

Ni «Jolas Dramatikoa» zeritzan sailean sartu nintzen. Txotxa baino igarrago zegoen sudamerikar bat agertu zitzaigun tartera, bera bezalako lau erraz har zitzakeen txandal urdinean sartua: Alfredo Mantovani.

Ez dakit bera zenbateraino zegoen erotua, baina gu ondo erotu gintuela bai. Umeak bezala jolasean ibili ohi den pertsona heldua burutik egina dagoela esaten dugu gure herrian. Baietz zuenean ere! Ba, maisu-maistra, gazte eta zahar, jolasean jarri gintuen, umeak bezalaxe, lurretik bueltaka, bata bestearen gaineratik eta azpitik, buruz-ipurdika eta soka-saltuan, tximeleta dantzan eta auskalo zertan gehiago. Egundaino halakorik! Koloreak gorri eta elkarri aurpegira begiratzeko lotsaz bukatu genuen lehenbiziko ariketa. Han zegokigun Mantovani begira, ezpainetan kabitu ezinalak irria zeriola, buruari eraginez:

«Barruan gordea daukazuen haurra esnarazi eta zuengan agintzen jartzeko kapaz ez zareten bitartean ez zaitezkeite haurren hezitzaile izan» —bota zigun.

Entzunaz txunditurik, argibide gehiagoren esperoan, aurpegira begiratu nionean, artean ere ezpainetan urrakaitz zegokion irria haur jolasti inoxentearena zela ikusi nuen, eta ulerkaitz zitzaidana sinestu egin nion. Sinestearekin batera, eskatzen zidan metamorfosiaren abentura esperimentatzeko irrikia piztu zitzaidan.

«Ez da berdin hurrekin haur izatea eta, haurrak entretenitzeko, umekeriak egitea —jarraitu zuen esaten—. Umekeriak egiten ditugunean barregarri agertzen gatzaizkio haurrari, eta noski, atsegin harritua eragiten dugu haseran; irakaslea antzezlarari bilakatu baitzaio bapatean. Ona da hau, dudarik gabe, eta gelan nahi baino gehiagotan sortu ohi zaizkigun tentsio-guneetan era orekatuan antzezlarari rola erabiltzeko gai baldin bagara, gela-giro barearen sostengu bilaka liezaguke.

Bestetik da, ordea, hurrekin haur izatea. Irakasle-fisionomia praktikoko, guztijakin eta ahalguztidunaren maskara eraztea esan nahi du horrek, eta hurren kide bihurtzea: haur bat gehiago gelan, ziklo bakoitzean ziklo-kide, etapa bakoitzean etapakide, eta haurraren zeregina jolas egitea dela onetsi dugunez, beti jolaskide».

Benoa, aurrera egin baino lehen, zera esan behar dizuet: hiru ikastaro egin nituen A. Mantovanirekin eta bat Rolando Salasekin (Pinocheten ihesi Europara aldegin behar izan zuen iraultzailea hau). Ez dakit xuxen bietan nork zer irakatsi zidan; ez eta esaten ari naizena, diodanez diodan, haiek esana ote den ere. Baina, hori bai, hau da haiengandik ikasitakoaren arabera jokatzeko ahaleginduz subjektibizatu dudako portaera finkatua. Dena dela, komatxoan artean eta beltzez idazten jarraituko dut haiengandik jasotzat daukadana. Bidebatez esan behar dizuet beste kontutxo bat ere: Mantovanirena zen atzo hasarrarazi ninduen esaldi «zuhurra». Nik ezagutu nuenerako idatzia zuen, liburua 1980an argitaratua denez gero. Zuhurrentzat idatzia zen, noski, obligazio kontu hori, Jolas Dramatikoa eskoletan erabiltzea galera ez zezaten. Banengoen, ba, ni!

Haur jolaskide bilakatu. Teoria polita zen. Baina, ez ote zen gero ero handi haien amets ero zertu ezina? Nola sartu hurren jolas-taldean? Zein da horretarako erabili behar dugun estrategia?

Ilusioa eta kezka, nahia eta ezinaren beldurra borroka bizian hasi zitzaizkigun burua betean.

«Eskolaurrean eta lehen zikloan ez dukezu arazorik: zuk ere jolastu egin nahi duzula eta bestetik gabe jolasten hasi.

Erdi ziklotik aurrera, taldekide ez den beste edonork egin behar izaten duena egin beharko duzu zeuk ere: taldean sartzen utziko dizuten galdetu, hurbiltze-aldi taktiko bat burutu ondoren.

Taldean berri zarenez, irakasle izatetik ikasle izatera aldatu zara. Kontuz arbitro lana egiteko duzun ohitura horrekin! Ez dago arbitrorik. Talde-kultura zehatzaz jabetzen zarenean, haren izakera zeuretu dukezu-nean, talde honetan jolastea eroso eta irrikagarri gerta dakizukeenean, has zaitezke proposamenak egiten eta beste kideek bezala eztabaidan parte hartzen.

Taldearen erabakiak ez dira beti binkulanteak izan ohi. Norbaiti, auskalo zergatik, liderren baten inposaketa nabarmenarengatik, agian, erabakia jasangaitza gertatzen zaionean, ‘BA, ORDUAN, NIK EZ DUT JOLASTEN’, esan ohi du, muturra beltz eta kopeta serio. Presio-bide horrek aldarazi dezake erabakia edo ez. Aldarazten ez badu, zeure jokabidea birplanteatu beharko duzu eta, jasangaitz egiten dizun motiboaren garrantzia eta taldearekin konfliktuan irauteak ekar lezakeen kaltea alderatu ondoren, erabaki berria hartu, beste hurrek egin ohi duten bezalaxe».

Jokabide honi, helduok erabiltzen dugunean, umekeria deitzen diogula esan diot gaur Imanol Urbietari. Bai, bai, hurrekin musika-jolasean besterik baino trebeago nabarmendu delarik, haurren artean haur izatea lortu nahi dugun helduon maisu bilakatu den horrixek. Eta, ba al dakizue zer erantzun didan? Umekeria hitza ez genukeela sekula erabili behar. —*keria* atzizkiak matiz semantiko peioratiboa omen du beti eta, haur babesgabeen jokabide jatorraren mespretxua adierazten duenean, iraingarri bilakatzen dela...

Aitortu behar dut Imanol izan dudala nire eromenaren hirugarren eragilea. Aldian behin, neure eroan ero irauten ote dudan egiaztatzeratortzen zait. Arrazoi du, oraingoan ere. Barka lehen erabilia!

«Oso gogoan hartu behar duzuen oharra: lider rola berehala eskuratzeko arriskua duzue. Kontuz! Noizbehinka komenigarria daiteke: taldea hogeikoa bada, hogeitik behin. Bestela, taldekideen espontaneitatea eta ahalmenen garapen bidea ito egingo dituzue».

Bikain. Sartu gara haurren koadrilan. Bai. Eta, egin dezagun uste baino aiseago sartu garela gainera, eta izugarri erakargarri gertatzen zaigula eskola orduak hurrekin jolasten ematea. Oso polita litzateke, baina ez da hori gure egitekoa. Gurasoek ikastera bidaltzen dituzte haurrak eskola-

ra, eta guri irakasteagatik ordaintzen digu hilerokoa Jaurlaritzak eta ez jolasean ibiltzeko, nahiz eta Jolas Dramatikoa, Haur Antzerkia edo Eskola Antzerkia ontzat ematen duten, astean behin edo, jende aurrean agertzeko jaietako soinekoa jantzi ohi dugunean bezala. Guk irakatsi egin behar dugu eta hurrek ikasi. Eskola Antzerkia biziro sistema ona omen da hizkuntza irakasteko. Laguntzaile ona denik ez dugu geuk ere dudan jartzen, baina besterik gabe nahikoa denik ez dugu sinesten.

Mantovaniren irri pikaroa datorkit gogora:

«Kontuz! Irakasle kontzientzia zuhurra ageri zaizue, Pepito Grillo-ren antzera. Ez zarete jadanik irakasle. Ez ahaztu. Ez eta hezitzaile ere, hitz horrek duen esanahi tradizionallean.

Elkarrizketatzaile bat gehiago zarete haurren artean, zeurok ere esperientzia honetan hezitzen joango bait zarete hurrekin batera. Antzerkiaren bidez hizkuntza ikasteari dagokionean ere ikaskide gertatuko zarete. Txikienek gai bat aukeratzerakoan, han ibiliko zara zeu ere, haurren ipuin edo episodioak entzun eta zeureak kontatzen. Aukeratu dutena inprobisatuz jolastu duzuenean, dagokion dialogo formala deskubritzera jo dezakezue, zeuen proposamenen bidez hizkuntzaren garapenean lagunduz, beti ere adina gogoan erabiltzea ahaztu gabe.

Irakurtzen eta idazten dakitenekin, ipuinak irakurri edo asma ditzaitezue, eta gero, idazterakoan, testu-liburura jo beharko duzue gramatikari dagozkion dudak argitzeko, esamoldeak aurkitzeko, pertsonaiaren bantentzat egoki datorren olerkia nola idatzi jakiteko etabar».

Adizue, zoazte pikutara. Zer nahi duzue, ahitxoa ahora ematea ala? Haur bihurtzeak ez du inor tontotzen. Beraz, eragin zeuen kaskoari eta erabili zeuen irudimena, hurrekin jolasten hasi zaretenetik lehen baino zoliago edukiko duzue, noski, eta. Gainera, hau sarrera besterik ez da. Hemendik aurrera hasten da liburua eta hor aurki dezakezue zer ikasirik, hurrekin jolasean dabilen ero jende ugariaren arrasto nabarmena aurkituko baituzue datozen orrietan zehar.

Ero-haize on! Eta, Ikastetxeko Curriculum Diseinua egiterakoan, gogoan erabili esan dizuedan guztia, ikuskaria datorrenean joko kanpo harra pa ez zaitzaten.

Lukas Dorronsoro

ANTZERKI GIDOLAK

AMAMA BENIDORRERA

OHOko 7. mailako ikasleak,
Mertxe Itxazoren ardurapean
Mundaka 1989

PERTSONAIAK

Ama	Braulio (Darling)
Aita	Eusebio
Amama	Postaria
Klotilde	1. laguna
Alaba	2. laguna
Petra	Suhia
1. gizona	Abadea
2. gizona	

1. AGERRALDIA

(Gela batean ama, amama eta aita; gela hau etxeko saloia bezala apaindurik.

Bertan leiho bat eta ama noizbehinka bertara hurbiltzen eta begiratuz).

Ama Nolako eguraldi zantarra! Eta gure Klotilde oraindik etorri barik.

Amama *(Kaskarrabias bat da, aulki batean jarrita; amama zahar baten itxuraz).*

Zuk daukazu errua! Ala askatasuna, ala askatasuna!
Gaurko gazteek nahi dutena egiten dute. Gure denbotetan izan balitz! Ai Jesus!

- Aita** *(Keinuaz bere emazteari eta publikoari begiratzen).*
Jainkoak eramango balu trankilago egongo ginатеke!
- Ama** *(Amamari, bere gizonaren hitzak entzun eta gero)* Baina, ama, denborak aldatu dira! Han.... *(leihotik begiratzuz)* badator gure neska.
- Klotilde** *(18 urteko neska bat, lelaturik sartzen da etxean).* Egunon!
- Amama** Egunon? Hara nik dinodana *(neskari begiratzen).* Begiratu! Nolako tentel itxura dakarren!
- Klotilde** Ai! *(suspirioz)* Ai ama! *(berriro suspirioz)* Zein ondo nagoen! Hau poza!
- Aita** Zer? Lotoa tokatu zaizu ala?
- Klotilde** Lotoa ez aita, baina horrelako gauza bat bai. Ai!!!
- Ama** Bai? Zer da ba, esan, esan *(bere alabak esaten duenaren zain).*
- Klotilde** Nere Josetxuk ezkondu behar dugula esan dit eta. Ai!!!, baina nik lehenengo zuekin mintzatu behar dudala esan diot.
- Amama** *(Elkarrizketa guztia entzuten egon denez, aulkitik altxatzen da eta).* Nolako berria! Hori da dena? Nere denboretan eta zure urteekin nik alaba eduki nuen.
- Aita** *(Oso haserre).* Pena hori da ba, bat bakarrik edukitzea; bestela beste alabaren batekin egongo zinen.
- Amama** *(Bere alabari).* Mari Pepa! Hori permititu egiten al duzu? Ai Jesus, Jesus, nahi duzunean eramán nazakezu hemendik *(eskuak eta begiak zerura altxatuz).*
- Ama** Ama mesedez ez esan lelokeriarik eta zu *(gizonari)* ixilik mesedez, ea uzten diozuen Klotilderi daukana esaten.
- Klotilde** Bai ama, esango dizuet, baina ez gaur, nekatuta nago eta. Bihar azalduko dizuet nola izan den dena.

(Denak mugitzen dira eta barrura sartzen dira; eszenatoko argiak amatatzen dira eta musika jartzen da).

2. AGERRALDIA

- Amama** *(Amama gelan sartzen da eskuetan palangana urez beterik eta errosario bat dakartzala; aulkian jezartzen da, galtzerdiak kentzen ditu eta oinak palangana barruan sartzen ditu).*
Kailuak bigunduten ipini behar ditut. *(Errosarioa hartzen du eta aleak pasatzen dago)* Santa Maria Jaungoikoaren ama...
- Ama** *(Ama korrikan kaletik dator, eta bere amarengana doa)*
Ama! Badakizu, badakizu?
- Amama** *(Trankil zegoenez susto ikaragarria hartzen du)* Ai!!! Baina zer da iskanbila hau. Zer da jakin behar dudana?
- Ama** Petra zure laguna
- Amama** Bai, zer, hil egin al da?
- Ama** Hil? Ez ez, Benidorren egon da eta guztiz aldatuta etorri da. Dotore, elegante eta gazteago.
- Amama** Ez da hainbeste izango, nere edadekoa da eta... eta ezin zaio haltzari intxaurrik eskatu.
- Aita** *(Harrituta dator eta aulkian jartzen da).*
Ez dakizue zer ikusi dudan!! Petra total elegante! Koño koño, Mari Pepa, zure ama Benidorrera bialdu behar dugu; ea bertan nobioa aurkitzen duen eta uju! etxetik kanpora *(azken hau publikoari eta keinuaz).*
- Amama** Zorua! Neu Benidorrera, horretarako nago. Neuk oraindino nere bihotzean nere Indalezio dut. Goian bego!
Atea jotzen dute eta alaba gazteena da senargaiarekin; biak tentelduta datoz alkarri begiratzen.
- Alaba** Ama, aita, amama, hemen duzue Josetxo.

Ama *(Arin eta presaz, urduri)* Jarri Josetxo; janaria prestatze-
ra noa eta laister nator.

Amama Begiratu tenteltxuari, morroi dotoreak gustatzen zaiz-
kio eh?

Aita Bai, neuk lagunduko zaitut, Mari Pepa; egon trankil
biok *(alabari eta Josetxori)*. *(Amamari keinuaz ixilik ego-
teko esaten dio)*.

*(Josetxo eta alaba jartzen dira eta muxuka hasten dira,
amama noizbehinka haiek begiratzen eta publikoari esa-
ten)*.

Amama Ala! «zelai hezean gozo» Jo eta ke dabilta; laister
ekarriko dute kontsekuentzia ...eta noski, gero arineke-
tan ezkontzera...

*(Ez diote kasurik egiten eta jarraitzen dute, amamak toai-
la hartzen du bere izterrak garbituz; haiengana doa)*.

Amama Eh!!! Nahikoa dala! Lotsabakoa *(neskari)* Zer pentsa-
tzen duzu ba? *(haserre bizian; aita eta amak zaratak en-
tzun eta agertuz)*.

Ama Zer da iskanbila hau!

Amama Zure alaba «berguentza nazionala» dela; hemen eta
nere aurrean arrumetekoak jo eta ke egiten.

Alaba Amama, honekin ezin da etxe honetan ezer egin.
Hobe zu ere Benidorrera joango bazina eta halan guk
ere oporrak edukiko genituzke.

Aita Hori, hori *(poltsikotik propaganda ateratzen du eta ama-
mari ematen dio)* Hemen daukazu, begiratu zein polita
den!

Amama *(Bere alabari begiratzuz)*.
Zuk duzu errua eta laister negarrak egingo dituzu!!

*(Oso haserreturik gizonari paperak kentzen dizkio eta ir-
teten da)*.

- Aita** Mari Pepa! Nik ezin dut aguantatu!
- Ama** Tira, tira, ahaztu orain eta goazen afaltzera.
(Denak jarrita ata amama berriro sartzen da gelan; palangana eta bere gauzen bila dator; amak ikusten duenean mahaitik altxatzen da eta beregana doa).
- Ama** Ama, utzi, neuk eramango ditut eta...
- Amama** Utzi zuk bakean, nik eramango dut, jarraitu zure lana egiten eta zure gizonari kasu egiten *(hartzen du palangana eta badoa) (ama berriro jezartzen da).*
- Aita** Ez egin kasurik ere eta jarri trankil-trankil.
(Hasten dira jaten eta argiak amatatzen dira, musika...).

3. AGERRALDIA

(Teloia bajatu barik argiak pizten dira berriro eta...)

(Hurrengo egunean ama, aita gelan. Aita egunkaria irakurtzen eta noizean behin handik hona begiratzen).

- Aita** Zer, non dago ba?
- Ama** Ez dakit nora joan den, goizetik irten da.
(Amama maletaz prestaturik eta dotore jantzita sartzen da).
- Ama** *(Ikusten duenean).* Zer, ama, nondik zatoz?
- Amama** Etorri, inondik ez. Banoa, oraintxe noa.
- Ama** Nora?
- Amama** *(Oso altu).* Benidorrera!
- Aita** *(Bere lekutik saltoka altxatzen da).* Hau da tokatu zai-
gun loteria!
- Amama** Bai, hiru hilabetetan trankil utziko zaituztet, halan den-
bora edukiko duzue neskaren ezkontza presta deza-
zuen.

Ama Baina, hain arin, ama?

Amama Nik behintzat esan deusut, laister kontsekuentziak edukiko dituzue.

(Maletak hartu eta joaten da, ama aho zabalik, aita dantzaz egiten).

4. AGERRALDIA

(Benidorren. Amama eta Petra eguzkitako aulki batean jarrita).

Amama Petra! Non egon naiz neu orain arte etorri barik. Nere hezurtxuak orain bero-bero daude eta neu trankil trankil etxeko prolemairik gabe!

Petra Bai, bai, baina zutaz herriko jendeak ez du ezer esango, baina nitaz bai...

Amama Zer ba?

Petra Zuk esaten didazu hori? Zer pentsatuko dute ba, gaur heldu Benidorretik herrira eta hurrengo egunean barriro Benidorrera. Baina zuk eskatu didazulako; bestela ez nintzen etorriko.

Amama Badakit, Petra, nigatik egin duzula, baina neuk nere etxeko jenteari aurpegietan eman behar nien eta Benitortori nobio bat musturretatik pasatu behar diot.

Petra Eh! Ez da hain erreza eh!

Amama Beno, gero esango diot nik hori; lehenengo, hemen nola egiten den esan behar didazu.

Petra Hemen... zer?

Amama Zer izango da ba? Liga edo trakero hori.

Petra Liga? Lige izango da.

- Amama** Bai hori, hori ...benga, benga, esan.
- Petra** Ba, begiratu, begiratu, hor datoz bi.
(Gizon bi datoz, euskeraz egiten eta makilaz, nahiko zaharrak).
- 1. gizona** Arratsaldeon, zer Petra, zu berriro hemen? Hau berria da, ezta?
- Petra** Bai, gaur heldu gara, hau ere Mundakakoa da.
- 2. gizona** Gaur, Kokorokon berbena dago, joango al zarete?
- Petra** Bai.
- Amama** *(Petra k esaten duena ebagitzen du)* Ez, ez; kostipauagaz nago eta ezin dut.
- Gizona** Sentitzen dugu ba, beno beste egunen batean izango da.
- Denak** Agur, agur.
- Petra** Baina, okasinoa galdu duzu! Zergatik esan duzu hori ba?
- Amama** Biok euskaldunak dira eta guk inglesak behar ditugu. Oso maitagarriak direla esan didate.
- Petra** Baina, nola berba egin haiekin?
- Amama** «Amisti internatzionali» praktikatu behar dugu *(zutunik ipinita)* entzun, entzun: «txumoro... pipo... dancing... Polla rekord».
- Petra** Polla rekord? Hori zer da ba?
- Amama** Nire ilobak esaten du eta ondo geratzen da... Han! Begira, han datoz bi; zu ixilik eta begiratu.
(Gizon bi sartzen dira, eta bion artean aulkietan jartzen dira, batek besteari...).

- Braulio** Eusebio, begiratu nola dauden, guri begira.
- Eusebio** Bai, egia da, horiek ere euskaldun itxura daukate.
- Amama** Horiek bai, horiek inglesak dira.
- Petra** Nola dakizu ba?
- Amama** Eh!! Hori igerri egiten da.
- Petra** Ahh! (*Ahoa zabalik*).
- (*Amama altxatzen da eta disimuloz Eusebiori behatza zapaltzen dio*).
- Eusebio** W A I H H ! ! !
- Amama** Ikusi duzu? Inglesa da, «Waihh» esan du. (*Arineketan Eusebioarengana doa*).
Plis, txumoro, dancing (*dantzan*).
- Eusebio** Eh! Braulio (*Braulori*) hemen daukagu ligea, gaur ros-koa jango dugu.
- Braulio** Bai, baina ez dakigu inglesik.
- Eusebio** Trankil, trankil (*iragarki bat begiratu «Eau de toilette Darling» Darling! Darling!*)
- Amama** (*Petrari*). Zer dino?
- Petra** Darling deitzen dela.
- Amama** Ah! oui, oui neu...
- Braulio** (*Petrarengana heltzen da*). Beno, (*urduri, Eusebiori laguntza eskatzen*) Beno... Ni in... ni euskalduna naiz eh!
- Petra** (*Suspirioz*). Eskerrak Jainkoari! Eta nola konpontzen zara honekin ba?
- Braulio** Ah, keinuaz, eskuz eta abar, ni Braulio naiz, Mendatakoa.

- Petra** Eta ni Petra, Mundakakoa.
- Braulio** Beno, guk nahikoa eguzki hartu dugu gaurko. Bihar berriro etorriko al zarete?
- Amama** Bai, bai, bihar wan o'klok hemen!!
- (Braulio eta Eusebio, batek besteari begiratzen).*
- Eusebio** Oh, yes, yes at wan o'klok.
Agur, agur...
- Amama** *(Altxatzen da)* Benito!! Musturrak irekitzen joan behar duzu jadanik!! Ikusi duzu, Petra, zein erreza izan den?
- Petra** Bai, bai *(arduratuta)*.

5. AGERRALDIA

(Etxeko saloian, Benitoren lagunak eta bera kartaz jolas-ten, atea jotzen dute, eurentariko bat altxatzen da eta postaria sartzen da).

- Postaria** Arratsaldeon!
- Denok** Arratsaldeon!
- Aita** Zer berri? Telegrama bat?
- Postaria** Bai.
- Aita** *(Zerura begiratzen)* Mesedez oraindino ez. *(Telegrama irekitzen duen bitartean)* Ez du esango etorriko denik, ezta?
- 1. laguna** Sasoia ez da ba?
- Aita** Zurekin bizi balitz ez zenuke hori esango.
- Postaria** Beno, ni banoa, ea berri onak diren eh?

- Aita** Bai, bai, agur (*Denek agur esaten dute eta orain itxaroten zer irakurtzen duen*) Hau ireki baino lehen...
- 2. laguna** Baina zer, Benito, berri asko eduki duzue ala?
- Aita** Bai, bai eta gainera denak oso onak, begiratu, begiratu (*armairura doa eta handik hiru telegrama ateratzen ditu eta irakurtzen hasten da*) Hau, Benidorrera heldu zenekoa da: «Hau Sodoma da. Stop. Umeek ere ingles dakitete. stop. Muxuak. Amama». (*Bigarren telegrama hartzen du eta irakurtzen du*) Hilabete bi edo halan igaro ondoren hau bialdu zuen: «Kaixo darlingak, ingles asko hasi naiz ikasten. Stop. Gaur puffera goaz. Bertan dantza egingo dugu stop. Lagun asko ditut. Stop. Muxuak».
- Aita** (*Irakurri eta gero*) Lagun asko, lagun asko. Guzurra! Nork aguanta dezake sorgin hura?
- 1. laguna** Tira, tira, edonor egongo da eta...
- 2. laguna** Eta oraingoan zer dino?
- Aita** (*Irakurri eta...*) Ai ene!!!
- Lagunak** (*Denok urduri*) Zer?
- Aita** (*Makal jezartzen da*). Heldu da, heldu de nere heriotza. (*Eskuak buruan*) Baina zer egin dut hau tokatzeko? (*Papera eskutik jausten zaio eta lagun batek harrapatzen du*).
- 1. laguna** «Bihar arratsaldeko lau t'erdietan helduko naiz. Stop. Sorpresa bat dut. Stop. Bihar arte».
- Lagunak** (*Benito itxura horretan ikusiz denak, baina banaka, kanpora doaz*) Benito, trankil, ez da hainbesterako! Benito, bihar ere eguna argituko du eta, trankil! (*Ama sartzen da eszenatokira*).
- Ama** Zer, Benito? Bakarrik gelditu zara ala?
- Aita** Mari Pepa! Hau azkena da! (*telegrama ematen dio*).

Ama Zer da ba? (*irakurri ondoren*) Hau al da dena, Benito? Egon zaitez trankil eta goazen bere gela prestatzera. Altxa zaitez, bihar ere eguna argituko du eta...

Aita (*Triste*) Bai, bihar ere eguna argituko du (*ama badoa, Benito eszenatokian jarria oso triste; musika*).

6. AGERRALDIA

(*Leihotik begira, aita eta alaba itxaroten*).
(*Ordulariari begiratzuz*).

Aita Hobe etorriko ez balitz.

Ama Benito! Autobusa dator eta bikote bi jaisten dira.

Aita (*Pozik*) Hara, ez dator.

Amama (*Lehenengo bikoteko bat amama, oso aldatuta: errubia, moderna... eta, ingles itxurako gizon bat*) Eh familia!

Ama (*Bere alabari*) Ez da guretzat izango?

Alaba (*Atzerantz begiratzuz*) Ez, ez atzekoei ari zaie.

Amama (*Hurbiltzen da eta muxuka*) Eh, Mari Pepa! (*Denak aho zabalik gelditzen dira*).

Aita (*Goitik begira amamari begiratzuz*) Arranapola!

Amama Gure Benito! Eman muxua! (*Berarekin autobusez etorri den gizonari*) Eh, Darling!!

Aita (*Darlingi begiratzuz*) Darling? (*publikoari*) Koño!

Amama Hau da nere sorpresa: nere senargaia, Darling (*maite-maite egiten*).

Aita (*Tentel moduan maletak hartzen ditu eta jenteari esanez*) Orain bai, orain loteria tokatu zaigu!!

Alaba Kontxo! Gero berguentza nazionala naizela esango dit niri.

- Ama** *(Besotik hartzen du bere ama eta etxera abiatzen dira. Goazen ama, goazen, gauza asko duzu kontatzeko eta...)*
- Aita** *(Darlingengana doa, lepotik heltzen dio)* Darling eh? Ederra harrapatu duzu.
- Darling** What?
- Aita** *(Altuan)* Hiretzako hobe delá!
- Darling** Oh, yes, yes!
- (Aita eta alaba barruan dagoz, ama sartzen da).*
- Aita** Zer Mari Pepa, non dagoz?
- Ama** Gela bi prestatu ditut eta, nekatuta zeudenez, ohera joan dira.
- Aita** Eta?
- Ama** Eta zer?
- Aita** Mesedez! *(urduri)* Zeozer esan dizu ala ez?
- Ama** Zeri buruz?
- Aita** Zeri buruz? Kasorioari buruz.
- Ama** Ah, bai! ...Bere ezkontza prestatu behar dugula esan du eta bihar goizean etxe berri bat ikustera joan behar dugula.
- Aita** *(Saltoka)* Eupp!! *(ama eta alaba hartuz kalerantz eramaten ditu).*
- Alaba** Baina aita, nora goaz?
- Aita** Afaltzera, hau ospatu behar dugu eta etxetik kanpo izan behar du.

(Kalera doaz eta eszenatokia hutsik gelditzen da, Darling sartzen da alde guztietara begiratuaz).

Darling Plis! Yes! Oh! What! ...Puñeta, nekatuta nago, baina nork sartu nau nahaste honetan? Neu Mendatakoa eta hemen inglesarena egiten *(harantz eta honantz ibiltzen gelditzen da)*.

Amama *(Eszenatokian burua bakarrik ikusten da)* Darling Maitea! Hemen zaude, comer querer?

Darling Oh yes, yes! *(Amamak musua bota dionez, berak ere gauza berbera egiten du)*. Hau dok hau! Eta orain nola azalduko ote diot dena? Ezkontzeko paperak behar ditut, Mendatarra joan behar dut eta argitu behar diot dena. Baina NOLA?

Amama *(Barrutik, irten barik)* Darling! Venir, venir...

Darling *(Publikoari)* Venir! Ai ene! *(eskuak buruan ipinita)*.

(Irteten da eta eszenatokian inor ez, musika) (kaletik, aita, ama eta alaba; aita nahiko alai eta edanda).

Aita *(Oihuka)* Amama! Darling!, Amama, darling!!

Amama *(Ahotsa entzunez gelan sartzen da)* Zer gertatzen da?

Aita Badago.

Amama Zer dago?

Aita Ezkontza.

Amama Ezkontza? Ametsetan ez bada, ni oraindino ezkondu barik nago.

Aita Ez, prestaturik dago, abade bati esan diogu eta baietz esan digu.

Ama Bihar ama, jai handi bat egin behar dugu, herriko jendea gonbidatuko dugu; eta abadea ere etorriko da.

- Alaba** Bada ezpada, abadeari zeremonia erdaraz egiteko eskatu diogu.
- Aita** Bai, bai halan Darlingek dena ulertuko du.
- Amama** *(Darling triste eta arduraz sartzen da)* Oh Darling *(beregana doa)* Bihar, bihar!!
- Darling** Bihar, bi-har?
- Amama** Mañana, anillos, casar... *(atzamarrak erakusten dizkio).*
- Darling** *(Ulertuz)* Oh! Yes! Yes! *(publikoari)* Ama!! Esan egin behar diot, nola, nola?
- Ama** Beno, beno gaurkoa nahiko da; bihar lan asko daukagu; goazen ohera.
- (Astiro, eta azkena Darling, irteten dira. Musika. Argiak amatatzen dira).*
- (Hurrengo egunean Darling gelan sartzen da eta aulki batean jarrita urduri; suspirioak botatzen).*
- Aita** *(Abesten sartzen da, harantz eta honantz Darling begiratzen)* *(Beregana doa)* Eh! zu! Orain ez duzu utziko ezta?
- Darling** Mi no entender.
- Aita** Tu! *(atzamarrak seinalatzen)* CASAR!!! CASAR!!!
- Darling** Oh, yes, yes.
- Aita** *(Suspirioka)* Ah *(Lasai, badoa. Amama sartzen da).*
- Amama** Darling, mai darling, miusik pajaritos ipini? *(Dantza egiten irрати batera heltzen da eta martxan jartzen du; barrutik edonork soinua jotzen, «Pajaritos» abestia)* *(Biak dantzatzen hasten dira, noizbehinka muxuak botatzen, halako batean Darling minez gelditzen da eta eskuak gerrian ipintzen ditu).*

- Darling** Ai!!! Ai!!! Jesus!!! Ai!!! Ene!!! Zer arraio da hau!!!
- Amama** (*Ahoa zabalik bere ahotsak entzuten*) (*Publikoari*) Arin ikasi du.
- Darling** Laguntza, mesedez, medikuari deitu, min ikaragarria dut. Mesedez!! (*Oihuka*).
- Amama** Baina nork irakatsi dizu?
- Darling** Inork ez, koño... ni ez naiz inglesa, Mendatakoa baino. Zuk eduki duzu errua, zuk eta zure maniak. (*Minez*) Ai!!!
- Amama** (*Gorantz begira*) Indalezio, baina zer egin didazu? Horretarako joan naiz neu Benidorrera? Indalezio, zer egingo dut orain. Zer? (*Eszenatokian dabil, atzetik Darling aieneka, baina amamak ez dio egiten kasurik; momentu batean ixilik gelditzen da eta Darligengana doa*).
Ah! Darling, parkatu behar didazu. Oraintxe noa laguntza bila.
- (*Arineketan irteten da eta zarata ikaragarri bat entzuten da, eskilaratik jausi da. Amama, aita eta alabaren ahotsak entzuten dira*).
(*Eszenatokian sartzen dira aita, alaba eta ama, amama dakartela eta aulki batean ipintzen dute, amama ere negarrez*).
- Amama** Darling, begiratu zer jazo zaidan. Orain biok bardin gaude uh, uh....
- Aita** (*Darling okertuta dagoela konturatzen da eta beregana doa*) Darling, zer daukazu?
- Darling** Kaka! Darling kaka! Neu Mendatakoa naiz... mesedez medikua ekarri!!!
- Suhia** (*Sartzen da*) Kanpoan esan didate zer gertatu den; goazen, goazen klinika batera, kanpoan daukat kotxea, goazen, goazen.
- Ama, Alaba** Bai, goazen (*amak eta alabak amama daramate; aitak eta senargaiak Darling daramate*).

(Berrero aita eszenatokian sartzen da eta aulki bat hartuz jezartzen da; pentsatzen dago).
(Publikoari begiratzuz).

Aita Hemen amaitzen da historia!
Lehen bat, orain bi!!
(Ardoa hartzen) Mi gozo en un pozo!!!

(Tinbrea jotzen dute eta aitak ez du egiten kasurik. Abade baten burua ikusten da eta gero sartzen da).

Abadea Ave María Purísima.

Aita *(Atzera begiratu barik)* Sin pecado concebida.

Abadea Zer, prest daude nobioak?

Aita Bai, bai, prest daude, bi momia bezala!

Abadea Momiak bezala, ni ezkontza batera etorri naiz, ez inor lurperatzera!

Aita Lurperatu? Lurperatu? Ni lurperatuko naute martxa honetan.

Abadea Zu, seme? Zu primeran zaude eta? *(Leku guztietara begiratzuz)* Baina, etxe honetan ez dago inor? Zer gertatzen da?

Aita *(Salto batean altxatzen da eta aulkia botatzen du).* Neuk esango dizut zer gertatzen den; ezer ez, abade jauna, ezer ez *(eszenatoki erdira doa).*

LEHEN GUTXI BAGINEN, ORAIN AMONA HAURDUN!

(Musika ipini eta amaiera).

AMONAREN URTEBETETZEA

Mikel Ibareguren
Karmelo Etxegarai ikastola
Azpeitia 1990

PERTSONAIAK

Aita	Amona
Ama	Ander
Terexa	Kandida
Sorku	Umea
Zerbitzaria	Kuspida

I. ESZENA

*Afaltzeko ordua da, eta aita mahaian dago eserita egunkaria irakurtzen, zerbitzaria zerbitzuak egiten eta amona betiko sofan puntua egiten.
Terexa eta Sorku sartzen dira.*

Terexa Kaixo aita (*musu bat emanaz*).

Aita Kaixo, kaixo Terexa, zer moduz gaurko eguna?

Sorku Oso ondo aita, nik asko estudiantu dut, eta... (*Terexak mozten dio berea esplikatuaz*).

Terexa Nik hobeto aita, gaur azterketa egin dugu eta inglesean gorenetakoa nota atera dut.

Ama (*Sukaldetik sartuaz*) Non ote dugu Ander, hau beti bezela berandu afaltzera.

- Terexa** Ama! Ez dakit seguru, baina zigortuta egongo da agian, kanpoan ikusi baitut azkenengo orduan.
- Sorku** Bai ama, nik ere ikusi dut. (*Berea behintzat garbi utzi nahian*) Ni ez naiz sekulan zigortuta egon.
- Ama** Bai, bai alabatxo, badakit hori, ea Anderrek noiz ikasten duen zuek bezela ibiltzen.
- (*Amona, puntua egiten ari dela, adi dago mahaian esaten den guztiaz, txoriburu xamarrak direla pentsatuaz eta imintzioak eginaz*).
- Zerbitzaria** (*Sukaldetik sartuaz*) Zer jaunak, aterako al dut afaria?
- Ama** Bai, bai atera ezazu!
- Zerbitzaria** (*Gizonarengana zuzenduaz*) Berorrek ardorik nahi al du?
- Aita** Bai atera ezazu Errioxatik ekarritako hura.
- Zerbitzaria** Berehala jauna! (*ezkutatu egiten da*).
- (*Ander sartzen da buru-makur, hitzegiteko gogorik gabe, kaixo esanaz justu-justu. Mahaian eseritzen da mutu*).
- Aita** Zer... ez al dek ezer esan behar...? (*egunkaria begi pare-tik kenduaz*).
- Ander** Ez, ez daukat hitzegiteko gogorik.
- Aita** (*Haserreturik*) Ez! Pentsatzen diat, zigortutua egon hartzela ere, ez dek esango ez...?
- Zerbitzaria** (*Bandeja batekin sartzen da eta zerbitzatzaren hasi*). Hemen naiz jaun-andreak. Hartu berorrentzat ere, eskatutako ardoa.
- Ama** (*Autoritatez*) Baina Amanda, ez al dakizu hitzegiten ari garenean ez zaigula elkarrizketa moztea gustatzen...?
- Zerbitzaria** Bai, barkatu andere.
- Amona** Amanda mesedez, ekarriko al didazu medikuak erreze-taturiko pastillak eta baso bat ur?

- Zerbitzaria** Bai amona, nola ez ba...? (*ezkutatu egiten da*).
- Ama** Beno Ander, zer egin duzu ba..., zigortua egoteko?
- Ander** Ezer ez ama, gainera ez da nere errua izan.
- Ama** Nola ezetz? Norena izan da ba orduan...?
- Aita** Aldamanekoarena, beti bezela... Seme, badakizu gu zein famili noble eta ospe haundikoa garen..., badakizu kalean jendeak Milord luitxistongdarrentzat nolako errespetoa duen eta hori neretzako ohore haundia da..., zure jokaerak moztu dezakeena. Ulertzen didazu, ez? (*ahots tonoa piska bat altxatuaz*).
- Amona** (*Erretolikarekin nazkaturik Ander defendatu nahian poli-ki-poliki jaikitzen da, hitzeginaz*) Beno, bale! nahikoa dezue, utzi iouzue pakean afaltzen. Horrela jardunda ez diozue laguntzen eta...
- Aita** (*Gogor samar*) Zu isilik ama!
- Amona** (*Hau ere gogor samar*) Ixilik egoteko! Zu zeu ere gazte denboran nolakoa zinen gogoratzen al zara?
- Aita** Beno, horrek orain ez du axolarik!
- Amona** Ez, badakit baina noizean behin gogoraraztea ere, ondo etortzen da.
- Zerbitzaria** Hemen dituzu pastillak eta ura.
- Amona** Eskerrik asko Amanda. (*Berriro sofan esertzen da, pastillak hartzeko*).
- Terexa** Beno ama, guk afaldu degu eta ohera goaz.
- Ama** Bai ondo da. Amanda, lagundu iezaiozu pijama jazen. (*Atea jotzen dute*).
- Zerbintzaria** Bai andere. (*Joan egiten dira eta aldameneko alarguna sartzen da handik pixka batera*).

- Kandida** Kaixo, M.^a Angeles! Gabon eta on egin denoi.
- Aita** Kaixo, kaixo Kandida! Eskerrik asko.
- Amona** (*Bazterretik bere artean esaten du*) Hauxe bakarrik falta genian, puuuf! Zertara etorri ote da hau hona?
- Kandida** Afaria prestatzeko oliorik gabe geratu naun, eta piska bat ba al daukan uzteko moduan?
- Ama** Bai horixe! Amanda! Amanda! Lo hartu ote du ba? Alferrik da, neuk ekarriko dinat. (*Ezkatatu egiten da*).
- Zerbitzaria** (*Presaka sartzen da*) Bai andere! Zer nahi du berorrek? (*konturatzen da ez dagoela eta sukaldera joaten da*).
- Kandida** (*Anderren egoeraz jakinminez, galdezka hasten zaio*) Zer... zer du mutiko honek, ez du bururik altxatu ere egiten?
- Ander** Ez zait ezertxo ere gertatzen! (*ia nazkatuta*) utzi ieza-dazue pakean mesedez!
- Aita** Ezer ez esaten dek gainera? Atzo ekarri zituen notak ikusi bazenitu Kandida? Bost suspentso, eta ez hori bakarrik, gaur ere zigortuta egon dela!
- Kandida** Jesusss... suspentso asko ez? Nere alabak ez du batere ekarri. (*Bere alaba goretsi nahian*). Ezagutzen dezue nere alaba ezta?
- Aita** Bai horixe! Neskato ederra dago.
- Ama** (*Olioarekin sartzen da*) Hemen botila bat, har ezan!
- Kandida** Beno eskerrik asko, bihar bueltatuko dinat, ...portzier-to, nere alaba oraintxe helduko da, eta ekarriko dizuet hobeto ezagutzeko..., oraintxe arte.
- Amona** (*Desesperazio zeinuak eginaz*) Jo! Eta gainera hori.
- Ama** Amanda! Amanda! (*deitzen dio zerbitzariari*).

- Zerbitzaria** *(Ahoan afaria duela irentsi ezinik, eta zailtasunez hitzegina-
naz sartzen da)* Bai andere! ...zer nahi du berorrek!
- Ama** Afaldu al dezu?
- Zerbitzaria** *(Bai egiten dio buruarekin).*
- Ama** Beno ba..., jaso ezazu mahaia eta biharko prestakizunak egiten hasi.
- Zerbitzaria** Bai andere, berehala. *(Presaka eta urduri ezkututzen da).*
- Kandida** *(Umearekin sartzen da).* Kaixo, hemen naiz berriro ere, hona hemen nere alaba polit eta liraina...
- Ama** Bai, oso polita eta maja ematen du. *(Beregana hurbiltzen da).*
- (Ander ia nazkaturik eta kokoteraino jarrita, isil-isilik jai-ki bertako egoera hautsi gabe, eta alde egiten du inor konturatu gabe, gurasoak Kandidaren alabarekin konzentrataturik baitaude).*
- Aita** Zenbat urte dituzu?
- (Haurra kasurik egin gabe lotsagabe mahaira hurbiltzen da, eta bertan dauden sagarrak probatzen eta dastatzen hasten da, bati hortzaka egin, utzi eta bestea probatuaz, etabar).*
- Kandida** Baina, etorriko al zera hona? ...zertan zabilta...?
- Umea** *(Saltoka eta jolasean amonaren ondora joaten da, eta berari begira so geratzen zaio).* Zein da emakume zahar hau... ama?
- Kandida** Baina, etorriko al zera hona? Hori Manuelen ama da eta utziozu pakean!
- Amona** *(Begirasun zorrotzak botatzen dizkio).*
- Ama** Lasai Kandida... amonari haurrak asko gustatzen zaizkio eta.

- Amona** *(Ia desesperaturik)* Bai baina ez horrelakoak...!
- Kandida** *(Gogorrago)* Baina, etorriko al zera hona...? *(amonak esandakoarekin piska bat molestaturik, eta garrantzia kendu nahian)* ...Ikusi al dituzue etxean egin ditudan obra berriak?
- Aita** Ez, ez ditugu ikusi...
- Kandida** Ba... zertan zaudete! Etorri lasai ikustera, ikusiko duzue ze areto ederra prestatu dudana... *(ezkutatu egiten dira haurrarekin batera)*.
- Amona** *(Lasaituaz)* Ume musuzikin xastraka alua, ...eta besteak lasai bere historioak kontatzen. Gero, nola semearekin ondo konpondu? Ezina.
Ez diote hitzegingo ez aldamenekoari hitzegiten dioten goxotasunarekin! Anderrentzat denak builak eta builak.
- Zerbitzaria** Pufff! Joan al dira? A ze desesperazioa neukan gainean... ezin nuen aguantatu. Sukaldetik ere dena entzuten zen. Ander gizarajoari horrela hitzegingo baliote, «lasai, lasai», «ze polita, ze maja»... eta ez dakit ze ghiago...
- Amona** Bai ni ere konturatu naiz horrekin, kanpokoekin uso eta etxekoekin otso. Nik ez dut ulertzen, gaurko guraso hauek beren parean ipini nahi dituzte, gizon eta errespetagarri izateko, beste ezer ez dute buruan, ez dira konturatzen dituzten maila desberdinak, lehendabiziko arazoak, lehendabiziko ezinak... laguntza eza...
- Zerbitzaria** Bai..., ni ere gogoratzen naiz, bere garaietan edukitzen nituen arazoak, estudiatu nahi baina ezin, bai, bai, ez da gezurra..., beste arazo batzuek betetzen zidaten burua; etxeko giroa, lehen haserreak beste era batera pentsatzen hasten zarelako, edota lehen aldiko amodioa ezagutzen duzulako..., aiii! *(hasperen eginaz)* momentu gogorrak baina, pasa beharrekoak, adin honetara iristerako... bizitzaren legea da Maritxu...
- Amona** Pufff! Niri esango didazu ba..., nik ere baditut bai horrelako gogoetak, eta hori bihar 64 urte bete behar

ditudala. (*Hasperen eginaz hau ere*) nostalgikoa jartzen naiz Amanda.

Gogoan dut nere Koxmek egin zidan lehendabiziko oparia... oso unkiagarria izan zen neretzat.

Zerbitzaria Bihar 64 urte... jesuss, bada zeozer bai, ...zorionak Maritxu, biharko partez.

Amona Eskerrik asko Amanda, ze polita den zutaz norbait gogoratzen denean... benetan emozionatu egiten naiz.

Zerbitzaria (*Emozionaturik baina, disimulatu nahian*) Beno, orain ez dugu negarrez hasi behar e...?

Amona (*Ia negarrez hasi beharrean painueloarekin mukiak kenduaz*). Bai Amanda ni banoa, bihar arte!

Zerbitzaria Ondo lo egin eta bihar arte! (*honek azkenengo ikutuak ematen dizkio etxeari eta ezkutatu egiten da*).

II. ESZENA

(*Hurrengo goizeko iratzargailua entzuten da. Zerbitzaria azaltzen da gosaria prestatu eta ogi tostatuak gurinarekin igurtziz*).

Terexa Egunon Amanda! Cola-Caoa prestatu al didazu? (*liburuak mahai gainean utziaz*).

Zerbitzaria Bai prestatu dizut!

Terexa Ba... ateraiezaidazu katillura... zertan zaude? (*Zerbitzariak agindutakoa betetzen du*).

Sorku Egunon! ...Amanda prestatu al didazu kafesnea?

Zerbitzaria Bai prestatu dizut! Tori (*kafesnea ateratzen dio katillura, esplikazioak eman baino lehen*).

Sorku Horrela gustatzen zait Amanda, nere aitak zerbaitegatik ordaintzen dizu, ez?

- Zerbitzaria** *(Lehenbaitlehen bidali nahian)* Bai, bai, nola ez ba? Bukatu al dezue?
- Aita** Egunon Amanda! *(kafeari xurrutada txiki bat egin eta maleta hartuta presaka joaten da, aterkiontzitik aterkia hartuta).*
- Ander** *(Loaren orratzak kendu ezinik eta nahiko lasai)* Egunon Amanda zer moduz?
- Zerbitzaria** Ondo, eta zeu ere bai? Nahiz eta atzokoa gozoa ez izan, hemen prestatu dizut, pasteltxo bat ikastolan jateko.
- Ander** Eskerrik asko Amanda! Banoa, berandu nabil eta.
(Ander ezkutatu ondoren, Amanda ere ezkutatu egiten da).
(Lasterrera amona azaltzen da, beti bezela irratia piztu eta betiko sofan eseriaz, puntua egiten hasi aurretik pastillak hartuaz. Bapatean, Kaxianoren Zorionak abestia entzuten da amonari dedikaturik, eta hau emozionaturik dantzan hasten da, batetik bestera).
- Ama** *(Abestiarekin esnaturik, batoia jantzita azaltzen da, amona dantzan harrapatzen duelarik).* Baina, ama, burutik jota al zaude? Zure bihotzak hartuko duen tratua...!
- Amona** *(Oso pozik)* Nere bihotza sekulan baino gogorrago dago, gaur 64 urte bete ditut eta norbaitek abesti eder hau dedikatu dit.
- Ama** Egia, gaur zure urtebetetzea, zorionak ama, ez nintzen gogoratu ere egiten...
(Ting-tong! Timbre hotsa entzuten da).
- Ama** Ama barkatu iezadazu, hau Kuspida nere laguna izango da eta atea zabaltzera noa. *(Ezkutatu egiten da).*
- Amona** Nere urtebetzearekin nola gogoratuko zinen ba... okupatuta baitzaude, zure lagunak direla, aldamenekoa dela... ez dakit zer... badakit zer...

(Lagunarekin sartzen da).

- Ama** *(Esajeratuaz)* Jesusss chicaaa! Bai morena, ez?
- Kuspida** Benooo! No sabes chica! Eguzkia hartu eta eguzkia hartu besterik ez ninan egin.
- Ama** Eta non den ba gizona...? Lotsatu egin al den edo zer?
- Kuspida** No me hables chica! Jesusss... ez dakin ondo zer gertatu zitzaion *(amona ikusten du eta belarrira xuxurlatzen dio).*
- Ama** *(Algaraz)* Jesusss! ...Hori trantzea hori, gizonarena.
- Kuspida** Benooo... gehiegia zen bai...
- Kandida** *(Presaka sartzen da)* M.^a Angeles! M.^a Angeles! Falcon Crest hasi dela eta etorri azkar...
- Ama** *(Interesaturik)* ai! Bai, bai, oraintxe goaz. Goazen Kuspida, kafetxo bat hartuaz bertan hitzegingo dinagu nahikoa, hori bai, Falcon Crest bukatzen denean... ji! ji!
- Kuspida** Beno ba, goazen! Han ere ez ditut batere galdu, portzier-to, Lance zeinekin ezkondu zen azkenean... *(komentarioak eginaz ezkutatu egiten dira).*
- Amona** Besterik ez dute buruan, Falcon Crest, chica no sabes, jesus, eta horrelakoak... gero nola gogoratuko da ba nere urtebetetzearekin... normala. Nerekin gogoratzea baino gauza garrantzitsuagoak dira horiek.
- Zerbitzaria** Egunon, eta zorionak, Maritxu, pastelxo goxo bat prestatzen ari naiz, zure urtebetetzea ospatzeko.
- Amona** *(Goxo-goxo)* Amanda eskerrik asko, oso ona zera nerekin eta emozionatu egiten naiz.
- Zerbitzaria** Beno ez gaitezen hasi... bestela ni ere malkotan jarriko naiz. *(Amonari bizkarretik helduaz).* Barkatu behar didazu baina, bazkaria prestatu behar dut eta banao sukaldera.

Señora aldamekoarekin Falcon Crest ikusten egongo da, ezta? (*ezkutatu egiten da*).

Amona

Noski, noski, ...hori da hauen dotrina, beste edozerren gainetikoa gainera.

III. ESZENA

(*Gizona sartzen da bazkaltzera, eta bere atzetik zerbitzaria mahaia prestatzera*).

Aita

Kaixo ama, zer moduz...? (*beti bezela mahaian eseri eta egunkaria erreparatuaz*).

Amona

Ondo, beti bezela.

Terexa

Kaixo denori! (*aitari musu bat emanaz mahaian esertzen da, Sorkuk ere berdin egiten duelarik*).

Ama

(*Presaka antzera sartuaz*) Hemen al zerate ba...? Denak nere zai egongo zineten... bai badakit baina, Kuspida etorri da oportetarik, eta ikustalditxo bat egitera etorri zait, eta horregatik berandutu zait.

Manuel

A bai, kontxo! Eta zer kontatzen du...?

Ama

Jesussss! Ez dakizu ondo, baina gero kontatuko dizkizut, ez baitira umeen aurrean kontatzeko modukoak, gainera aldatzera noa eta berehala naiz. (*Ezkutatu egiten da*).

Terexa

Gaur ere Ander gelatik kanpora ikusi det, eta orain kalean dabil bakar-barrik.

Sorku

Bai gaur ere ibiliko da txorakerietan, beti bezela auskalo zer egiten.

Amona

(*Gehiegi hitzegiten ari direla ohartzen da*). Ai... zuek bai ote dakizue ba, zertan dabilen? Jakin gabe zergatik hitzegiten dezue horrenbeste?

Aita

Benoa ama, umeak dira oraindik eta utz itzazue pakean!

- Amona** Ander ere ez al da umea? Eta nola hitz egiten diozue?
- Ama** (*Sartuaz*) Ai ama... orain ere ari al zera Anderren abokatu defendatzailearena egiten...?
Nota txarrak atera ditu, eta estudiatu beharra dauka. Bere onerako egiten dugu, etorkizunean ospe haundiko pertsona bat izan dadin.
- Terexa** (*Beti bezela Sorkuren bozeramailearena eginaz, eta asko estudiatzen duela argudiatuz*). Beno aita, ama, guk behintzat nota onak atera ditugu eta uzten al diguzue lagunengana joaten?
- Ama** Bai baina, ez ahaztu orraztea. (*Amanda orraziarekin zain dago orrazteko*).
- Amona** Gauza bat da nota txarrak ateratzea, eta bestea lagundu beharrean builak atera eta estudiatu egin behar duela esatea...? Sekulan saiatu al zerate berarekin eseri eta estudiatzen benetan laguntzen, hitz hutsetan gelditu gabe? Ez al dezue uste konprenitzen duela berak ere nota txarrak ateratzen dituela...? Zerbaitegatik izango da, ez? Zergatik ez lagundu zerbait hori bilatzen, adibidez...? Zuek ere pasatuko zenuten hori, ezta...?
- (*Aita eta ama mutu daude zer esan ez dakitela, eta harriturik*).
(*Justu orduantxe... ting-tong timbrea entzuten da*).
(*Zerbitzariak atea irekitzen du, Ander azaltzen da bi lagun trikitilarirekin, Kaxianoren Zorionak abestia joaz eta kantatuaz*).
- Kandida** (*Hau ere dena harriturik*). Baina, zer gertatzen da hemen? Ze zarata dira hauek?
- Amona** (*Dena emozionaturik*). Zer gertatzen den...? Begira begiraiozu zuen deabrutxoari, nolako oparia ekarri didan, nere bihotz bakartia alaitzeko. Notak ateratzen ez da ona izango baina, jendearengana iristen kuttuna eta maitagarria da, ala ez...?

AMAIERA

ATRAKOA

OHOko 5. eta 6. mailako ikasleak,
Yolanda Arrietaren ardurapean
Berriatuko herri ikastetxea
Berriatu 1990

PERTSONAIAK

Enrike	polizia argia, kargo handikoa
Pepe	polizia beldurtia, erdi leloa, baina nagusiaren semea
Merzedes	«Aberats Banko»ko langilea
Mari Paz	«Aberats Banko»ko langilea
Juanita	lehen aberats izandako emakumea
Miren	Juanitaren neskamea
Potito	lapurra
Potato	lapurra, beste lapurraren anaia gaztea

Tokia

Lau toki desberdin ageri arren, ez da inolako eszenatoki apartekorik erabiliko. Mahaia, aulkiak eta gainontzekoa, pertsonaiek euren hizketaldietan agertuko dituzte eta bi gauza toki bitan baina denbora berean agertzeko, bata «konjelatuz», hau da, geldituz, egingo da.

Garaia

Egun bat litzateke, hasi goizean goiz eta gauerdian ingurura arteko epea.

Idea

Ikasleen gogoak «atrako» bat egitea zen. Beraz, ideia horretatik abiatuz, «egoera» bat, pertsonaia batzuk, sasoi bat eta toki bat (azkenean asko agertu arren) zehaztuz, hara zer atera duten. Ni, beraien ideia hautsi gabe, pertsonaiei nolabaiteko «bizitza» ematen ahalegindu naiz, beraienkin

batera. Historian dagoen mensaia, edo bertan isladatzen den munduareki-ko ikuspegia, umeena, beraiena da edo telebistan ikusten dutena...? Ez dakit, ez dut «kokorik» jan nahi izan. Izan ere, zaila da, nik uste nuena baino gehiago, hain bizirik duten traste horretako irudi eta imajinazio mundutik ateratzea. Hona hemen atera duten istorioa.

I. AGERRALDIA

(Eszenatokia hutsik. Musika entzungo da eta banaka-banaka, obrako partaideak aterako dira, antzerkian burutuko duten akzio sinple bat, hamar mugimendutan eginez, hitzik gabe. Hau egin ahala, beste batek, aurkeztu egingo ditu, beren izena eta berezitasun txiki bat emanaz).

Aurkezlea

(Musika) Juanitak, beti bezain lirain, abentura berri batean sartuko gaitu. *(Musika)* Mari Paz eta Mercedesek, Aberats Bankoan kreditu onak emango dizkizute. *(Musika)*. Potito, Potato eta Miren, orain ere gauza txarren bat pentsatzen... *(Musika)*. Enrike et Pepe, gure polizia ausartak, hemen, gu zaintzeko asmoz.

(Bakoitza aurkeztu ondoren, ertzetara alde egingo dute. Hurrengo eszena, Juanitaren etxean. Goiza da, Juanitak ez dio bere neskameari soldatarik ordaindu. Urte betekoa zor dio, eta gaur, neskameak...).

Miren

(Etxea eskobatzan) Doña Juanita, noz pagau bistezu...? Urte guztikue zor deustezu eta ia, etxate gatzen bape diruik...

Juanita

Ba..., datorren astien... Datorren astien...! Ziur e...

Miren

Ez...! Nahiku da! Nik ointxe nahiot eta... ia, ordaintzen ezpostezu, denuntziau eingo zaitxut...!

Juanita

Egon trankil...! Egon trankil...! Datorren astien, datorren astien ordaindukotsut...

Miren

Ordaintzen ezpostezu..., e..., poliziarengana joango naz. Benetan e..., jun, jun eingo naz... *(Aterantz)*.

- Juanita** Ez, ez, ez jun... Ointxe, ointxe emongotsut dauketan guztixe... Ia, ...hamar, hogei..., hartu, hartu...
- Miren** Milakuek izengo die, ezta...?
- Juanita** Ba..., suerte txarrez, ez! Hogei pezta besteik ez die...!
- Miren** «Hogei»...? «Hogei» pezta baino ez...? Badakizu zer diotsudan...? Hartu zeure hogei peztok, hartu zeure eskobie, hartu zeure amantala eta jun pikuta! (*Alde egi-nez*).
- Juanita** Jesus Maria eta Joxe! Zer eingot ba oin nik...? Eztauket diru tantarik euki be eta... Ia bankuen..., ia bankuen zeozer emoteosten...

(Potito eta Potato lotan. Potito, anaia zaharrena, ametsetan. Potato, anaia txikia, alboan, lo).

- Potito** (*Ametsetan*) E... Bai..., Ameriketara..., Ameriketara bai..., Ameriketara..., bai ondo... (*iretzarri golpera*) E...? Ameriketa...? Ai! ametsa! Ametsa baino ez da izen...! Eta egixe balitz...? Bai, baina zelan jun...? Diruik be eztauket... Ia, raketiek, bost mile pezeta, bizikletiek beste hogei... eta zestiek..., zestiek..., bai zera...! Ameriketa juteko hori baino gehixau bida... Zelan? Zelan jun leike baña... Laguntzarik baneuke... Bankue... (*anaia gazteari begiratu*) A! klaro! berak! berak lagundukoste...! (*Esnatzera*) Potato! Potato! Esnatu...! (*Bestea lo*). Nahiozuz hiru karamelo...? (*Bestea lo*). Nahiozuz zuri gustetan jatzuzen karamelo gozo-gozuek jan...? (*Bestea lo*). Alperrik! (*Berriz saiatuz*) Nahiozu, beti-beti karameluek jaten eta lotan egon...? (*Golpera esnatu anaia*).

- Potato** Baiiii! Bai!! Zer einbi da?

- Potito** Halako baten...! Beitxu, entzun... (*belarrira plana eta eszenatokitik alde*).

(Miren, Juanitaren neskamea sartzen da eszenatokira. Kartel bat darama: «LANA BEHAR DUT». Potito eta

Potato pasatzen dira bere aurretik, hauek ere jende bila ari dira. Bere aurrean geratzen dira, euren artean komentatzen).

- Potato** Hau ez da ertzaine izengo ezta...?
- Potito** Bai zera! Horrek erropokin...? Gainera baltza da. Baltza da ertzaine izeteko... Hau geure modokue, seguru...! (*Berarengana hurbiltzen dira*).
- Potito** Biher bile ei zabiz...
- Miren** Bai...
- Potato** Inoiz lapurretan ein dozu...?
- Potito** (*Anaiari*) Ixi! Hau astakirtena...!
- Miren** Bai. Behin. Ugazabandrian etxien...
- Potito** A! Orduen esperientzixe daukezu e...
- Miren** Bueno...
- Potato** Nahiozu geugaz bankue ostu...?
- Potito** Ixi! Ixi baina! Zer nahiozu, eurek bankokuek be entzuztie, ala?
- Miren** Bale. Zer einbi da...?
- P eta P** (*Eurekin hartuz belarrira esanez eszenatokitik kanpo*).

II. AGERRALDIA

(«Aberats Bankoa». Bertako langile biak lanean. Behar dituzten tresnak (mahaiak eta aulkiak) testua erabiliz sartuko dituzte. Horrela, eszenatoki aldaketa. Tresna guztiekin, eszenatokiaren ezkerreko ertzean jarriko dira. Hori izango da bankoa).

- Mari Paz** Ia zapatuen etorten dan Pakita hau garbitza...

- Merzedes** Mari Paz, haretzek kontuek pasaubistezuz, atzokuek amaitxu nitxun eta...
- Mari Paz** A, bai, egixe! Hemen daukezu. Begitxu, hemen ipinitzut zer einbizun...
(*Lanean, paper artean*).
- Merzedes** Ene! Berandutu ein jaku...! Zelan pasetan dan denporie...! Ia, kontetan hasi bikou... Ia, hasi, neuk lagundukotsut eta...
- Mari Paz** Bai, zuk papelien idatzi ahala, nik kontau eta gorde eingot.
- Merzedes** Marirena, 10.000 pta. da.
- Mari Paz** Bai, hemen dao. Justu gainera.
- Merzedes** Rodolfoarena, 20.000, uste dot...
- Mari Paz** Baina hemen, 10.000 pta. baino eztau... Ia, begitxu barriro...
- Merzedes** Egixe! 10.000 die. Pilirena, 20.000 da.
- Mari Paz** Despistaute zabiz ala...? Hemen, 19.999 pta. dagoz. Begitxu hobeto.
- Merzedes** Ba..., begitxu, hemen, 20.000, 20.000 pta. ipintxen dau. Liburuen be, 20.000 dator.
- Mari Paz** Lagunduidezu topetan... Hementxe egonbidau...
- Merzedes** Ene...! Ezin baina..., Bilbora junbiot... Autobuse hartu biot eta...
- Mari Paz** Itxaizu baina... Topau einbiau...! Hementxe egon bidau... Derrigor...
- Merzedes** Ezin dot baina..., autobuse galtzen ba dot...
- Mari Paz** Itxaizu neska! Momentu bat baino ez da...! Hementxe egon bidau eta...

- Merzedes** Hartu pezetie eta kitto! Neuk ipinikot...! Pezeta bat gorabehera...
- Mari Paz** Ez! Hori ez da kontue! Pezetie izen bierrien miloie izan balitz zer...? Topau ein bida!
- Merzedes** Autobuse galtzen badot ba...
(Juanita dator).
- Juanita** Zu, badakit itxitxe dauela baina..., esangostezue mesedes zelan funtzionetan daben dirue atateko makiniek...?
- Mari Paz** Esplikauxozu...
- Merzedes** Oin hau...! Autobuse galtzen badot ba...
(Honetan daudela, lapurrak sartzen dira, «atrakoa» dela esanez. Baina, Merzedesek, ezkutuko turrina jotzea lortzen du, poliziaren tinbre sekretua. Tinbre hau jotzerakoan, bankuko eszena «konjelatu» egingo da, geldi geratuko dira denak. Orduan, eszenatokiaren eskuineko aldean, Komisaldegian, Pepe eta Enrike, daude. Poliziak).
(Enrike, lasai, hanka zabalik. Pepe dator).
- Pepe** Enrike, polizia nahi dot izan...
- Enrike** Eta niri zer...?
- Pepe** Ba..., erakutsi ein bikostezule...
- Enrike** Eztauket astirik...
- Pepe** Kapitanak esauste...
- Enrike** Ta zer...?
- Pepe** Kapitana neure aitxe da gero...
- Enrike** A! Zure aitxe...! Bai, bai, bai..., eztotsut erakutsiko ba...? Aterakot asti apurtxo bat... Ia..., pultsuen ein dozu iñoz...?

- Pepe** Ez ba...
(*Pultsoan egin eta Enrikek berehala irabazten dio*).
- Enrike** Beno..., saltotxu batzuk be ein bikotxugu ba...
(*Saltoak egin eta Pepe lurrera*).
- Enrike** Pistolarik erabiliozu inoiz...?
- Pepe** Ez...
(*Pistolarekin hasi eta Pepe dardarka hasten da*).
- Enrike** Bueno, bueno..., ikesikozu, ikesikozu... A! Aringa-arin-
ga pizkat eingou...
(*Hasten dira korrika eta Pepe lurrera, lehen buelta eman baino lehen. Honetan daudela, «Aberats Banku»ko alarma espeziala entzungo dute*).
- Pepe** Zer da hori...?
- Enrike** Zera izengo da! «Aberats Banku»ko alarma espeziala!
Lapurretan dao...! Goazen! Goazen arin!!
- (*Une honetan, ezkerreko eszenak berriz indarra hartzen du, lehengoarekin jarraituz. Lapurrek alde egingo dute. Poliziak datoz. Alde egin dutela esango die Mari Pazek eta Mercedesek. Lurretik jaiki eta ondo daudela begira daudenean berriz lapurrak sartu eta berriro osten hasiko dira, baina polizia etorri eta urezko pistolarekin, lokarturik utziko dituzte. Ondoren, esposatu eta eramán egingo dituzte. Juanita, hanka hautsita Mari Pazek eta Mercedesek lagundurik aterako dute*).

III. AGERRALDIA

(*Potito eta Potato, poliziekin, kartzelara bidean*).

- Potato** Noz emongostezuz karameluek?
- Potito** Hurrengo baten izen bikodau... Oingoiz, lo eñ... Hori bai, horretarako nahi beste denbora eukikozu eta...

(Enrique eta Pepe, eurekin doazelarik).

Pepe Ikusiozuz zelan lokartu dien...

Enrike Zer botautsezue...

Pepe Ure. Ure eta aitxek lo eitzeko hartzen dituen pastilak bertan urtute... Honek kartzelan sartu eta eingou pul-tsuen...?

Enrike Eztakit ba... Astirik badau edo...

(Hauek alde eta Juanita «sartzen» da bere etxera. Berehala, Miren, ate joka. Juanitak atea ireki eta...).
(Ate hotsa).

Juanita Bai, ointxe noie... Ointxe noi...! *(Atea ireki)* Zertara zatoz hona? Lehenengo «pikuta» juteko, gero lapurretan ein eta oin hona...?

Miren Ointxe soltau nabe eta eztakit nora jun... Biherrik bau-kezu niretzako...?

Juanita Ez, ez, ez..., eztot inor biher... Lehen alde ein zendun eta oin be horixe, alde, alde hemendik...!

Miren Bai, baina alde neban dirurik pagetan ez zeunstelako...

Juanita Hara! Oin neuk eukikot kulpie! Oin neure kulpie izengo da banku atrakatiana be... Je!

Miren Ez, ez, ez... Baina diruik ez neukelako ein neban... Egixe dinotsut. Egi santue...
(Juanita pentsetan).

Miren Gainera, horraz hankiorraz baten bat bikozu...

Juanita Nik ezin dotsut asko pagau e...

Miren Bueno, jaten emon eta ohie eta asteburutan zeozer emoten bostezu...

- Juanita** Eztostezu lapurretan ingo ezta?
- Miren** Toketan jatena emoten bostezu ez. Zetako ostukotsut ba...? Nik lehen be, derrigorra neukelako eñ neba...
- Juanita** Beno ba, beno ba... Semiai eskatukotset harek bizitzeko baino gehixau dauke eta..., eta ia konpontzen garin...
(Alde egingo dute).
- (Mari Paz eta Mercedes, berriz bankoan, pezetaren bila).*
- Mari Paz** Nun ete dau pezetie...?
- M eta M** Hemen dau!!
- Mari Paz** Halako baten be... Jun zeinke Bilbora...
- Mercedes** Bai, oin... Hiru ordu die autobusek alde dabela eta... Neuk neuken premiñiaz...
(Alde egingo dute).
- (Potito eta Potato, etxean. Lotan. Orain, Potito lotan eta Potato esna, ametsetan).*
- Potato** Potito! Potito!
- Potito** Zer...?
- Potato** Bankuanak ondo urten balau, benetan egongo ginen beti-beti lotan eta karameluek jaten...?
- Potito** Eizu lo...
- (Bukatu da. Musika eta berriz ere, haseran bezala bakoi-tzak bere «hamarreko» sekuentzia errepikatuz, jendeari begira geratuko dira, agurtzeko).*

**AXERIA ETA OTSOA,
LAGUN EDERRAK!!**

C. Suqué (M. D. Akizuk itzuli-egokitua)
Kurtzebarri herri ikastetxea
Aretxabaleta 1988

APAINGARRIAK ETA JOKU ESKENIKOA

Hiru apaingarri edo dekoratu beharko dira, obraren zati bakoitzera-ko bat.

Lehenengo agerraldia: Uztak.

Dekoratu honetan landutako mendixkak agertuko dira. Erdi inguruan ereindako lur zati bat eskenatokiaren gehiengoa estaltzen duelarik. Uzta bakoitza adierazteko kartoizko tirak egin ditzakezue. Hiru edo lau patatekin, beste hiru edo lau azekin eta beste hainbeste gariarekin. Guzti hau atera ahal izango da. Landareak, margo-
tutako kartoi zatiak izan daitezke. Lurrean etzanda egongo dira, dagokionean altxatzeko eran.

Bigarren agerraldia: Ezti ontzia.

Dekoratu hau zelai eta basoekin hornituta egongo da. Urrutian, kanpandorrea ikusiko zaion herrixka bat azalduko da. Alde batera, zabaldu eta itxi litekeen atea duen txabola bat.

Hirugarren agerraldia: Gazta.

Dekoratu honetan baso eta mendiak agertuko dira. Mendiak perspektiba haundia izan behar dute, enbala-tzeko papelaz edo eginda eta eserita dauden aktoreak baino altuagoak izango direnak. Mendiak atzetik listoiez eutsi daitezke, edo eta goitik nilonezko hariz zintzilikatu, edo eta eskilera batean jarri. Mugitzen den foku batek mendiak argituko ditu aurrerago ikusiko du-zuen bezala, eguzkiaren irteera adierazi nahian.

Musika: Musikak jokatzeko duen papera oso garrantzitsua da. Axeria eta Otsoa eskenatokitik ateratzen diren bakoitzean berriro ere berehala sartzeko. Musika etenalditxo honekin denbora pasatzen ari dela adierazteko entzun beharko da.

PERTSONAIAK ETA JANTZIAK

Otsoa: Nahiz eta itxuraz indartsu eta zeinu gogorrekoa izan, leloa eta ergela da eta beti engainatzen uzten da.

Axeria: Arina eta bizkorra da, dena daki eta bere maltzurkeriarekin Otsoa engainatzen du.

Txakurra: Gutxi gora behera Otsoa bezalakoa, nahiz eta lasaiagoa eta alferragoa izan. Oso ona da, eta Axeria gehiegikeriak egiten hasten denean, Otsoaren alde jartzen da.

Zapoak: Apalak eta konformistak. Lau hankatan ibiltzen dira, saltoka, egiazko zapoak bezala.

Eperrak: Beti lerroan doaz, makurtuta ibiliz. Eper ama da bere gisara mugitzen den bakarra. Alabek bere mugimendu guztiak imitatzen dituzte. Eper ama alabak baino handiagoa izatea beharrezkoa da.

Untxiak: Alaiak, beti saltoka dabilta eta elkarrekin jolasten. Erori eta zutitu erreztasunez egiten dute.

I. AGERRALDIA: UZTAK

(Musika. Axeria eta Otsoa sartzen dira).

- Axeria** (Hitzak narraztatuz) Kaixo adiskideee!
- Otsoa** (Lehor) Kaixo!
- Axeria** (Sarkin) Bada gauza bat aspalditik buruan dudana.
- Otsoa** A bai? Zer da ba?
- Axeria** Zuk eta nik elkarte bat osatu behar genukeela.
- Otsoa** (Izutuz) Zuk eta nik el-kar-te bat?
- Axeria** Bai horixe diot! Elkartea, elkartea...
- Otsoa** Ai! Ez dakit... zu oso maltzurra zara. Eta... zer egingo genuke?
- Axeria** Ba, zelai hori alokatuko genuke (*seinalatzen du*) hiru uztaldietarako, elkarrekin landuko genuke eta irabaziak bion artean banatuko genituzke.
- Otsoa** (Mesfidantzaz) Eta... ez al zenidake tranparik egingo?
- Axeria** Noski ezetz!! Ea, tratu bat egin dezagun: bion artean landu eta uzta erdibana egingo dugu, eta gainera zeuk aukeratuko duzu lehenengo. Ados?
- Otsoa** Nik nahi dudana hartu? Beno, ...hala bada... eta zer ereingo dugu.
- Axeria** Lehenengo uztarako pentsatua daukat; patatak.
- Otsoa** Patatak? Ze nazka. Neri ez zaizkit gustatzen.
- Axeria** Neri ere ez. Baina saldu egingo ditugu eta ateratako diruarekin nahi dugun guztia erosi ahal izango dugu.
- Otsoa** Ongi... Ados!
- Axeria** Joan gaitezen bada hazia eroatera.

(Musika. Otsoa eta Axeria joan egiten dira. Saski batekin etortzen dira berehala eta patatak ereiten hasten dira).

Axeria

Ereinda ditugu. Orain ureztatu behar ditugu. Zuk eman ura; nik zainduko dut eta itxi behar duzunean dei egingo dizut.

(Otsoa izkina batera joaten da eta ataska bat irekitzen duelakoa egiten du. Axeriak, hankak zabalduz, lurrera begiratzen du, eta une bat pasatzen denean, besoa altxatzen du).

Axeria

Nahiko, haniko!! Orain hazi arte itxaron egin beharko dugu.

(Otsoak ataska isten duela egiten du. Musika. Otsoa eta Axeria gelarantz begira eseritzen dira eskuak gurutzatuz itxaroten).

Axeria

(Pozik) Hazi dira!! Hazi dira!!

Otsoa

Iupiii, iupiii!!! Hazi dira!!

(Musika gelditzen da. Zutik jartzen dituzte patata landareak).

Axeria

Ikusi al duzu zein hosto politak?

Otsoa

(Eskuak igurtziz) Ze uzta ederra izango dugun!

Axeria

Zuk zer nahi duzu, hostoak ala zainak?

(Hiru edo lau apok eskena gurutzatzen dute. Une horretan Otsoak jasaten duen tranpaz ongi jabetuz).

Otsoa

(Mesfidantzaz) Horrela egiten al da hau?

Axeria

Noski baietz! Horrela gelditu ginen, zu izango zinela lehenengo aukeratuko zenuena.

Otsoa

(Pentsakor) Mmm... Nik hostoak nahi ditut *(gustora begiratzuz).*

- Axeria** Oso ongi!! Goazen gurdien bila.
- (Musika. Bakoitza bere aldetik doa, eta gurdi bana dakarte. Axeria hostoak kentzen hasten da eta Otsoaren gurdian jartzen eta Otsoak geldi-geldi begiratzen dio estatua bat izango balitz bezala, gero patatak hartu eta bere gurdira, Axeriarena, botatzen hasten da).*
- Axeria** Ikusten duzu? Banaketa zuzena!! Zuk hostoak, nik zainak, zuk hostoak, nik zainak, zuk hostoak, nik zainak... Tratuak tratu dira.
- Otsoa** *(Azkenean erreakzionatuz eta Axeriaren gurdia seinalatu- tuz)* Eh!! hauek patatak dira!!
- Axeria** Noski!! Banaketa zuzena, zuk hostoak, nik zainak...
- (Axeriak bere gurdia hartu eta ateratzen da. Otsoa, aurpegi luze xamarraz, berea hartu eta mormoxetan eta haserre ateratzen da).*
- Otsoa** Zoro bat naiz. Zer egin behar dut nik honekin?
- (Musika. Berriro ere Otsoa eta Axeria sartzen dira).*
- Otsoa** *(Lehor)* Kaixo!
- Axeria** Bigarren uzta prestatuko dugu? Ea, goazen ereitera!
- Otsoa** *(Berekiko)* Orain begiratu ondo Otso! Ez utzi berriro ziria sartzen! *(Axeriari)* Zer ereingo dugu orain?
- Axeria** Nik azak jarriko nituzke. Uztak aldatu egin behar dira.
- Otsoa** *(Berekiko)* Oraingoan erne!! *(Axeriari)* Ongi.
- Axeria** Goazen landareen bila.
- (Musika. Alde egiten dute, eta saskiekin bueltatzen dira. Bata zelaiaren alde batetik eta bestea bestetik azak landatzen hasten dira).*

- Axeria** Orain nik askatuko dut ura, ongi iruditzen bazaizu behintzat.
- (Otsoa, lehen Axeria jarri den bezala jartzen da. Denbora bat barru Nahiko!! Nahiko!! esaten du besoa altxatuz. Axeriak ura isten du eta lehen bezala eseri egiten dira).*
- Axeria** *(Zelaia seinalatuz)* Hazten hasi dira!
- (Musika. Biek aza erreskadak zutik jartzen dituzte).*
- Otsoa** Zein sendoak dauden hostoak! *(Berarekiko)* Baina oraingoan ez didak adarrik joko.
- (Txakurra sartzen da, eta disimuluz begiratzen du tartean sartu gabe).*
- Axeria** Orain hartu baino lehen, banatu egingo ditugu. Zuk zer nahi duzu, hostoak ala zainak?
- Otsoa** *(Segurtasunez eta irriparrez)* Nik? Zainak nahi ditut.
- Axeria** *(Etsipenez)* Ados, nahi duzun bezela... Goazen gurdien bila.. eta uzta biltzera.
- (Musika. Irten eta gurdiekin sartzen dira. Axeriak azak ateratzen ditu, bere gurdian jarri eta zainak Otsoarenean utziz, honek lelo aurpegia jartzen duen bitartean).*
- Axeria** *(Faltsuki)* Ikusten duzu?... Banaketa zuzena. Zuk zainak eta nik hostoak... Agur!! Azokara noa, nere uzta saltzera. *(Gurdia hartu eta kanporantz doa).*
- Otsoa** Eta nik zer egin behar dut honekin? Zertarako balio du?
- Axeria** Botatzeko. Ja, ja, ja. *(barrezka ateratzen da).*
- Otsoa** Merezia daukat! Ulertzen ez dudan gauzetan sartzeagatik.
- (Musika. Gurdia eskenatokitik kanpo utzi eta berriro sartzen da. Pentsakor dago. Txakurra hurbiltzen zaio. Adiskidetasunez).*

- Txakurra** Zer duzu adizkide? (*Bizkarrean eskua jarriz*).
- Otsoa** Ez dakidala ezer ortuko gauzez. Nik ardiei buruz... hori bai, baina hauetaz (*ortua seinalatuz*) ezer ez. Ni basoan bizi naiz eta.
- Txakurra** Noski, noski! Axeria berriz, zelai eta ortuetara hurbiltzen da eta nekazaritzaz badaki. Baina tranpa egin dizu. Uztak ez dira horrela banatzen!
- Otsoa** Aaa, ez?
- Txakurra** Ez, ez. Hirugarren uzta gertatu behar duzuenean neuk aholkatuko zaitut. Lagunduko dizut.
- (*Agurtuz biak irteten dira. Musika. Berrito Otsoa eta Axeria sartzen dira*).
- Axeria** Goazen hirugarren uztarekin. Pentsatu dut zer egingo dugun.
- Otsoa** Zer?
- Axeria** Garia.
- Otsoa** Oso ongi. Garia ereingo dugu.
- (*Musika. Alde egiten dute eta saskiekin etortzen dira eta garia ereiten dute, gero urrunduz zelaia begiratzen dute*).
- Otsoa** E, zu Txakur! Laguna! Zatoz! Zurekin hitz egin nahi nuke.
- Txakurra** (*Sartuz*) Ea ba, esan...
- Otsoa** Badakizu Axeriak bi bider tranpa egin didala ezta?
- Txakurra** Bai, bai. Hala da.
- Otsoa** Orain uzta honetarako garia erein dugu. Negozioa ongi ateratzea nahi nuke. Zer egingo zenuke zuk?

- Txakurra** *(Pentsatuz)* Ba... begira. Garia heldu arte itxaron ezazu. Orduan garia hartu eta eultziko duzue alea ateratzeko. Zuk, esaiozu dena eginda egon arte ez duzula ezer jakin nahi.
- Otsoa** Oso ongi... Baina zerbait prestatua izango duela pentsatzen dut.
- Txakurra** Noski!! Oso maltzurra da ta... Gauza oso garbi ikusten ez baduzu dei nazazu. *(Kanpora begiraten du)* Hurbiltzen ari da. Banoa! Ez da komenigarria elkarrekin ikusi gaitzan.
- (Txakurra joan eta Axeria sartzen da. Musika. Otsoa eta Axeria zelairantz doaz eta galburu errenkadetan sartzen dira. Musika, ixiltzen da. Pozik daude).*
- Axeria** Heldu da. Orain banatzera. Zuk zer nahi duzu? Zurtoina ala...
- Otsoa** *(Ixildu araziz)* Ez dut nahi ez zurtoinik, ez zainik. Garia eultzi ondoren banatuko dugu.
- Axeria** *(Ikaratuz berarekiko dio)* Oh!! Zer da hau? *(Abots biziz)* ONGI!!!... Nekazaritzaz ikasten ari zarela esango nuke. Hori ona da. Bai, bai, ...ados. Orain biltzera!!
- (Musika. Biak atera eta bakoitza igitai batekin bueltatzen dira). (Igitaitu eta lurrean uzten dute pilotxoetan).*
- Axeria** Entzun, gauza bat bururatu zait. Zu hain korrikalari ona zarenez... zergatik ez dugu apostu bat egiten?
- (Txakurra sartzen da. Izkina batetik diximuluz entzuten du).*
- Otsoa** Zer esan nahi duzu?
- Axeria** Zuk eta nik karrera bat egin genezakeela pentsatu dut. Uzta sei partetan banatuko dugu, horrela irabazleak bost parte eramango ditu eta galtzaileak bat bakarrik. Zer deritzozu?

- Otsoa** Mmm... Ez zait gustatzen. Ez zait ezer gustatzen. Ez... Ez...
- Axeria** *(Sarkin)* Galtzea espero duzu, ala? Hain korrikalari ona izanik ez zara ausartzen?
- (Otsoak diximuloz Txakurrari begiratzen dio. Honek tratua onartzeko keinua egiten diolarik).*
- Otsoa** Beno, beno... ongi da. Karrera batera jokatuko dugu.
- Axeria** Eguzkiak garia lehortu arte itxarongo dugu. Ikusi arte. *(Irteten da).*
- Otsoa** *(Txakurrari)* Zerbait pentsatzen ari da...
- Txakurra** Noski baietz. Baina neuk ere zeuek hitzegiten ari zireten bitartean zerbait pentsatu dut, eta apustu bat egin behar duzue irabaziko duzula ziur egon behar duzu. Laguntza eskatu beharko dugu. *(Otsoari belarrira hitzegiten dio)* Apoak denak berdinak dira, eta denak ahots berdina dute. *(Farrez).*
- Otsoa** *(Hau ere irriparez)* Arrazoia duzu Txakur! Bat ikusten duzunean denak ikusiak dituzu. Denek berdinak dirudite. *(Serio)* Orain lagunduko gaituzten jakin behar dugu.
- Txakurra** Axeriak nola egin dizun tranpa bi aldiz esan diet eta denak zure alde jarri dira. *(Oihu egiten du)* E! Apoak, lagunok!!
(Lau edo bost apo sartzen dira).
- Txakurra** Lagundu nahi diguzue?
- 1. apoa** Zertan?
- Txakurra** Oraintxe esango dizuet. Entzun.
- (Apoengana hurbiltzen da, denek elkarrekin Otsoa barne-delarik, bizkarrez heltzen dira buruak elkaturik Txakurrari entzuten. Marmarra entzun behar da. Farrez urruntzen dira pozik).*

- 2. apoa** Horixe gustatuko zaigula!! (*farrez*).
- 1. apoa** (*Beste apoei*) Orain zoazte eta nik deitu arte ez etorri Axeriak ikusi ez gaitzan.
- (*Apoak ateratzen dira, 1. Apoa izan ezik. Argi izpi batek garia argitzen du sei edo zazpi bider, pasatzen doazen egunak bailiran. Axeria sartzen da*).
- Axeria** Kaixo adiskide!! Eguzkiak garia lehortu du. Eultzi dezakegu.
- (*Musika. Axeria eta Otsoa irten eta gurdiekin sartzen dira. Bertan garia kargatu eta eraman egiten dute. 1. Apoa sartzen da ezker-eskuin begiratzuz eta honela oihukatzen du*).
- 1. apoa** Zatozte apoak!! Etorri guztiok! (*Beste apoak sartu eta inguratzen dute*) Orain zeuen tokietara!!
- Apo guztiak** Bai, bai.
- (*Apoak butaka artera jaisten dira, eta gelan zehar banatzen dira, jende artean ezkutatzuz, pasiloak jarraituz. Axeria eta Otsoa sartzen dira, gurdiak guztiz beteta dituztelarik. Bakoitzak berea deskargatzen du: hiruna zaku*).
- Axeria** Ikusten? Sei zaku bildu dugu. Lehenak bost hartuko ditu eta besteak bat. Ados?
- Otsoa** Ados. (*Nekatuta dagoen itxura eginaz eskua bekokitik pasatzen du*). Nahiz eta... Oso nekatuta nago eta korrika egiteko gogo gehiegirik ez dudanez... atzera egiten dudala esan ez dezazun, zera proposatzen dizut: Nerekin korrika egin ordez, nere lagun Apoarekin egin dezazun.
- (*Axeriak ezer ez duela ulertzen adierazten du aurpegiarekin. Harriduraz adierazten du eta meziprezuz begiratzuz dio Apoari*).
- Axeria** (*Berekiko*) Apo bat? (*Farre egiten du*) Saltotxoak besterik ez dituzte ematen eta... (*Otsoari*) Jakina ados nagoela. (*Jendeari*) Dagoeneko, bost zakuren jabe naiz.

- Otsoa** Nik emango dizuet irteera. Bai?
(*Apoa eta Axeria bata bestearen ondoan jartzen dira*).
- Otsoa** (*Besoa altxatuz*) Prest zaudete...? Bat..., bi..., hiru. Orain!
(*Axeriak karrera hartzen du eta jende artean zehar doa. 1. Apoak jarraitzen duen keinua egiten du baina ez da eskenatokitik mugitzen. Apoak eta Otsoak elkarri begiratzten diote irrifartsu. Zaku bat hartu eta beste bosten gainean eseritzen dira*).
- Axeria** (*Bueltatu gabe, eta antzerki gela zeharkatuz*) Ba al zatoz korrika, Apo?
- 2. apoa** (*Ezkatatu den tokitik*) Jarraitzen ari natzaizu, baina nekatu egiten naiz.
- Axeria** (*Pixka bat aurrerago*) Zer, oraindik korrika Apo?
- 3. apoa** (*Besteak bezala*) Jarraitzen ari natzaizu, baina... haizea falta balitzait bezala sentitzen dut.
- Axeria** (*Berekiko korrika egiteari utzi gabe*) Ezin dut gehiago! Bost zakuak neretzako izango dira. (*Aurrerago*) Zer, oraindik korrika?
- 4. apoa** (*Bere tokitik*) Bai oraindik hemen naukazu...
(*Axeria dagoeneko eskenatoki parean dago. Momentu batez gelditzen da eta atzera begiratzten du. Ez du Aporik ikusten*).
- Axeria** Non zaude? Ez zaitut ikusten!!
- 1. apoa** (*Eskenatokitik*) Hemen nago. Irabazi dut!!
(*Axeria eskenatokira igotzen da. Otsoa eta 1. Apoa aurkitzen ditu bost zakuen gainean eseririk*).
- 1. apoa** Denbora bat bada heldu naizela!! Zakuak ere banatu ditugu.

- Otsoa** *(Altxatuz)* Nere partea saltzera noa!!
- (Axeria buru makur gelditzen da, berarentzako gelditu den zakuari begiratuz. Otsoa, Txakurra eta Apoak, Otsoaren gurdian zakuak kargatu dituzte eta pozik ateratzen dira).*
- Txakurrak** *(Irten baino lehen, izkina batetik jendeari)* Garbi jokutzen ez duenak, gehienetan erantzuna aurkitzen du.

II. AGERRALDIA: EZTI ONTZIA

(Eper ama sartzen da bere umeez jarraiturik, eskenatokitik bira bat eman eta lerroan jartzen dira baztertxo batean. Geroago Otsoa eta Axeria sartzen dira).

- Axeria** Kaixo Otso, zer moduz bizi zara?
- Otsoa** Oso ondo, eta zu?
- Axeria** Orain ongi, udaran gaudelako, baina gero negua etorriko da eta horrek... arduratu egiten nau. *(Pentsati gelditzen da).*
- Otsoa** Ni ere bai. *(Pentsati gelditzen da).*
- Axeria** Udan erraxa da bizitzen. Baina... neguan gizonen euren hesi eta etxeak isten dituzte, arratoiak ez dira euren gordelekuetatik irteten eta erleek ezta gorde egiten dute eta...
- Otsoa** Bai neska. Nik ere berdin pentsatzen dut.
- Axeria** Gu biok tratu bat egin beharko genuke.
- Otsoa** *(Mesfidantzaz)* Tratu bat?
- Axeria** Buruan daukadana jakingo bazenu, ados egongo zinatekeela ziur nago. Entzun: ontzi bat ezti erosiko dugu, orain ugari dagoenez merketxoago ere bai. Ondo gordeko dugu eta negua heltzerakoan jan egingo dugu. Zer deritzozu?

Otsoa Hotzak bati gosea irekitzen dionean eta ezer jatekorik ez duenean, ...ongi da. (*Pozik muturra miazkatzen du*) Bai, bai. Oso ondo (*Bapatean*) Eta ez didazu tranparik egingo?

Axeria Buenooo!! Ezta pentsatu ere ez. Gainera zu, ni bezain azkarra zara. Orain ez zaitez geldoarena egiten hasi, eh?

Otsoa (*Berekiko, harrokeriaz barre eginaz*) Berak beste maltzurkeriez badakit. (*Axeriari*) Goazen berehala ezti eroatera.

Axeria Goazen... Gainera nik badakit non emango diguten ezti merkea.

(*Irteten dira. Handik pixka batera itzultzen dira ezti ontzi haundi batez. Bion artean dakarte eta pixu haundia duen itxuraz. Eperrek eskenatokitik bira bat emanaz, zera diote...*).

Eper ama Inoiz eskarmentatzen ez direnak ere badaude mundu honetan. Ai Otso, Otso, geldoegia zara hain maltzurra den lagun batentzako.

(*Eperkume guziek pozez saltatzen dute bere ama zein azkarra den ikusirik. Otsoa eta Axeria sartzen dira*).

Otsoa Non gordeko dugu ezti?

Axeria Txabola barruan (*seinalatzen du*) Eta giltzaz itxiko dugu.

Otsoa A! Eta nork gordeko du giltza?

Axeria Zeuk, noski! Zeuk.

Otsoa Horrela bada, ados!

(*Eztia txabola barruan gordetzen dute. Otsoak atea itxi eta giltza gordetzen du. Irtetzen dira. Eperrak beste aldera pasatzen dira*).

Eper ama (*Pentsatuz*) Zer ote du buruan Axeriak?

(*Otsoa eta Axeria sartzen dira eta aulkian eseri*).

- Axeria** Oraindik uda hasi besterik ez da egin.
- Otsoa** Bai egia da.
(Axeriak belarriak erne jartzen ditu. Otsoak ere berdin egiten duelarik).
- Axeria** Ez duzu ezer entzun?
- Otsoa** Ez.
- Axeria** Gaur belarria gaizki duzulako izango da. *(Entzuteko keinua egiten du).* Ez duzu kanpai hotsik entzuten? Bataiora deitzen dute. Neure lagun batzuren umearen amapon-tekoa izan behar dut.
- Otsoa** *(Geldo aurpegia jarriz)* Niz ez dut ezer entzuten!
(Eperrek barre egiten dute. Axeria altxatu eta zerura begira jartzen da. Otsoak berdin egiten du eta bitartean Axeriak poltxikotik giltza kentzen dio).
- Axeria** Eta han goian ez duzu artizar bat ikusten?
- Otsoa** Ez.
- Axeria** Ba erdi itsu zaude. Eta orain banoa, behar naute eta.
(Korrika irteten da. Otsoa zerura begira beste momentu bat egon ondoren eseri egiten da. Nohiz-behinka gorantz begiratzen du kezkatu. Axeria atzetik agertzen da, hanka puntetan ibiliz eta txabolan sartzen da).
- Eper ama** *(Axeria seinalatuz)* Orain ulertzen dut...!
- Txakurra** *(Sartuz)* Zer egiten duzu hemen hain bakarti? Non dago zure lagun Axeria?
- Otsoa** Bataiora joan da.
- Txakurra** A!

(Axeria txabolatik irteten da, Txakurra ikusi eta ezpainetan atzamarra jartzen du ixildu dadin adieraziz, Txakurra irteten da. Axeria atera eta aurretik sartzen da).

Axeria Itzuli naiz bataiotik.

Otsoa A! Eta zer moduz?

Axeria Primeran! *(Muturra miazkatzen du eta eskuak igurtzi).*

Otsoa Eta zer izan da? Axeritxo arra ala emea?

Axeria Axeritxo emea.

Otsoa Eta zein izen jarri diozue?

(Axeriak esku bat bestea baino gorago jartzen du, zapal-zapal eta urrunduta, distantzia handiz. Gero goikoa pixka bat jaisten du).

Axeria Hasera.

Otsoa Hasera? Ja, ja, ja. Izen horrek barregura ematen dit.

Eper ama Barre egin dezakezu bai! *(Axeriak egindako keinua egiten du).*

Axeria *(Ahotsa aldatuz)* Eta... oraindik artizarra ikusi gabe?

Otsoa *(Gorantz geldoki begiratzuz)* Bai.

(Axeriak giltza poltxikoan sartzeko aprobeztatzen du).

Axeria Ziur itzaldu egin dela.

(Elkar agurtzen dute eta bakoitza bere aldetik irteten da).

Eper ama *(Eskenatokia bere alabekin gurutzatuz)* Ez dakit zergatik baina hau, lehenengo zatia izan dela iruditzen zait.

(Berriro ere Axeria eta Otsoa sartzen dira eta eseri).

- Axeria** Ez zaizu iruditzen bero gehiegi egiten duela? (*bekokia lehortzen du*).
- Otsoa** Uda bizi-bizian gaude eta.
- Axeria** Bai, hala da. (*Bueltatuz txabola begiratu eta muturra miazkatzen du*) Badakizu? Beste axeritxo bat jaio da. Nere ahizpa baten alaba da. (*Harri bat botatzen du lurrera*) Ai!!
- Otsoa** Zer gertatzen zaizu?
- Axeria** Erastuna erori zait. (*Lurrean bilatzen ari den itxura egiten du*).
- Otsoa** Erastuna?
- (*Biak lau oinetan jartzen dira. Axeriak, berriro ere Otsoari giltza kentzen dio momentu hau aprobetxatuz*).
- Axeria** (*Belarriak erne jarriz*) Entzun duzu?
- Otsoa** Zer?
- Axeria** (*Altxatuz*) Kanpaiak. Bataiora deitzen naute, korrika noa. Gero arte. (*Korrika irteten da*).
- Eper ama** (*Gerrian eskuak jartzen dituelarik*) Berriro!!
- (*Otsoak lurrean erastun bila jarraitzen du. Axeria atzetik sartzen da berriro ere txabolara, aurrekoan bezela*).
- Txakurra** (*Sartuz*) Kaixo lagun Otso!
- Otsoa** (*Bilatzen jarraituz*) Kaixo!!
- Txakurra** Zer egiten duzu lurrean?
- Otsoa** Axeriaren erastunaren bila nabil.
- Txakurra** Eta ez duzu aurkitzen.
- Otsoa** Ez.

- Txakurra** *(Sarkin)* Ziur zaude Axeriak eraztuna galdu duela?
- Otsoa** Neronek entzun dut nola erortzen zitzaion!
- Txakurra** Aizu, Noizbait behar banauzu, zure ondoan naukazu.
- Eper ama** Beno!! Eskerrak!
- (Axeria txabolatik irteten da, muturra miazkatuz. Txakurra ikusten duenean, sudurra altxatu, kontuz kontuz ibili eta irten egiten da. Aurretik itzultzen da. Txakurra aldendu egiten da).*
- Axeria** Oraingoan bai ondo pasa dugula. Txikitxo urtxintxa bat bezelakoa zen, belarri beltz-beltz batekin.
- Otsoa** Eta zein izen jarri diozue?
- (Axeriak lehen egin duen joku berbera egiten du, baina ediraino jaisten du).*
- Axeria** Erdia!
- Eper ama** Erdia? Bai azkar egiten dituela gauzak! Nolako urdaila duen!!
- Otsoa** Ja, ja, ja. Zein izen arraroak!!
- Txakurra** *(Berekiko)* Izen honek susmo txarra ematen dit. *(Burua mugitzen du).*
- Otsoa** *(Penaz)* Ezin izan dut eraztuna aurkitu.
- (Eperrak beti adi daude. Axeria lau oinetan jartzen da Otsoaren ondoan, eta giltza poltxikoan sartzen dio. Otsoa altxatu egiten da eta bere eskua poltxikoan sartzen du).*
- Axeria** Zer gertatzen da?
- Otsoa** Giltza erori egin ote zitzaidan begiratzen nuen. *(Atera eta begiratzen du).*

- Eper ama** Ai, ai, eskerrak orain artean ez dela gogoratu!
- Otsoa** Eta eraztunarekin zer egingo dugu?
- Axeria** Ba, aurkitzen ez badugu, bueltaka ibairaino edo joango zen. (*Altxatzen da*) Zer egingo diogu ba! Beno agur. (*Irteten da*).
- (*Otsoa altxatu eta beste aldetik irteten da. Berehala itzultzen dira. Eperrak lekuz aldatzen dira*).
- Eper ama** Oraingoan hirugarrena!
- Otsoa** Laister eguraldi txarra helduko da.
- Axeria** Bai, uda amaitzen ari da. (*Txabola begiratu eta muturra miazkatzen du*). Badakizu nere anaiari beste alaba bat jaio zaiola?
- Otsoa** Ez, ez nekien.
- Axeria** Eta nik amapontekoa izan behar dut.
- Otsoa** A!
- (*Axeriak mendiko puntu batera adi-adi begiratzen du. Otsoak ikusi, eta jakinminez leku berera begiratzen jartzen da*).
- Otsoa** Zer gertatzen da han?
- Axeria** Ez zaizu iruditzen han urtxintxa dabilela adar bat hartu nahian?
- Otsoa** Ez dut ikusten.
- Axeria** Begira ezazu ongi.
- (*Otsoak ongi begiratzen du, eta Axeriak giltza kentzeko aprobeztatzen du*).
- Otsoa** Oraindik ez dut ikusten.

- Axeria** *(Belarriak erne jarriz)* Entzun...
- Otsoa** Zer gertatzen zaizu?
- Axeria** Bataiora deitzen nautela. Korrika noa.
- (Axeria irteten da. Otsoak adi-adi begiratzten jarraitzen du, Axeria txabolan berriro ere sartzen den bitartean. Txakurrak ikusi egiten du).*
- Txakurra** *(Otsoarengana hurbilduz)* Zer egiten duzu?
- Otsoa** Urtxintxa bat ikusi hahi dut.
- Txakurra** Axeriak esan dizu hori ere?
- Otsoa** Bai, nola asmatu duzu?
- Txakurra** Beste egun batean apostu bat egin behar baduzue, esai-
dazu.
- Eper ama** Bai, zeren hau dagoeneko ondo galdua dago!
- (Txakurra txabolara begiratzuz irteten da. Axeria atzetik ir-
ten eta aurretik sartzen da).*
- Axeria** Bataiatu dugu!
- Otsoa** Nor bataiatu duzue?
- Axeria** Nere anaiaren alaba.
- Otsoa** A bai! Eta zein izen jarri diozue?
- (Axeriak lehen bezela egiten du, baina eskuak guztiz elkar-
tuz).*
- Axeria** Bukaera.
- Otsoa** Baina zein izen xelebreak jartzen dizkiezuen!! ja, ja, ja...
- (Barrezka dagoen bitartean Axeriak giltza bueltatzen dio. Eperrek barre egiten dute).*

- Axeria** Eta oraindik ez al duzu urtxintxa ikusi?
- Otsoa** Ez.
- Axeria** Beno, nekatu egingo zen eta alde egingo zuen.
(Eperrek barre egiten dute. Haizearen zarata entzuten da).
- Otsoa** Ze haize altxatu den! Laister negua datorkigu.
- Axeria** Oraindik ez gizona! Oraindik ez.
(Irteten dira. Eperrak lekuz aldatzen dira. Axeria eta Otsoa itzultzen dira bufanda haundiez estalirik).
- Otsoa** *(Eskuak igurtziz)* Nolako hotza egiten duen!!
(Axeriak eskuak igurzten ditu. Bapatean disimulatzen du).
- Axeria** Ez hainbeste mutil! Ez hainbeste!
- Otsoa** Negua heldu da eta bada ezta jateko garaia.
- Axeria** Oraindik ez gizona, oraindik ez! Ez dago presarik oraindik!
- Otsoa** Bai, bai. Denboraldi latzak dira hauek.
- Eper ama** Zer gertatuko ote da orain?
(Eperrek bildur keinua egiten dute. Otsoak bere poltxikotik giltza atera eta atea irekitzen du baina Axeriak geldiarazten du).
- Axeria** Itxaron! Oraindik ez du elurrik ari eta aurten elurte handiak izango ditugula diote.
- Otsoa** Ba nik ezta jan nahi dut. Berdin zait elurra ari duen ala ez.

(Biak sartu, ontzia hartu eta lurrean uzten dute).

Otsoa Pentsa ezazu udan nolatan gogortu naizen orain pitxarra izpi bat balitz bezala jaso dut.

(Eperrek barre egiten dute. Otsoak ontzia irekitzen du. Biak barrura begiraten dute eta harridura keinuak egiten dituzte. Otsoa, Axeriarengana hurbiltzen da mehatxagarri. Eperrak eskuak burura eramaten dituzte).

Otsoa A! Lapurra! Zitala! Ezti guztia jan duzu.

Axeria Nik? Nik? Nik ez nuen giltzarik. Ez al dago garbi zein izan den lapurra?

(Otsoak eta Axeriak elkarri begiraten diote haserre. Bapatean).

Otsoa *(Harriturik)* Bai noski!... Bai... Nik nuen giltza...!

Eper ama *(Desilusionaturik)* O!!

Axeria Ikusten? Emango dizudan belarrondokoaz! *(jotzen saiatzen da).*

Otsoa Baina nik ez dut ezirik hartu! Zuk jan duzu!

Axeria Zu izan zara! *(Zaplateko bat ematen dio).*

Otsoa Zuk. *(Berak ere bueltatzen dio zaplada).*

Axeria Nor izan den jakiteko okerrik ez duen froga bat bada.

Otsoa Froga bat? Eta zein da froga hori?

Axeria Entzun. Zuk badakizu eguzkiak ezta urtu egiten duela. Biok eguzkitan etzango gara, hankaz gora, eta beroarekin, ezta jan duenari zilborretik isuriko zaio.

Otsoa Bale!

(Otsoa eta Axeria lurrean etzaten dira hankaz gora, alkan-dora altxatu eta eguzkia hartzen jartzen dira. Otsoak lo hartzen du, eta zurrungan hasten da. Axeria altxatzen da eta hanka puntetan ontzira hurbiltzen da, hondoa atzamarrez pasatzen du eta miazkatzen du).

Axeria

Zein goxoa dagoen!!

(Berriro ere ontziaren hondoa pasatzen du eta Otsoaren zilborrean igurtzitzen du. Berriro ere etzaten da eta lo balego bezela gelditzen da. Otsoa esnatu, nagiak ateratzen ditu, konturatu gabe eskua sabeletik pasatzen du, eta eztiz lardatzen da. Harriturik gelditzen da. Eperrek barre egiten dute, izugarrizko iskanbila sortuz).

Otsoa

(Eskua begiratzuz) Nola? (Lo dagoen Axeriari begiratzen dio) Agian ezta jan egin nuen eta ez naiz gogoratzen.

(Otsoa altxatzen da eta hanka puntetan alde agiten du. Axeria altxatu, barre egin eta irten egiten du. Otsoak burua ateratzen du).

Otsoa

(Lasaiago sartuz) Eskerrak ez dagoela!

Txakurra

Nor ez dago?

Otsoa

Axeria.

Txakurra

(Ontzi hutsa begiratzuz) Berriro ere tranpa egin dizu, eta hiru alditan. Hasera! Erdia! Bukaera!

Otsoa

(Muzin) Hasera, Erdia, Bukaera. Inoiz ere ez gehiago! Ez dut tratu gehiago egingo.

(Lurrean ostikada bat eman eta alde egiten du Txakurra-ekin batera).

Eper ama

(Jendeari) Baina ez kezkatu. Txakurra Otsoaren alde dago eta oraintxe ikusiko duzue nola aholkatuko duen.

(Eperkumeez jarraiturik irteten da).

III. AGERRALDIA: GAZTA

(Otsoa eta Axeria sartzen dira. Elkar agurtu eta lurrean eseritzen dira. Gazta handi bat bueltaka agertzen da. Axerriak seinalatzen du eta Otsoak salto batez hartzen du).

- Axeria** Gazta hau nerea da! Lehen erori zait!
- Otsoa** Ez da pentsatu ere! Zuk ez didazu tranpa gehiagorik egingo!
- (Txakurra izkina batetik sartzen da eta bestetik bi urtxintxa urrutitik begira eta entzuten daudenak).*
- Axeria** Nik ikusi dut lehenik!
- Otsoa** Baina nik daukat!
- Axeria eta Otsoa** *(Elkarrekin Txakurrari)* Zuk zer pentsatzen duzu?
- (Txakurrak pentsatu egiten du. Urtxintxek keinuak egiten dituzte kanpora eta beste batzuk sartzen dira zer gertatzen den ikusteko).*
- Txakurra** Batek lehenik ikusi du... eta besteak hartu...
- Axeria** *(Otsoari)* Eta tratu bat egingo bagenu?
- Otsoa** Ze tratu izango litzateke?
- Txakurra** Momentuz nik gordeko dut gazta. *(Hartzen du).*
- Axeria** *(Otsoari)* Egunsentia baino lehen biok hona etorriko gara, eseriko gara, eta eguzkia ateratzen ikusten duen lehenak jango du gazta.
- Otsoa eta Txakurra** *(Elkarrekin)* Ongi da!
- Otsoa** Egunsentirarte! *(Alde batetik irteten da).*
- Axeria** Bihar arte. *(Beste aldetik irteten da).*
- 1. urtxintxa** Eta guk zer egingo dugu?

- 2. urtxintxa** Gelditu egingo gara.
- 3. urtxintxa** Hau ez dut galdu behar!
(Txakurra ateratzen da. Urtxintxak lotara doaz salto batzuk egin ondoren. Iluntzen du).
- Otsoa** *(Sartuz eta Txakurrari urduri)* Esnatu lagun!!
- Txakurra** *(Esnatuz)* Nor da? A! zu zera! Itxaroten nengoen.
- Otsoa** Ezin izan dut gau osoan lorik egin Axeriaren maltzurkerian pentsatuz. Aholku bila natorkizu.
- Txakurra** Pentsatu dut zer egin behar duzun. Entzun.
(Txakurrak Otsoari belarrira hitz egiten dio eta mendixka txikia seinalatzen dio eta gero haundia. Urtxintxak, hitz egiten dute, altxatzen dira beldurrez gerturatuz. 1. Urtxintxa besteak baino gehiago hurbiltzen da).
- Otsoa** Bai, bai, arrazoia duzu! ...O! Eskerrik asko. *(Irtetzen da).*
- 2. urtxintxa** *(Hirugarrenari)* Zer esan dio?
- 1. urtxintxa** *(Tartean sartuz)* Nik entzun dut!
(Urtxintxa guztiek inguratzen dute eta berak adierazten die txakurrak egindako keinuak errepikatuz. Axeria eta Otsoa sartzen dira).
- Axeria** Egunon Otso!
- Otsoa** Egunon Axeri!
(Txakurrak gazta hartzen du. Otsoa eta Axeria mendixka txikiaren aurrez aurre eseritzen dira, honen atzetik argia ateratzen hasten delarik. Urtxintxak adi daude. Bapatean Otsoa bueltatu eta mendi handia begiratzen hasten da. Urtxintxak ere bai).
- Axeria** *(Mezprezuz)* Zein tontoa den. Noiztik ateratzen da eguzkia sartaldetik? ...Beti bezain asto!!

- *(Argi joku konzentratu bat pixkanaka pixkanaka altxatu egiten da eta mendixka txikia argituz; pertsonaiek hau pasa eta haundira heldu arte ezin dezakete ikusi. Momentu honetan Otsoa altxatu egiten da).*

Otsoa *(Garaile)* Eguzkia ikusten dut! Eguzkia ikusten dut! Han gailur hartan. Gazta nirea da. Irabazi dut. Irabazi dut.

(Urtxintxa guztiek pozik saltoka dabilta).

Txakurra Egia da. Bera izan da eguzkia lehenengo ikusi duena. Gazta berea da.

Axeria *(Lurra hankaz joz)* Begira zein maltzurra bihurtu zaigun.

(Urtxintxek eskenatokian pozik jarraitzen dute. Txakurrak Otsoari ematen dio gazta. Axeria haserre irten egiten da).

Txakurra *(Sententziaz)* Garbi jokatzeko ez duenak gehienetan erantzuna aurkitzen du. *(Eguzkia beterik dagoen mendia seinalatzen du)* Baina burutsua izan behar da, bai horixe! *(Bekokian kolpe bat emanez bere garaipenagatik pozik).*

(Otsoa eta Txakurra eskutik heldu eta dantzan hasten dira, pozik. MUSIKA alai baten soinuarekin. Axeriak burua ateratzen du eta ongi pentsatu ondoren, bera ere dantzan hasten da. Urtxintxak aparteko borobilean).

**EGIA BAZAN, SAR DADILA
KALABAZAN**

Jon Alonso
Kirikiño ikastola
Bilbo 1988

PERTSONAIAK

Politikariak	Mozkorra
Andereñoa	Atsoa
1. ikaslea	1. gaztea
Beste hiru ikasle	2. gaztea
Irakaslea (gizonezkoa)	3. gaztea
Bost ikasle (Rosita, Mari...)	4. gaztea
Ama	1. emakumea
Eneko	2. emakumea
Idoia	3. emakumea
Aita	Gizona (paseatzailea)
Gizona (liburu-saltzailea)	Marian
Emakumea (aldezkarri-saltzailea)	Punkya

I. ESZENA

(Off-eko ahotsa).

Zin egiten dugu guzti hau 1984eko egun batean hasi zela.
Zin egiten dugu hemen ikusiko duzuen guztia egia dela.
Zin egiten dugu egun hartan eguzkia irten zela; ez bada horrela, berdin zaigu hemen ez dugulako eguzkirik ikusiko.

Zin egiten dugu egun hartan denak zoratu zirela eta politikariak lanean hasi zirela.

Politikari guztiak lozorro luze batetik irtengo dira, lurrean etzanda daude, oso nekatuta egongo balira bezala, esnatzeko egongo balira.

Tiro bat entzuten da, kanpaina elektorala hasten da, denak berehala esnatu eta politiko bakoitza bere kartelaren bila joango da arineketan. Kartelek hau diote:

T.R.E.

Slogan zahar guztien aurka.
Aldaketaren alde.
Lanaren alde, pakearen alde.

A.P.T.

Zu salbatzera nator
munduko azken muturretik.
Zugatik lanean ari naiz.
Sinisten al didazu?

O.L.B.

Askatasunaren alde zaude?
Aurrerakuntzaren alde zaude?
Kulturaren alde zaude?
ZUREKIN GAUDE!!!

L.P.

Pausoka, pausoka aurrera.
Poliki, baina beti aurrera.
Denok batera, AURRERA!!

K.K.

Zu zara aukeratzen duzuna!
Zu zara agintzen duzuna, ez duzu uste?
Hori da guk nahi duguna!!

Denak batera oihuka euren sloganak esaten arituko dira Sabrina irten arte.

Propaganda eszenarioan eta jendeari botatzen, propaganda egiten, pertsona bakoitzaren botoa irabazi behar dute.

Zerbait saltzen egongo balira bezela egin behar dute oihu. Publikoak denbora eduki behar du kartel guztiak irakurtzeko. Publiko artera irten zaitezketen (Komenigarria da, katxondeorik ez badago).

*Neska-ahots goxo bat: Italiatik dator neska, Italiatik datoz munduko titirik ederrenak, Boys, boys, zuekin Sabrina!
(Boys abestia)*

Kortinen atzean streap-tease numerito baten itxurako zerbait egingo da.

(Politikari guztiak zoratuta bezala, Sabrinaz gozaten, ume txikiak bezala hurbiltzen joango dira kortinen ingurura, baina hauek tapatu barik.

Amaitutakoan argiak itzali eta denak irten eszenariorik.

Streap-teaseren ordeztu play-back antzera egin daiteke, politikariak atzean arrastaka dituela Sabrinak).

II. ESZENA: ESKOLAN

(Off-eko ahotsa).

Zin egiten dugu oraindik ez dakigula nork irabazi zituene urte hartako hauteskundeak.

Zin egiten dugu Real Madriderik urte hartako liga ez zuela irabazi.

Zin egiten dugu urte hartan euria hasi zela eta oraindik ari dela.

Zin egiten dugu mundu guztia zoratu eta gauza guztiak hankaz gora jarri zirela.

Zin egiten dugu langileak patroiarene eta ikasleak irakaslearen lagun egin zirela.

(Eskolan).

Lau ikasle eta andereñoa oso serio, ikasleen inguruan bueltaka egurrezko erregela bat eskuan duela poema bat errezitatuz.

Andereñoa

Una tarde parda y fría
de invierno. Los colegiales
estudian. Monotonía
de lluvia tras los cristales.
Es la clase. En un cartel
se representa a Caín
fugitivo, y muerto Abel
junto a una mancha de carmín.
Con timbre sonoro y hueco
trueno el maestro, un anciano
mal vestido, enjuto y seco
que lleva un libro en la mano.
Y todo un coro infantil
va cantando la lección:

- Ikasleak** Plus bider plus, plus; plus bider minus, minus; minus bider plus minus, minus bider minus, plus.
- 1. ikaslea** Andereño, nondik datoz umeak?
- Andereñoa** Espermak obuloa ernaltzen duenean sortzen dira umeak, ume.
- 1. ikaslea** Eta zer esan nahi du horrek?
- Andereñoa** Nola ulertuko duzu hain gazte izanik?
- Andereñoa** Gogora gaur ikusi duguna, subordinazioa eta koordinazioa 'X' baten balioa ekuazio batean ateratzerakoan Atilaren erasoan erromatarren inperioaren aurka higiduraren eragina Naturan ikusi zuenean Ciceron parlamentura sartu zen eta Antonio Machado eskolan bere haurtzaroaren gogoetak Castellako zelaietan zehar esaldi txertatuak errepasatzerakoan bisigotuak frankoen aurka aritu zirelako Egiptoko piramideak eraiki zituztenean Frantses Iraultza hasterakoan.
- 1. ikaslea** Ez dut ulertu!
- Andereñoa** (*Haserre*) Nola koño ulertuko duzu ez bazaude adi! Beti esaten dizuet zuen lana ikastea dela eta horretarako klasean adi egon behar duzuela lehen minututik klaseko azken minuturaino. Hori dela zuen bete beharra, zuen beharra.
Zuen eskubidea ikastea da, ikastea!
Zuen eskubideak oihukatzen dituzuenean hezkuntza bat eskatzen duzue, eta horren aukera ematen dizuegunean porrot egiten duzue. Horrela ezin da! Horrela ezin da ezer egin! Horrela ezin da!
- Play back** (*Amaitu ondoren argiak itzalita*).
- 1. ikaslea** Una tarde y fría
de invierno. Los colegiales
estudian. Monotonía
de la lluvia en los cristales.
Antonio Machado

III. ESZENA: AEROBIK

(Off-eko ahotsa).

Zin egiten dugu urte hartan urte guztietan bezala udaberria heldu zela.

Zin egiten dugu neska guztiak maitemindu zirela udaberri hartan... mutilak ere.

Zin egiten dugu neska lodiek ez zutela ligatu.

Zin egiten dugu gimnasioak, kolonia saltzaileak eta arropa saltzaileak aberastu zirela urte hartan.

Zin egiten dugu «Ellos las prefieren gordas» abestia ez zela urte hartan entzun.

Bi ikasle lodi, 3 normal eta irakaslea (azken hau erdi marika bat).

Neskak jolasean eta berriketan irteten dira, ondoren irakaslea. Denak aerobik egiteko jantzi aprobeekin.

Irakaslea

Neskok, ileretara. Formen!

(Denak formatzen dira, irakaslea ileraren aurrean pasian hasiko da roiloa botatzen).

Egun berri bat da, gorputza zaindu behar dugun egun berri bat, «mens sana in corpore sano», pozik egon behar duzue, alai, hemen hori egingo duzuelako.

Sano, gorputz garbia, buru garbia, pauso bat aurrera, bat atzera, bat aurrera, bat atzera, mens sana in corpore sano. ROSITA, ESNA ZAITEZ! *(Rosita atzeko neska lodi bat izango da).*

Relajatu zaitezte... aurpegi alaia, parrea ahoan, bat aurrera, bat atzera, bat eskumara, bat ezkerrera, bat aurrera, bat atzera, bat eskumara, bat ezkerrera, MARI, PARREA AHOAN!! *(Mari atzean dagoen neska bat).*

Orain berdin egingo dugu baina oinak altxatuz.

Orain hankak eta eskuak altxatuz. (...) ROSITA, ALTXA ESKUAK!!

Orain gerria mugituaz (...) Gorputz erdia makurtuz *(flexioak eginez)* MARI, IPURDI EDER HORI MUGI EZAZU!! *(eta ipurdia zeharo aterako dute biek).*

Orain lurrean etzanda artazien erara (...) bat, bi, bat, bi, bat, bi, bat...

BAT, BI, HIRU, MUSIKA!!! *(eta ariketa osoa jarraian egiten hasten dira).*

TXARTO, TXARTO, TXARTO, geldi, geldi.

Parrea ahoan, bihotz zabalez egin behar dugu, bihotzetik mugimendua irtengo balitz bezala.

Berriro hasiko gara? Bai, berriro. BAT, BI, HIRU, MUSIKA!!

(Oraingoan aurreko hirurei ondo irtengo zaie, atzekoak beti atzeratuta aurrekoei begiratzeko ez dira enteratuko eta dena txarto egingo dute).

(Katxondeoa izan behar da).

IV. ESZENA: ETXEAN

(Off-eko ahotsa).

Zin egiten dugu umeez ez dakitela zer egin, oso gustora ibiltzen direla kalean.

Zin egiten dugu gustora eta pozik joaten zirela etxera eta gustora hasten zirela etxerako lanak egiten baina gurasoak ez zuten sinisten.

Zin egiten dugu urte hartan beti ama haserre zegoela.

Zin egiten dugu urte hartan beste urte guztietan bezala denak umeen aurka zeudela.

Zin egiten dugu emakumeen eskubideen aldeko urtea izan zela urte hura eta ez hurrengoa.

(Eszenarioan bi aulki, butakak izango direnak. Senar-emazte eta seme-alaben argazki bat.

Ama irteten da, haserre, portaerretratoari hitzeginaz).

Ama

Beti hautsa kentzen, beti gora eta behera, beti korrika alde batetik bestera, beti hau egin behar duzula, hura egin behar duzula; beti josi hau, josi bestea... Beti, beti, BETI, BETI LANEAN.

(Portaerretratoa eskuen artean hartuaz).

Egunen batean greba egingo dut, bai greba, GRABA. Eta ihes etxetik, ihes! Eta ez nauzue inoiz ikusiko, inoiz gehiago!

(Tinbrea entzuten da, amak atea irekitzen du).

- Eneko** Kaixo ama.
- (Korrika sartzen da, kotxe txiki bat ateratzen du maletatik. Lurrera botatzen du maleta, gero txamarra kendu eta lurrera botatzen du.*
Amak jasotzen ditu maleta eta txamarra eta aulki baten gainean uzten ditu. Eneko kotxearekin lurrean jolasten hasten da).
- Ama** *(Aluzinatuta bezala, apur bat makur, zutik eta geld)* Zer moduz ikastolan?
- Eneko** *(Kotxearen zarata imitatzen)* BRUUU! ondo! BRUUU!
- Ama** Eta zer egin duzue?
- Eneko** BRUUU! Lan asko. BRUUU!
- Ama** Eta ze lan?
- Eneko** BRUUU! Ba, lana. BRUUU!
- Ama** Ba ze lan?
- Eneko** BRUUU! Ba, diktaketa, batuketak, marrazki bat, BRUUU!
- Ama** Erakutsiko al didazu dibujoa?
- Eneko** BRUUU! *(Kotxeari golpe bat ematen dio eta bera zutitu eta anbulantzia baten zarata imitatzen hasten da eszenario guztiari buelta bat emanaz anbulantzia gidatzen joango balitz bezala).* PI, PU, PI, PU, PI, PU... *(frenazoa).*
- Ama** Erakutsiko al didazu marrazkia?
- Eneko** Jo, ama. Jolasten ari naiz!
- Ama** Ez didazu erakutsiko?
- Eneko** Bueno, ama, erakutsiko dizut.
- (Ganora handirik gabe maleta hartzen du eta papel haundi bat erakusten dio amari. Bertan buru haundi bat dago margotuta).*

Eneko Tori! PI, PU, PI, PU, PI, PU... (*bere kotxea hartzen du berriro*).

Ama Eta nor da hau?

Eneko BRUUU! Idoia. BRUU!

Ama Hain itsusia da Idoia?

Eneko BRUUU! Bai. BRUU!

(Pikutara bidaltzen du amak Eneko, honek amari inolako kasurik egin gabe bere kotxearekin jolasten jarraitzen du).

Ama Bai! Egunen batean greba egingo dut, eta orduan ikusiko duzue; bai ikasiko duzue.
Idoia sartzen da.

Idoia Zer ama, bakarrik hitzegiten?

(Enekok denbora guztian bere kotxearekin jolasten jarraitzen du).

Ama Idoia! Gaur ez al duzu solfeorik?

Idoia Ez ama, ez da irakaslea etorri.

Ama *(Periodikoa hartzen du eta, butakan eseritzen da)* Horiek, horiek kobratu bakarrik egiten dute eta alper haundi batzuk besterik ez dira.

(Idoiak Enekorri begiratzen dio eta Enekok Idoiari, inork ez du ezer uletzen. Enekok zoratuta dagoenaren keinua egiten du).

Ama Eneko! Egin al dituzu ikastolako etxerako lanak.

(Idoia berehala hasten da egiten, Enekok kotxearekin jarraitzen du).

Ama Eneko! Egin al dituzu etxerako lanak?

Eneko Orain egingo ditut, jope!

Ama Ea ba! Hasi zaitez berehala!

Eneko Bai ama.

(Amak periodikoa irakurtzen jarraitzen du. Eneko maletan zerbait bilatzen arituko da).

Eneko Arkatza lapurtu didate, ez dut aurkitzen, ezin ditut egin etxerako lanak. *(Berehala altxatuko da kotxea hartzera. Ama ere altxatzen da eta besotik hartzen du).*

Ama Baina zer uste duzu zuk, etxerako lanetatik libratuko zarela? Ea, etxerako lanak egitera.

Eneko Ez dut arkatzik.

Ama Idokia, zuk ba al duzu arkatzik honi uzteko?

Idoia Tori!

Eneko Hau ez dut nahi, hori nahi dut.

Ama Hasi zaitez lanean!! *(guztiz haserre, oihuka).*

(Eneko nagarrez hasten da lanak egiten. Bi minutu).

Eneko Egin ditut! *(pozik eta korrika kotxea hartzen du).*

Ama Nola egin dituzula! Bi minutu ere ez zara egon eta.

Eneko Gutxi daukagu eta.

Ama Nola demontre egingo zenuen bi minututan.

(Idoiak liburuen artean tebeo bat dauka eta hura ari da irakurtzen. Amak altxatu eta kendu egiten dio).

Ama Zer da hau? *(oihuka histeriko bat bezala).*

Idoia Hori... eh... hori... tebeoa da...

- Ama** Tebeoa! Etxerako lanak egin behar eta tebeo zikin bat irakurtzen, hori da ganora etxerako lanak egiteko!
- (Eneko parrez egongo da eta Idoia lelo aurpegiarekin begira).*
- Ama** Hasi zaitetz etxerako lanak egiten!!! *(histerikoa bezala).*
- (Enekok parrez jarraitzen du).*
- Ama** Eta zu ere hasi zaitetz lanean oraintxe bertan *(koskorreko bat emanetz)*
- (Biak hasten dira ixil-ixilik lanean. Berehala joango da Eneko altxatuta izkina batera arkartz bati punta ateratzera).*
- Ama** Nora zoaz?
- Eneko** Arkatzari punta ateratzen ari naiz.
- Ama** Baina ez dizu Idoiak oraintxe bertan berria eman?
- Eneko** Bai, baina apurtu egin zaio.
- Ama** Atera iezaiozu punta eta hasi zaitetz berehala lanean.
- Eneko** *(Serio, serio)* Bai, ama.
- (Apur baten serio-serio lanean egon ondoren).*
- Idoia** Ama, Barrio Sésamo hasten da. Joango al gara ikustera?
- Eneko** Bai ama, ikusiko al dugu?
- Ama** Amaitu al duzue?
- Idoia eta Eneko** Bai, ama.
- Ama** Joan zaitetzte biok ikustera orduan.

(Eta periodikoa irakurtzen jarraitzen du. Idoia eta Eneko korrika irteten da eszenariotik.

Apur bat geroago, oihuak eta burruka entzuten da kortinen atzean. Ama berehala irtengo da korrika eta belarritik helduaz ateratzen ditu berriro eszenariora).

Ama Barrio Sésamo ikusten, eh? Zu izkina hartan belauniko egongo zara eta zu bestean. *(Itxoin apur bat belauniko jarri arte)* Eta ixilik!!

(Idoia eta Eneko belauniko daude. Elkarri noizbehinka begiratzuz eta keinuz mehatxatuz egongo dira. Aita azaltzen da eta butakan eseriaz...).

Aita Etxera natorren bakoitzean zigortuta aurkitu behar zaituztet? Zer egin duzue oraingoan?

Idoia Bera hasi da neri «gorda» deituaz eta gero balaunean jo nau...

Eneko Idoiak lekua kendu dit eta gero iletik tiraka hasi zait kokolo deituaz...

(Biak batera hitzegiten dute, ezin da ezer ulertu).

Aita Horrela ezin da ezer ulertu. Biok ohera joango zarete, afalaurretik hitzegingo dugu.

(Haserre Idoia eta Eneko eszenariotik irteten dira. Tinbrea entzuten da. Ama irteten da).

Gizona Mire, soy de Editorial Planeta y queremos presentarle esta nueva Enciclopedia de veintidos tomos que estamos promocionando durante estos últimos cinco años y que en esta nueva oferta puede conseguirla por tan sólo 95.000 pesetitas pudiendo pagarlas en cómodos plazos durante seis años.

(Guzti hau jarraian esango du, dena mila aldiz errepikatu izango balu bezala).

Ama No me interesa.

- Gizona** Pero señora, déjeme que le explique.
- Ama** ¡Que no me interesa! Váyase al carajo.
- Gizona** Está bien, está bien señora; ya me voy.
(Ama, gizon hori bota ondoren, aitarengana bueltatzen da).
- Aita** Oso diplomatika egon zara, benetan gaur oso sinpatika zaude!
(Tinbrea berriro ere).
- Ama** Orain joan zaitez zu atea zabaltzera!
(Aita joaten da).
- Emakumea** ¿Qué tal está usted?
- Aita** Bien, ¿y usted?
- Emakumea** Bien. ¿Le he interrumpido en algún trabajo?
- Aita** Pues estaba intentando hablar con mi mujer.
- Emakumea** Pues perdone, no intentaba molestarle en tan importante labor. Sólo que quería presentarle este nuevo número de la que seguramente ya conoce revista Atalaya que trata sobre cómo educar a sus hijos.
- Aita** ¿Es usted de los de Jehová no?
- Emakumea** Pues no es del todo cierto, pero...
- Aita** ¡No me interesa!
- Emakumea** Gracias por haberme atendido y no le molesto más. Gracias de nuevo y adiós.
- Aita** Sí, ¡váyase!
(Eta amarengana bueltatzen da emakumea atera ondoren).

- Ama** Horra hor modal ederrak dituena.
- Aita** Zer, egun txarra eduki duzu gaur?
- Ama** Txarra diozu! Zu egun guztian etxetik kanpo zauden horrek.
- Aita** Zer diozu?
- Ama** Bai, entzuten duzuna. Goizetik gauera etxean sartuta, zuen esklabu, umeak aguantatzen, zuen txerrikeriak garbitzen. Aspertuta nago!
(*Gero eta oihu handiagoak*).
- Aita** Ze uste duzu, besteok aulkiak berotzen agoten garela eta kafetegian kartetan umeak klasetik ateratzerakoan?
- Ama** (*Oihuka*) Aizu, nola diozu hori? Inoiz arduratu zara seme-alaben notez, inoiz hitzegin al duzu euren maisu-andereñoekin. Ba al dakizu ze ordutan irteten diren ikastolatik?
- Aita** Aspertuta nago beti lelokeria berdinak entzuten. Uste duzu zu bakarrik aritzen zarela Idoia eta Enekoren arazoak konpontzen?
- Ama** (*Histerikoa, zutiturik*) Joan zaitez eurengana, begira orain ere non dauden, jakin ezazu zergatik. Galdetu Idoiari zergatik atera dituen bost suspenso.
- Aita** Nola? (*Harriduraz beterik*).
- Ama** Galdetu iozu Enekori zergatik bota zuten joan zen hilean aste oso bat ikastolatik.
- Aita** Zer diozu?, Aste baterako bota eta ni ezer jakin barik?
(*oihuka*) Oraintxe bertan konponduko dugu arazo hau.

(*Eta arineketan irtengo da eszenariotik*).
- (*Ama pañueloa kendu eta estrangulatzen saiatuko da, oihuka, belauniko eta negar batean*).

(Aita kortinetatik irteten da).

- Aita** *(Goxo, goxo)* Mesedez Nekane, ez zaitez horrela jarri, ikusiko duzu nola dena konponduko den; berehala datoz oporrak eta denok batera egongo gara berriro ere.
- Ama** *(Negar batean)* Bai... bai... batera... batera egongo gara... nik fregaua... eta zuek jolasten...
- Idoia** *(Kortinen atzetik).* Ama!, Enekok liburua apurtu dit!

V. ESZENA: AKZIDENTEA

(Off-eko ahotsa).

Zin egiten dugu urte hartan jende asko hil zela, baita jaio ere.

Zin egiten dugu urte hartako matematika penkatu genuela.

Zin egiten dugu zuei hori ez zaizuela axola.

Zin egiten dugu orain ere musika nahi duzuela entzun baina ez duzuela entzungo inongo musikarik.

Zin egiten dugu urte hartan beste urte guztietan bezala ez zegoela inor gu laguntzeko.

(Tipo zahar bat lasai asko doa kalean zehar eta neska eder bat ikusterakoan atake bat ematen dio bertan zerraldo geratuaz, hankak mugituz.

Berehala bi gazte azalduko dira).

- 1. gaztea** Txo, begira nolako mozkorra daraman gainean.
- 2. gaztea** Aluzinantea, txo!
- 1. gaztea** Gero gugatik arituko dira zahar zikin hauek.
- 2. gaztea** Aluzinantea, txo!
- 1. gaztea** Beti droga eta mozkortuak gabiltzala, beti istiluak sortuaz gabiltzala esango dute eta begira nolako adibidea ematen diguten.

- 2. gaztea** Aluzinantea, txo!
- 1. gaztea** Ez al dakizu beste ezer esaten?
- 2. gaztea** Ez zazu aluzinatu, txo!
- (Gorputz hori begiratuaz geratuko dira gazte horiek parrez eta pasoten keinuak eginaz.
Bat batean emakume bat azalduko da, gorputza ondo begiratu eta gero, ikuitutakoan, oihuka hasiko da zoro bat bezala).*
- 1. emakumea** Lagundu, mesedez lagundu!!! *(alde guztietara begira).*
Laguntza, lagundu ezazue mesedez! *(gazteei).*
- 1. gaztea** Mozkor bati lagundu? Ea eutanasia egiten dioten eta pakea daukagun!
- 2. gaztea** *(Parrez).* Aluzinantea, txo!
- 1. emakumea** Ai! Zer egin behar dut nik! Urde zikinok!! Laguntzaaaa!!!
(Berehala etorriko da beste gazte bat korrika, larri-larri, hiztotela).
- 3. gaztea** Ze-ze-zer pa-pa-pasatzen da da da he-he-hemen?
- 1. emakumea** Ez duzu ikusten ala? Koitadu hau hiltzen ari da, deitu iezaiozu ambulanzia bati.
- 3. gaztea** *(Lekutik mugitu barik)* A-a-ambu-bu-bu-lan-lantzi-tzi-tzia!!! *(arnasa hartu, eta berriro)* A-a-ambu-bu-bulan-lan-lantzi-tzi-tzia!!!
- 1. emakumea** *(Guztiz desesperatuta, oihuka)* Telefono batetik!!!
Telefono batetik!!!
- 3. gaztea** No-no-non da-da-dago te-te-tee!
- 1. emakumea** *(Gorpuaren ondoan belaunikatuta eskuarekin telefonorantz seinalatuz)* Han, hantxe bertan dago bat, joan zaitetz arin, arin.

- 3. gaztea** Ba-ba-banoa, ba-ba-banoa (*erdi koju, arinka irteten da eszenariotik*).
- (*Atso zahar bat irteten da, 3. gaztea anbulantziari deitzera doanean; honek bultza egiten dio atsoari*).
- Atsoa** Kontuz gazte, agureok ere badugu gure eskubidea kalean ibiltzeko eta. (*Gizon bat lurrean etzanda dagoela konturatzten da*) Zer da hau? Atentatu bat?
- 1. emakumea** Nik horrela aurkitu dut; etorri naizenean horrela zegoen.
- Atsoa** Atentatu asko daude gaur, atentatu bat izango da.
- 1. emakumea** Gazte horiek hemen zeuden (*pasota biak seinalatuz*) igual ikusi dute zerbait.
- (*Atsoak gazteei goitik behera begiratuaz, atzerantza ematen ditu bi pauso*).
- Atsoa** (*1. emakumeari*) Itxura horrekin ezin dira gazte sano eta jatorrak izan; horiek terroristak dira.
- 1. emakumea** (*Gizon bat ikusten du eta oihuka hasten zaio*) Mesedez etor dadila norbait, lagundu!!
- Gizona** Zer da hau? Zer pasatzen da hemen. (*Urduri*).
- 1. emakumea** Atake bat eman dio; lagundu nazazu mesedez!!
- Gizona** Nik hiru seme-alaba ditut, nik ez dakit ezer; emaztea zai dut etxean; joan egin behar dut (*eta presaka doa handik*).
- (*Beste emakume bat azaltzen da*).
- 2. emakumea** Zer moduz dago? (*jakinmin handiarekin*).
- 1. emakumea** Ez duzu ikusten ala? Hilzorian dago!!
- 2. emakumea** Benetan txarto egon behar du, orduan.

- Atsoa** (2. emakumeari eskutik hartzen dio eta atzerantza eramaten du, eta sekretu bat esango balio bezala hitzegiten dio). Hor parrez dauden horiek ikusi dute guztia. Ziur terroristen lagunak direla horiek ere; itxura horiekin ez nuke ezetz esango.
- 2. emakumea** Ez da egia izango (*sorpresa eta harridura handiarekin*).
(*Beste gazte bat irteten da eta berehala zuzentzen da erorita dagoen gizonarengana. Pultsoa hartzen hasten zaio*).
- 1. emakumea** (*Pozik*) Eskerrak norbait laguntzeko prest azaltzen dela.
- 4. gaztea** (*Ixilik pultsoa hartzen arituko da apur batean eta gero esango dio, pultsoa hartuaz oraindik*) Txarto dago, deitu al diote anbulantziari?
- 1. emakumea** Bai, joan dira abisatzera.
(*Eszenarioaren beste aldetik neska gazte bat azaltzen da*).
- 4. gaztea** Marian! Aspaldiko! (*eskua utzi eta agurtzera doa bere laguna*).
- Marian** Alberto, nola zaude?
- 4. gaztea** Pozten naiz zu ikusteaz.
- Marian** Zer egiten duzu hemen? (*zaharra lurrean ikusten duela*).
- 4. gaztea** Zahar hori lurrean etzanda ikusi dudanean laguntza beharko zutela pentsatu dut eta hemen geratu naiz.
- Marian** Zer du ba?
- 4. gaztea** Ez dakit, etorri naizenean etzanda zegoen. Goazen trago bat datera. Hor badago nahiko jende laguntza behar badute.
- Marian** Bai goazen, niri ez zaiztik horrelako gauzak gustatzen. Benetan pozten naiz hainbeste urte pasa eta gero zu ikustean.

- 4. gaztea** Hor daukagu taberna bat, goazen horra.
*(1. gaztea eta 2.a parrez lehertzen ari dira. 1. emakumea ahoa zabalik eta zer esan ez dakiela geratu da, guztiz desesperaturik).
 (3. gaztea azaltzen da).*
- 3. gaztea** De-de-deitu di-di-diot a-a-ambu-bu-bulan-lantzi-tzi-tziari.
- 1. emakumea** *(Desesperatuta bere ileetatik tiraka)* Ze mundu da hau! Inork ez dauka bururik ala? Denak zoratu dira hiltzorian dagoen zahar bat kale bazterrean uzteko?
(1. gaztea eta 2.a parrez. Atsoa eta 2. emakumea bi gazteei begiratzuz kritikatzuz egongo balira bezala).
- Atsoa** Ikusten duzu orain ere nola zahar hori lurtean ikustera-koan parrez lehertzen ari diren? Oraingo gazteei ez zaie ezer axola, orain ez dago errespetorik!
- 2. emakumea** Bai, bai, arrazoi guztia duzu, joan zen egunean ere niri...
(Baju hitzegiten, kritikatzuz jarraituz bezala).
(Birtartean 1. emakumea erdi negarrez dago, eta hiztotela hatza ahoan duela geratzen da, oso urduri denbora guztian. Beste neska bat azaltzen da).
- 3. emakumea** Laguntzarik behar duzue?
- 1. emakumea** Ez, ez dugu behar. Joan zaitez zu ere!
- 3. emakumea** Zer pasatzen zaio?
- 1. emakumea** *(Oihuka)* Ez dakit.
- 3. emakumea** *(Belarria bularraren gainean jartzen dio)* Masaje kardiako bat eman behar zaio berehala, bihotzak ez dio ia erantzuten. *(Eta golpeka hasten zaio bularrean).*
(1. emakumea zaharra nola jotzen duen ikusi eta jendea-rengana aurreratzen da apur bat. Erdi mareatuta lurrera erortzen da). (Anbulantziaren sirena entzuten da).

(Eszenarioan dauden guztiak, 1. gaztea eta 2.a izan ezik, erori den emakumearengana doaz laguntzera.

Kamilerook azaltzen dira eta eramaten dute 1. emakumea, beste guztiak berehala irtengo dira eszenariotik).

- 3. gaztea** Ta-ta-ta-ta...
- 2. emakumea** Hain emakume sanoa zirudien...
- Atsoa** Ziur gazte horiek izan direla...
- 1. gaztea** Goazen txo, aspertzen ari naiz.
- 2. gaztea** Aluzinantea, txo.

(Lurrean dagoen zaharra bakarrik geratzen da, hankak mugituaz. Ah! luze bat aterako zaio eta hankak luzatuko ditu. Hil da).

VI. ESZENA: MUNDUAREN ITXURALDAKETA

(Off-eko ahotsa).

Zin egiten dugu urte hartan Galerias eta Corte Ingleseko beherapenetara joan ginela.

Zin egiten dugu jende ezagun asko bertan ikusi genuela. Zin egiten dugu ez zutela ihauterietarako mozrorrik erosi.

Zin egiten dugu zuek guztiok hipokrita batzuk zaretela.

(Ironikoki punkyak pertsonaia guztiak presentatuko ditu. Oinez, Lina Morgan ibiltzen den antzera).

Punkya

(Ikusleagoari zuzenduaz) Zer begiratzen duzue, zer? Inoiz ez duzue ikusi ni bezelako gazte bat ala? Zuk, zer begiratzen duzu? Besteak baino hobek zaretela uste duzue? *(Ertzaina irteten da).*

Hona hemen ertzaina, herriaren zaindaria, txikitan nere ikaskide, gaztetan nerekin poteatzen zuena, orain ertzaina denez ez nau ezagutzen, itxuragabekoa naiz, ez naiz ezer.

Hona hemen Pozaseko bi gazte, hona hemen bi PERA, problemaz josita mundua sorbalda gainetik begiratzen duten horietako bi, unibertsitatean ikasten dutenak, gurasoen dirutik hogeita hamar urte bete arte bizi direnak, hamalau urterekin motorra zutenak; etxean bideoa, musika kate bat dutenak, eta hamazortzi urterekin euren kotxetxoa dutenak. Hor doaz pasian polit asko jantzita, txukun eta ligoi. Hori bai, arazo ikaragarriak dituzte, baina etorkizuna ziurtatuta dute.

Hona hemen atzo FUNKY, gaur PUNKY eta biar MODELNOA izango dena. Inglaterrako azken modara doana, hegohaizea baino aldakorragoa dena, haizorratza baino aldakorragoa dena. Y VA DE DURO!!

Hona hemen zuzentasuna, kritika positiboa, arazo guztientzat konponbidea duena; hona hemen morala, zuzentasuna, garbitasuna, adibidea...

KAKA.

Denok hipokrita batzuk zarete, ez zarete ezer. Zuen soinekoen azpian ez dago ezer, ustelduta zaudete.

(Play back).

AZKENA

(Off-eko ahotsa).

Zin egiten dugu hemen ikusitako guztia benetan gertatutakoa dela, horrela ez bada, berdin zaigu.

Zin egiten dugu edozein egiantza kasualitate hutsa dela.

Zin egiten dugu honen kopia ateratzea debekatuta dagoela 351 artikulogatik.

Zin egiten dugu HAU AMAITU DELA.

ETXE HAU BAI DELA GUAI!!!

BBBko 3. mailako ikasleak
Cancellor Ayala batxilergo institutua
Laudio 1989

PERTSONAIAK

- Nikaxia:** Aitaren ama da. Gutxi gora behera 73 urte ditu. Artrosia du eta piska bat lelotuta dago, kuitadu bat da. Ez ditu bere ilobak oso maite eta bere semearen emazteari bizitza zaila egiten dio.
- Nikanora:** Nikaxiaren laguna da. Aberatsa eta oso zabala da esperientzia berriekin. Alargun klubeko lehendakaria da. Baserri bat dauka «Goiko Billarrebuizon».
- Estibalitz:** Nikaxiaren iloba da. 18 urte ditu eta institutuan ikasten du.
- Jasone:** Estiren lagun mina da. Biak batera igarotzen dute egun guztia.
- Muamar:** Musulman aberats bat da. Emir baten semea da. 22 urterekin sei emakume ditu.
- Salbador:** Margolaria da. Nikanoraren baserrian bizi da.
- On Leokadio:** Herriko apaiza da eta familiaren oso laguna. 45 urte ditu. Egunero doa etxera errosarioa errezatzera.
- Eneritz:** Alaba txikia da, 6 urte ditu. Beti bere panpinarekin jolasten dabil. Gutxitan hitz egiten du, barnekoia da.

- Genaro:** Aita da eta 50 urte ditu. Ejekutibo bat da. Bere familiaz kokotaraino dago.
- Dolores:** Ama da, 43 urte ditu. Oso beata da eta asko sufritzen du familia guztiarekin.
- Eneko:** 21 urte ditu. Etxetik kanpoan dago, orain dela bi urte.
- Dantzariak:** Mairu hauek dantza egiten dute.

I. LEHENENGO EGUNA

(Teloia zabaltzen da eta egongela batean Nikaxia eta Nikanora daude te kikara bat hartzen eta hitz egiten).

- Nikanora** Bai, Nikaxia. Nere baserriko maizterra margolaria da, eta proposamen dibertigarri bat egin dit eta zuretzat ere bada proposamen hori.
- Nikaxia** Bai? Zer da ba?
- Nikanora** Begira, asteartean, nere etxera etorri zen ordaintzera, eta nik oinutsik nengoela, atea ireki nuen.
- Nikaxia** Oinutsik zeunden? Zergatik ba?
- Nikanora** Imanol doktoreak esan zidalako, ona zela nire artrosirako.
- Nikaxia** Benetan! Artrosirako oinutsik egotea? Probatuko dut.
- Nikanora** Beno ba... hori. Oinutsik nengoen eta Salbadorrek nere oinetako behatzak ikusi zituen.
- Nikaxia** Uh!! Zernolako lotsa!! Zu gorri-gorri ipiniko zinen, ezta?
- Nikanora** Ba, ez pentsa. Badakizu nik esperientza haundia daukadala gizonekin.
- Nikaxia** Bai, bai... badakit, inoiz ez zenuela kalabazarik eman,... ez zeneukan nori eta. Eta zein da proposamen hori?

- Nikanora** Esan zidan nere behatzak oso espresibitate haundikoak direla, eta pentsatzen duela haren kuadririk ospetsuena «Atsoak pinua egiten» izango dela. Proposamena hau da: gu bere modeluak izatea. Kuadro bat margotuko digu biluzik eta pinua egiten.
- Nikaxia** Baina, Nikanora! Zernolako zorakeria! Eroa ematen duzu. Nola egingo dugu guk pinua, gure artrosi ta guzti, eta biluzik oohhhhhh!!!!
- Nikanora** Baina Nikaxia pentsa pixka bat. Nere oinetako behatzak emango diote irudiari grazia bat... Giocondaren irifarrea bezalakoa. Pentsa, gu, Nikaxia eta Nikanora; «Gioconda»; «La maja desnuda» edo «Las Meninas» bezain ospetsuak.
- Nikaxia** Baina biluzik... Ene!! Gure ohorea kultura eta arteagatik salduko dugu. Baina guzti hau sekretuan izan behar da, bestela... zernolako lotsa pasatu behar dugun!
- Nikanora** Bai, bai Nikaxia. Zu ez kezkatu. Bihar Salbadorrekin etorriko naiz froga bat egitera, eta gero, inork ez du ezer jakingo. Ez gara Alargun Klubera joango, eta Salbadorrek margotu egingo gaitu.
- (Kaleko atea entzuten da).*
- Nikaxia** Ixilik!! Norbait dator.
- (Estibalitz eta bere laguna Jasone egongelan sartzen dira).*
- Estibalitz** Kaixo amama!! *(Musu bat ematen).*
- Nikaxia** *(Musua sikatzen)* Hau neska!! Arabiar bat ekarriko du gure etxera *(Nikanorari diotso).*
- Estibalitz** Ez, ez da arabiarra, musulmana baizik.
- Nikaxia** Eta noiz etorriko da?
- Estibalitz** Bihar, baina amama... zoazte sukaldera, Jasone eta biok biharko azterketarako ikasi behar dugu eta.

Nikaxia Zoazte, zoazte!! Zaharrak enbarazoa garela dirudi. Zernolako lotsagabea!

(Nikaxia eta Nikanora badoaz. Esti eta Jasone eseri eta hitz egiten hasten dira).

Jasone Nolakoa da Muamar?

Estibalitz Guau!!! Ez dakizu zein polita den, eta aberatsa! Begira, badakizu zertara datorren hona? Repsol Konpainia eroatera.

Jasone Benetan?

Estibalitz Benetan, iaz Marbellara joan nintzen oporretan eta han zegoen bera, hondartzan otoitz egiten.

Jasone Otoitz egiten?

Estibalitz Bai, egunero bost aldiz otoitz egin behar dute musulmanek.

Jasone Ah!!! Zein dibertigarria izan behar duen!

Estibalitz Ba, ez pentsa nere ama ere horrela bizi da. Tira, tira ikasi behar dugu, zeren eta gero, On Leokadio etorriko baita, nire amarekin otoitz egitera.

Jasone Eta nor da On Leokadio hori?

Estibalitz Herriko apaiza, egunero etortzen da otoitz egitera nere neba itzul dadin.

(Eta ikasten hasten dira).

Jasone Ez dut ikasteko gogorik, eta zuk?

Estibalitz Ba egia esan, nik ere ez dut handirik. Total dena daki-gu eta.

Jasone Zer ordutan helduko da Muamar?

- Estibalitz** Bihar, ez dakit. Bere jet pribatuan helduko da.
- Jasone** Benetan? Eta zer egingo duzu berarekin? Zuen etxean geratuko al da?
- Estibalitz** Bai, gure gurasoek bera ezagutzea nahi dut.
- Jasone** Isil zaitez! Uste dut txirrina entzun dudala.
- Estibalitz** On Leokadio izango da. Beti ordu honetan heltzen da.
(Ama atera doa eta On Leokadiorekin itzultzen da. Logelara doaz).
- Jasone** Beno, zure amarekin etxean..., zergatik ez dugu buelta bat ematen hortik?
- Estibalitz** Bai, ideia ona da. *(Amaren logelarantz doa)*. Beno ama, liburutegira joango gara. Gero arte.
(Logelan ama eta On Leokadio hitz egiten ari dira).
- Ama** Aaayyyy!!! Zein izango da nere penitentzia gaur?
- On Leo** Lehenengo gauza, eroso ipini behar duzu otoitz egiteko.
- Ama** *(Ohean etzanda)*. Eroso nago.
- On Leo** Orain «Gure Aita» errezatu behar dugu.
(Ama otoitz egiten hasten da eta On Leokadiok zirriak egiten dizkio. Eneritz logelan sartzen da eta On Leokadio bere amari begira dagoela ikusten du, baina egongelara itzultzen da).
- Ama** On Leokadio, zer egin dut nik hau merezi izateko?
- On Leo** Ba, zer jazotzen zaizu?
- Ama** Aaaiiii!!! Kontatuko banizu!
- On Leo** Kontaidazu, kontaidazu. Badakizu ni zure laguna naizela.

Ama Begira, nere senarrak ez dit kasurik egiten. Beti berandu dator lanetatik, ez du esaten zergatik. Uste dut beste emakume bat daukala. Nere amaginarrebak ez nau pakean uzten. Eneritz guztiz arraroa da, zonbi bat dirudi. Eta Estik Muamar bakarrik du buruan. Gainera, Eneko, ez dakit non dagoen, ezta bizirik dagoen ere. (*Negarrez*).

On Leo Baina, Dolores, zu oso emakume ederra zara, eta azkarra. Bizitza hau ez duzu merezi. Nerekin etorriko bazina...

Ama Baina... mesedez, On Leokadio (*Aitaren egiten*) Zu apaiza zara eta ni emakume ezkondua. Hori zorakeria!!

On Leo Ez, ez, ez Dolores, nik esaten dizudana obra on bat da. Zu zorionsua izateko bakarrik egiten dut. Pentsa ezazu Dolores. Komeni zaizu.

*(Doloresek konortea galtzen da. On Leokadio etxetik irte-
ten ari da. Egongelan Eneritz dago bere panpinarekin hitz
egiten).*

Eneritz Ay! Txotxona zu nere lagun bakarra zara. Ez nau inork maite. Amak Eneko bakarrik maite du. Amamak zoroa ematen du. Aita ez dago inoiz etxean eta Estik ez du gurekin jolastu nahi. Zer iruditzen zaizu gu ere joango bagina Eneko bezala, horrela amak maite egingo gaitu gu ere.

(Aita heltzen da. Panpakada bat ematen).

Eneritz Kaixo aita!

Aita Kendu hortik eta utz nazazu pakean.

Eneritz Ama ohean dago, ez dago ondo.

Aita Agg! Haserre nago eta gainera etxera etorri eta afaria ipini gabe.

Eneritz Baina gaixorik dago.

Aita Utz nazazu pakean eta zoaz ohera.
(Denak ohera eta lehenengo eguna pasatu da).

II. BIGARREN EGUNA

(Eneritz ikastolan dago, aita lantegian eta egongelan Dolores eta Esti daude).

Ama Dena prest daukazu Muamar datorrenerako?

Estibalitz Bai, logela prest dago, baina ez dakit zein jantzi ipiniko dudan.

Ama Ipini ezazu nahi duzuna. Eta, zer moduz azterketa?

Estibalitz Ba, primeran ama. Beno, orain logelara noa janztera.

(Estibalitz logelara doa eta txirrina entzuten da Nikanora eta Salvador dira. Doloresek atea zabaltzen du).

Nikanora Kaixo, Dolores!! Nikaxiaren bila gatoz.

Ama Sar zaitetze, orain deituko diot, ohean dago.

Salvador Gogo handia dut Nikaxia ezagutzeko.

Ama Ni bezalakoa da, oso polita da, baina nere oinak be-reak baino politagoak dira.

Salvador Hori espero dut (bla, bla, bla, bla...).

(Salvadorrek hitz egiten duen bitartean, Nikaxia heltzen da Kamixoi oso probokatibo batekin. Salvador altxatzen da eta bere bila doa. Txanoa kentzen duen bitartean erreberentzia egiten du eta Nikaxiaren eskua musukatzen du).

Salvador Ooohhh!!! Zelako ohorea neretzat zu ezagutzea. Zuek izango zarete nere musak.

Nikaxia Eta nor da gizon dotore hau?

- Nikanora** Esna zaitez Nikaxia, Salbador da.
- Nikaxia** Ooohhh!!! Barkaidazu, uste nuen arratsaldean etorriko zinetela.
- (Denak esertzen dira. Nikaxiak zapatilak kentzen dituela, oinak mahai gainean ipintzen ditu. Salbadorrek ikusten ditu eta muskatzen ditu).*
- Salbador** Zure oinetan andrea.
- Nikaxia** Ooohhh!!! Zernolako gizon kortesa.
- Salbador** Zure kalloek zorutzen naute. Margotu behar ditut.
- (Ateratzen du koaderno bat eta kalloak margotzen ditu).*
- Nikaxia** Ooohhh!!! Ze erromantikoa zaren Salbador!
- Salbador** Oh!!! Lan hau «Gioconda» baino ospetsuago izango da, baina denbora asko behar dugu amaitzeko. Horregatik, zuen denbora osoa behar dut. Uste dut leku paketsu batera joan behar dugula eta han egun guztia pasatu.
- Nikanora** Orduan nere baserrira joango gara, baina Alargun Klubeko atxakiak ez digu balio izango.
- Nikaxia** Baina bost axola, kokoteraino nago Dolores eta nere ilobaz. Gustatuko litzaidake ihes egitea. Baserrira joango naiz zuekin bizitzera.
- Nikanora** Orain jantzi zaitez, eta goazen alargun klubera, biharko ihesari buruz hitz egiteko.
- (Nikaxia badoa. Salbador eta Nikanora itxaroten ari diren bitartean txirrina entzuten da).*
- Estibalitz** Banoa!
- (Atea irekitzen du eta mairuak sartzen dira etxean dantza egiten denbora luze batean. Muamar sartzen denean, denak belauniko ipintzen dira eta momentu horretan Nikaxia*

sartzen da. Muamarrek keinu bat egiten du, eta mairu guztiak izkina batera doaz).

Estibalitz Ai, Muamar!! Hemen zaude azkenean. (*Besarkada bat ematen*). Ama etorri, begira, hau da nere Muamar maitea.

(Ama heltzen da).

Estibalitz Begira Muamar, hau nere amama Nikaxia da, hau bere lagun mina Nikanora eta... eta, zu, nor zara zu?

Nikanora Hau Salvador Malí, margolari ospetsua da.

Muamar Zelako ohorea neretzat.

Estibalitz Eta hau badakizue, Muamar da. Lagun musulman bat.

Nikaxia Ai, Muamar!!! (*Pausada bat ematen*). Zernolako gogoaneukan zu ezagutzeko.

(Mairuak dantzan hasten dira eta Muamarrek haserre bixalo ematen ditu).

Estibalitz Ama, begira.

Nikaxia Beno, gu alargun klubera joango gara. Agur.

(Badoaz Salvador Nikaxia eta Nikanora).

Estibalitz Muamar, Jasoneri deituko diot bera gero etor dadin.

(Estibalitz badoa eta ama eta Muamar hasten dira berba egiten).

Ama Nolako bidaia izan duzu? Nekatuta egongo zara. Eserzaitez, mesedez.

(Esertzen dira).

Muamar Nere bidaia? Ba..., oso ondo, beti bezala. Heltzerakoan Repsol-Butano erosi dut baina egun batzuk igaroko ditut hemen.

(Esti itzuli da).

- Estibalitz** Jasoneren etxean honantz datorrela esan didate.
(Txirrina entzuten da eta ama, atea zabalduz, badoa erosketak egitera).
- Ama** Kaixo, Jasone!!! Beno nik... Eroskira joan behar dut.
- Muamar** Eroski? Hori nirea da. Txartel honekin ez dizute kobratuko.
(Jasone sartzerakoan Estibalitz agurtzen du txalo bat emanenez. Mairuak dantzan hasten dira. Muamarrek beste seinale bat egiten du eta denak doaz kalera).
- Estibalitz** Jasone, hau Muamar da eta hau *(Muamarri zuzenduta)* Jasone.
- Jasone** Zuk esan didazuna baino ederragoa da.
- Muamar** Eskerrik asko.
- Jasone** Ez dago zergaitik.
(Aita humore txarrez dator).
- Aita** Kaixo. Gaur gorriak ikusi ditut.
(Aitak Jasone eta Muamar ikusten ditu eta oso formal bihurtzen da bapatean).
- Aita** Kaixo. Zer moduz? Ze sorpresa ona.
- Estibalitz** *(Muamari)* Hau nere aita da. Aita, hau Muamar da.
- Aita** Suposatzen nuen. Zergatik ez zoaz Muamarrekin buelta bat ematera herria ikustera?
- Jasone** Hori ideia ona. Zoazte, zoazte.
- Estibalitz** Bai, joango gara. Etorri Muamar.

(Esti eta Muamar doaz eta Jasone Genarorekin geratzen da egongelan).

Aita Jasone.

Jasone Genaro.

Aita Jasone.

Jasone Genaro. *(Besarkatzen).*

Aita Jasone, maite zaitut.

Jasone Goazen logelara.

Aita Bai, goazen.

(Logelarantz abiatzen dira besarkatuta eta Eneritz egongelan sartzen da. Zerbait ikusten du).

Eneritz Aaahhh!!! Hori zen, aita Jasonerekin. Aitak Jasone maitatzen du baina guri inork ez digu kasurik egiten. Seguru nago partxisean jolasten ari direla eta guk... ezin dugu haiekin jolastu. Kokoteraino nago. Bihar ihes egingo dugu, eskolara joan beharrean, jolas-parkera joango gara eta han egongo gara hiru urtean bizi izaten. Gero itzuliko gara eta seguraski denek maiteko gaituzte, Eneko bezala. Bai, bai. Oraintxe bertan ipiniko dut nere makutoan behar dugun guztia.

(Makutotik liburuak ateratzen ditu eta gauza batzuk sartzen ditu.

Orain logelatik irten dira Genaro eta Jasone. Genaro brageta itxiz eta Jasone brusa lotzen).

Genaro Eneritz!!! Hemen al zaude? Zoaz oraintxe bertan zure logelara!

(Eneritzek ospa egiten du).

Jasone Bihar goizaldean hemendik urrun egongo gara.

- Genaro** Bai, zuk nahi duzun lekura joango gara. Horrela Doloresengandik askatuko naiz.
- (Ama eta On Leokadio boltsaz kargatuta sartzen dira).*
- Ama** Kaixo Jasone!!! Eta Esti non dago?
- Jasone** Muamarrekin joan da. *(Totelka mintzatzen).*
- Aita** Bai... Muamarrekin joan da. Eta orain Jasone eramango dut bere etxera.
- (Jasone eta Genaro irteten dira. On Leokadio eta ama logelara doaz).*
- Denak** Agur!!!
- On Leo** Zer, Dolores!!! Pentsatu duzu zerbait atzo esan nizunari buruz?
- Ama** Bai, On Leokadio jauna. Eta erabaki bat hartu dut. Nere bizitzako erabakirik garrantzitsuena. Zaila izan da baina seguru nago.
- On Leo** Zer, Dolores, zer? Zer pentsatu duzu? Etorriko zara nirekin?
- Ama** Bai, hori da nere erabakia. Baina ahal dugun bezain laster egin behar dugu eta inork ezin du ezer jakin.
- On Leo** Horrela nahi baduzu, horrela izango da. Bihar bertan joango gara. Bihar goizeko 9etan etorri sakristiara maita eginda.
- Ama** Bai, horrela egingo dugu. Eguerdian hegazkinean egongo gara.
- (Teloia ixten da logelan eta beste aldetik Muamar eta Esti datoz).*
- Estibalitz** Gustatu zaizu gure herri txiki hau?

- Muamar** Bai. Nahi baduzu, zuretzat erosiko dut. Baina orain esan behar didazu gauza bat, noiz esango diezu zure gurasoei nerekin ezkonduko zarela?
- Estibalitz** Bihar bertan. Baina orain goazen ohera. Zuk Enekoren logelan lo egingo duzu.
- Narratzailea** Denak joaten dira. Eta gauerdian Eneko heltzen da, bere logelara doa baina beteta dago. Horregatik egongelatan geratzen da besaulki batean etzanda.

III. HIRUGARREN EGUNA

(Eneritz egongelara doa eta hor Eneko ikusi gabe makutuan gauzak sartzen jarraitzen du).

- Eneritz** Ordua heldu da. Gauza batzuk prestatu eta gero alde egingo dugu. Etxe honetan bakoitza bere aldetik dabil, eta guri ez digu inork jaramonik egiten. Baina horrek badauka erremedioa, Enekok bezala egingo dugu.

(Enekok dena entzun du).

- Eneko** Nork nahi du nerekin aita-ametan ibiltzea?

- Eneritz** Ala!!! Hori Enekok esaten zidan beti.

(Eneritzek argia pizten du eta Eneko ikusten du besaulkian etzanda).

- Eneko** Ez al didazu musu bat emango?

- Eneritz** Muaa. *(Musu bat ematen dio).*

- Eneko** Oso itxura onekoa zaude, baina... baina ez dakit zergatik esaten dituzun gauza horiek.

- Eneritz** Jooo!!! Etxean inork maite ez gaituenez, zuk bezala egingo dugu ea gutaz ere kezkatzen diren.

- Eneko** Hori lelokeria!!! Ikusiko duzu nola orain denak maiteko zaituztegun.
- Eneritz** Beno ikastolara joango naiz, eta, eguerdira arte!
(Eneko gurasoen logelara doa eta esnatzen ditu).
- Eneko** Ama!!! Aita!!! Kaixo!!! Hemen nago berriro.
- Ama** Eneko!!! Gure Eneko maitea!!! Egia ote da?
- Eneko** Bai ama hemen nago. Egia da.
- Ama** Eta, non egon zara denboraldi honetan?
- Eneko** Orain horrek berdin dio. Inportantea zera da: hemen nagoela, zuekin.
- Aita** Bai, orain hemen zaude, baina zure ihesaren errua amarena izan zen. Beti zenbiltzan gauzak debekatzen.
- Ama** Ez, ez zen nere errua izan, zurea baizik. Dena kontsentitzen zenion eta ez zinen arduratzen berarekin.
- Aita** Ni? Zer diozu? Zorua!!! Hau da sorgina hau!!!
- Ama** Kabroi madarikatua. Sorgina zure ama izango da. *(Borrokatzen).*
(Nikaxia ate atzean entzuten zegoen eta sartu egiten da. Makila batekin ematen dio Doloresi).
- Nikaxia** Ooohhh!!! Zer diozu? Ganorabakoa!!! Eta ez ikutu nere semea!
(Denak oihuka ari dira. Baina Enekok zera dino).
- Eneko** Ixilik!!! *(denak ixiltzen da).* Hau ez da semea errezibitze-ko modua! Inor ez zen erruduna. Zuek beti burrukatzen zeundetelako joan nintzen ni.
(Ama eta aita besarkatzen).

- Biak** Ai!!! Ez ginen konturatzen. Barkaiguzu.
- Eneko** Aspalditik barkatuta zaudete.
- Ama** Barkatu Nikaxia. Orain bizitza berri bat hasiko dugu eta lagun onak izango gara.
- Nikaxia** Ados nago zurekin, emaidazu eskua.
- (Beste egongela batean Esti eta Muamar daude eta Esti gurasoengana doa beraiek ezkondu egingo direla esateko. Sartzera koan, Estik Eneko ikusten du. Eneko irteten ari da eta egongelan hirurok geratzen dira).*
- Estibalitz** Eneko!!! *(musu bat ematen)*. Noiz etorri zara? Non egon zara? Zer egin duzu? Norekin ibili zara?
- Eneko** Itxon, itxon!!! Ezin dut dena batera erantzun. Zer moduz urte hauetan? Polit-polita zaude!!!
- Estibalitz** Eneko, begitu, hau Maumar da, nire lagun bat. Muamar hau Eneko da, nere neba, etxetik bi urtetan alde eginda egon dena.
- Eneko** Zeu zara nere ohean ikusi dudana, ezta?
- Muamar** Bai, asko pozten naiz zu ezagutzeaz!!!
- Estibalitz** Aita, ama, amama,... etorri!! Gauza garrantzitsu bat esan behar dizuet.
- (Denak egongelan bildu dira eta Estik esaten die).*
- Estibalitz** Muamar eta biok bihar bertan ezkonduko gara.
- (Denek batera bla bla bla egiten dute. Txirrina entzuten da. Jasone eta On Leokadio heltzen dira).*
- Ama** On Leokadio, gure seme maitea itzuli da. Alaba bihar ezkonduko zaigu eta nere plan guztiak... aldatu egin ditut.

On Leo *(Aurpegi triste batekin)*. Ulertzen zaitut eta... pozten naiz zuregatik.

Jasone Eneko, ez al zara nitaz gogoratzen? Jasone naiz.

Eneko Bai, ez zaitut inoiz ahaztu.

Ama Orain denok elkarrekin biziko gara eta dena aldatuko da.

Aita Bai, dena aldatuko da.

(Eneritz, Nikanora eta Salbador heltzen dira).

Nikaxia Gauza inportante bat esan behar dizuet. Salbadorrek Nikanorari eta niri irudi bat egingo digu.

Salbador *(Estiri)*. Hori izango da zure ezkontza-oparia.

Ama Genaro maitia. Ekarri txanpaina denontzat.

(Genarok txanpaina ateratzen du).

Eneritz Eneko, farre egin nahi baduzu, adi egon.

(Aterantz abiatzen da eta irekitzen du, txalo bat ematen du eta mairuak dantzan hasten dira).

Eneko Etxe hau bai dela guai!!!



IPOTX-KALEA

Javier Hernando
Jesusen Bihotza ikastetxea
Eibar 1989

PERTSONALIAK

Ipotxak: Ziripotx
Galipotx
Ipotxolo
Ipotxoka
Saltzailea
Gangsterra

(Mahai-ilada baten gainean lau ipotx: elkarren ondoan daude).

(Ipotx guztiak aho zabalka ari dira).

- Ziripotx** Bai egun aspergarria gaurkoa! Inor ez da igaro kale honetatik.
- Galipotx** Bai. Gainera, guk ez dakigu zertaz hitz egin. Lo eta lo egun osoan. Horrela nekatu egiten naiz eta lo berriro. Lo eta lo.
- Ipotxolo** Badakizue zer?
- Guztiak batera** Zer??
- Ipotxolo** Kale hau alaitu behar dugu. Bai horixe! Jaiak antolatu behar ditugu, barrakak ekarri, musika ipini, argi koloretsuak ere, azkariak prestatu...

- Guztiek batera** Geldi, geldi. Baina zer diozu?
- Ipotxolo** Zer? Ideia txarra al da ala? Jende asko etorriko da. Beraiekin elkarrizketa luzeak izango ditugu, barre egin, hau guzti hau...
- Ipotxoka** Hori guzti hori, kale honetan ez da posible, oso txikia bait da.
- Ipotxolo** Gu gara txikiak baina kalea...
- Galipotx** Kalea haundia zuretzat, baina txikia jendearentzat.
- Ziripotx** Zuk, beti bezela, gauzak pentsatu gabe esaten dituzu. Astoa gurdiaren atzean jartzen duzu eta horrela ez da mugitzen. Hitz egin baino lehen pentsatu!
- Ipotxolo** Badakizue zer?
- Guztiek batera** Zer!!
- Ipotxolo** Eguna ez da aspergarria. Zeuek, zeuek zarete aspergarriak.
- Ziripotx** Aspergarriak? (*Guztiei esanez*) Ez! Barregarriak.
- Galipotx** Pozgarriak!
- Ipotxoka** Maitagarriak!
- Ziripotx** Zoragarriak!
- Galipotx** Harrigarriak!
- Ipotxoka** Izugarriak.
- Ipotxolo** (*Eskuak altxatuz*) Aski da! Nahikoa da! Baina... E? Ez al duzue entzuten? Norbait datorrela uste dut.
- Guztiek** Bai, bai. Itxi ditzagun begiak.

- Saltzailea** *(Alde batetik agertzen da ozenki hitz egiten duela)* Ea bada, gaur negozio ederra egiten dudan! Orain arte ez dut boligrafo bat ere saldu. Hau marka! Ene! *(Eskuak igurtziz)* Baina zer dugu hemen? Lau ipotx eder. Orain bai hasiko dela negozioa.
(Haiei zuzenki) Kaixo, kaixo. Nortzuk ditut hemen?
- (Ipotxen aurkezpena azkarra da).*
- Ipotxoka** Hori Ipotxolo da.
- Ziripotx** Hori Ipotxoka.
- Ipotxolo** Hau Galipotx.
- Galipotx** Hori Ziripotx.
- Saltzailea** *(Buelta erdia ematen du zeharo nahasturik aurkezpenagatik nor den nor jakiten saiatzen delarik. Ondoren, alde batera uzten du eta beraiei zuzen).* Ba ni Salerosi saltzailea naiz. Hementxe nauzue. Eta hauxe gagora ezazue: Mundu honetan ez dago nik neuk saldu ezin dudanik. Bai jaunok!
- Saltzailea** Bide batez, nere aurrean zaudetenez, ez al duzue telebista eder bat nahi? Berrogeita bost pulgadaka, koloretakoa, bostehun eta berrogeita hamar kanal hartzeko kapaza, ia ia dohain zuentzat, eta entzun: superkuadrafoniko estereogailuak ditu, eta...
- Guztiak** Ba, ez, ez dugu nahi.
- Galipotx** Hainbeste eta hainbeste ikusi dugularik orain aspertu egin baikara.
- Saltzailea** Ez du inportik. Lasai. Eta irrati bat zer moduz? Munduko emisore guztiak entzun ditzakezue: Suediakoa, Greziakoa, Japonekoa...
- Ipotxolo** Aizu Galipotx, zuk ba al dakizu japonieraz hitz egiten?
- Galipotx** Ez.

- Ipotxolo** Eta zuk Ipotxoka?
- Ipotxoka** Ez.
- Ipotxolo** Eta zuk Ziripotx?
- Ziripotx** Ez.
- Galipotx** Sentitzen dugu baina ez dugu halako irratirik behar, ez baitugu ulertuko.
- Saltzailea** Tira, ba, tira ba. Ez didazue ezetz esango orain, ez horixe! Liburuak, bai, liburuak. Zuek irakurtzen duzue, ezta?
- (Guztiek baiezko keinua egiten dute).*
- Saltzailea** Hor dago koxka! Liburuak behar dituzue. Nik bilduma ederrak ditut hemen: «Txan fantasma», «Patxibusa», «Botila baten istorioa», «Grant kapitainaren semeak»...
- Galipotx** Baina liburu guzti horiek irakurriak ditugu.
- Ipotxolo** Eta askoz ere gehiago.
- Ipotxoka** Bai, pilo bat.
- Ziripotx** Gu aspertuta gaude. Hori da gure koxka. Aizu Salerosi: ba al daukazu aspertasunaren aurkako zer edo zer saltzeko? Hori da guz behar duguna.
- Saltzailea** *(Zalantzan)* Aspertasunaren aurkakoa...? Ba, momentu honetan... Arranopola! Harrapatu nauzue. Baina egon lasai. Aurkitu bezain laster ekarriko dizut eta akabo aspertasuna. Zerbaiten bila noa. Gero arte.
- Guztiek** Gero arte.
- Ziripotx** Lan ederra hartu du horrek. Mundu osoan zehar ibili arren... ez du aurkituko.
- (Isiltasuna).*

- Galipotx** Enpin! Hementxe gaude berriro.
- Ipotxolo** Ez gara mugitu hemendik ba.
(*Ahozabalka, banaka hasiz eta jarraian*).
- Gangsterra** (*Alde batetik agertzen da. Ihesari emanetz, alde guztietara
erne begira. Ondoren lasaitzen da eta arnasa botatzen
du*) Uf! Ordua zen. Goiz osoa polizia nere atzetik ibili
da, baina nik ederki nahastu ditut (*Horren keinua egiten
duen bitartean*), zis-zas.
Beno, beno. Eta non nago ni? Zein kale da hau? Seku-
lan ez naiz hemen egon; ez.
- Ipotxolo** (*Begiak irekiz*) Ongi etorria. (*Beste ipotxek begiak zabal-
tzen dituzte*).
- Gangsterra** Zer? Nork esan du hori? Non zaude? (*Ipotxak harrituta
daude*) Inork nahi al du gorputza zuloz betetzea? Hala
dirudi. Nork esan du hori?
- Ipotxolo** (*Dardaka mintzatuz*) Nik. Baina intentzio onez esan di-
zut, benetan.
- Gangsterra** Benetan? Ongi etorri naizela! Ba ez. Korrika eta azkar
etorria naiz eta ez ongi. Beno, beno. Sudurrean ematen
dit txantxetan zabilzatela eta (*oihuka*) inork ez du ni-
taz farrik egiten! Askoz gutxiagogatik akabatu dut jen-
dea nik. Gainera, pentsatzen hasia naiz zuek guztiok
garbituko ote zaituztedan.
Ni «El Cupone» gangsterra naiz. Nortzu zarete zuek?

(*Ipotxak dardarka eta azkar erantzunez*).
- Ipotxoka** Hori Ipotxolo da.
- Ziripotx** Hori Ipotxoka.
- Ipotxolo** Hau Galipotx.
- Galipotx** Hori Ziripotx.

- Gangsterra** *(Buelta erdia ematen du eta saltzaile bezala dago).*
(Ondoren beraiei begira) Zera... berdin da. Hara zer itxura duzuen, barregarriak benetan *(farrez)*.
- Ipotxolo** *(Arpegi alaiaz)* Bai, hori bai. Oso barregarriak gara. Nola asmatu duzu bada?
- Gangsterra** *(Haserretuta eta oihuka)* Zer? Nola ausartzen zara? *(pistolaz berari destatuz)* Nork eman dizu hitz egiteko baimena? Badakizu zer? Ez zait batere gustatzen zure aurpegia *(ipotxa dardarka)*. Bizitza salbatu nahi baduzu, farre egin arazi beharko didazu edo bestela... *(Hatzamar lodia behera seinalatuz)*.
- (Ipotxolok aurpegia, eskuak eta zangoak arabiltzen ditu keinuak egiteko).*
- Gangsterra** Ja, ja, ja. Bai barregarria zarela. Ja, ja, ja. Sekulan ez dut halakorik ikusi.
- (Beste ipotxak txalotzen hasten dira, Ipotxolok eskertzen duelarik).*
- Gangsterra** Isilik! Nork esan dizue txalo egiteko? Ez al zarete beldur ala?
- Ipotxek** Baii!
- Gangsterra** Kontuz ibili gero nerekin. Ni «El Cupone» gangsterra naiz, munduko gangsterrik beldurgarriena.
- Ziripotx** Orduan, nola moldatzen zara lagunekin?
- Gangsterra** Nik ez dut lagunik. Guztiek beldurra didate eta ez dira ausartzen nere lagun izaten. Ja!
- Galipotx** Beraz, inoiz ez duzu lagunik eduki? Bakarrik egon al zara beti?
- Gangsterra** *(Lasaiago eta piskat goibelduta)* Ez, beti ez. Txikitan lagun asko izan nituen, beti jolasean nenbilen, oso alai nintzen. Baina egun batean gaiztakeriak egiten hasi

nintzen, maltzurra bihurtu; eta orduan lagunek alde batera utzi ninduten. Ordudanik, beti ibili naiz iheska alde batetik bestera, beti bakarrik. Jendeari beldurra ematen diot eta ihes egiten dute nigandik. Beti horrela. Baina orain ez dut horri buruz pentsatzeko astirik. Alde egin behar dut, iheska nabil eta. Zuek, hementxe egon naizela esaten baduzue... (*destatuz*) Kotxe bat behar dut hemendik urrutira joateko, bestela akabo.

Saltzailea

(*Sartzen da*) Kotxe bat? Kotxe bat? Zeinek behar du kotxe bat, zuk? Kaixo! Salerosi saltzailea naiz eta pozten nau zu ezagutzeak. Begira, mota askotako kotxeak ditut (*gangsterra harrituta dago*): handiak, txikiak, ero-soak, azkarrak. Adibidez: badaukat bat saltzeko prest, ezin hobe, paregabea. Turboinjection eta guzti, orduko zerotik ehun kilometrotara 3,5 segundutan, 400 zaldiko potentzia, korritu baino gehiago hegaz egiten du ia ia. Den-dena automatikoa da, gidaria etxean gera daitenke. Eta prezioa? Esateak ere lotsa ematen dit. Hogei milioi, aizu!

Gangsterra

(*Ipotxei begira*) Baina hau zer da?

Saltzailea

Hau ez da ezer. Hogei milioi... Poliki-poliki, epetan ordaintzen da. Ia dohain, aizu!

Gangsterra

Ba, erosi zeuk.

Saltzailea

Karnetik ez daukat baina!

Gangsterra

(*Haserretuta*) Nahikoa da. Ni «El Cupone» gangsterra naiz eta...

Saltzailea

(*Eskua emanaz*) Pozten naiz «El Cupone» jauna.

Gangsterra

Hago isilik edo garbituko haut.

Saltzailea

Garbitu? Gaur goizean dutxatu naiz eta hortzak ere garbitu ditut. Zure hortzak zer moduz daude? (*hortzei begira*) O! Ez, ez, ez. Garbitu gabe. Hemen badituzte hortxoentzako pastak, hortzoreak, eta mota askotakoak gainera: mentazkoak, marrubizkoak... Oso merke.

Ziripotx Aizu, Salerosi! (*isiltasuna*) Laguntasunaren aldeko zer edo zer ba al daukazu gangster honi saltzeko?

Saltzailea Mila deabru! Ba... ez. Berriz ere harrapatu nauzue. Ea bada, zerbait aurkitzen dudan non edo non.

(Biok joaten dira: saltzailea eta gangsterra).

Galipotx Gauza txarra da iheska ibiltzea, ezta?

Ipotxolo Bai. Ez da harritzekoa «El Cupone» hori bakarrik ego-
tea, ez.

Ipotxoka Alaiagoak izan behar dugu hobeto bizitzeko, ezta? Mu-
sika pixka bat jarriko dut ea animatzen garen.

(Musika hasten da eta ipotxak dantzan eskuak, zangoak eta burua erabiliz.

Musika amaitutakoan ipotxak animatuagoak daude eta saltzailea sartzen da).

Saltzailea Ezin izan dut ezer aurkitu. Hau desastrea, ez naiz sal-
tzaile ona.

Ziripotx Ez jauna, ez. Guk eskatu dizkizugun gauzak ez dira eros-
ten ez eta saldu ere. Guztiok dauzkagu hori gure barnean
eta atera egin behar! Hori da guztia.

(Musika hasten da, ipotxak dantzan beriro eta teloia ixten da).

AMAIERA

IPOTXAREN ETXEA

**Ikasleek Anselmo Vegaren ardurapean egokitua
(M. Dolors Flamerich-en idean oinarriturik)**

**Herri ikastetxea
Angiozar 1990**

PERTSONAIAK

Narratzailea
Ipotxa
Mariona
Aizkolaria
Haizemari
Hodeimari
Eguzkia
Amandrea

Narratzailea Hau pakea gaur basoan! Egia esanda, baso hau oso paketsua da. Hemengo biztanleak oso ongi konpontzen dira, beti ez noski, leku guztietan istiluak sortzen dira, baina orain gogoratzen naiz... hemen gertatu zen istilua ez zen txikia izan. Egoera gogorretik pasatu ziren denak.
Gertatu zena orain dela urte asko pasatu zen. Baina ikusi, ikusi...

(Musika).

Ipotxa La, la, la! Bai egun polita! Banoa erre kara ur bila.

(Musika).

Egun on, Mariona! ...Mariona, non zaude?

Mariona Hemen nago, Ipotxa.

- Ipotxa** Egun on, Mariona.
- Mariona** Baita zuri ere!
- Ipotxa** Zer moduz egin duzu lo?
- Mariona** Oso ongi, eta zuk?
- Ipotxa** Ongi nik ere!
- Mariona** Nora zoaz?
- Ipotxa** Ur bila.
- Mariona** Zer moduz dago gaur ura?
- Ipotxa** Oso garbia.
- Mariona** Agur Ipotxa!
- Ipotxa** Agur Mariona.
- (Musika).*
- Aizkolaria** Uaaag! A zer eguraldi ona egiten duen gaur! Egun aproposa egur bila joateko. Aizkora prestatu eta banoa.
- (Musika).*
(Prestatzen).
- Aurten ez dut gauza handirik topatzen eta datorren neguan hotza pasatuko dut.
- Zuhaitz handi bat moztuko banu negu osorako egurra izango nuke.
Hau nahiko handia da baina handiagoa bilatuko dut.
Hau handiagoa da baina aurrerago jarraituko dut.
Hau oso handia da, hau bai gustatzen zaidala.
Honekin negu osorako edukiko dut.
Hauxe moztuko dut.
- Ipotxa** Eeee? Zer pasatzen da hemen? Aizkolaria! Zertan zabilta nere etxea apurtzen?

Aizkolaria Zure etxea?

Ipotxa Ez al dakizu hemen bizi naizela?

Aizkolaria Eta neri zer inporta zait? Isil zaitez! Ipotx hori!

Ipotxa Joan berehala hemendik!

Aizkolaria Ez, ez, ni ez naiz hemendik joango.

Ipotxa Joateko esan dizut!

Aizkolaria Isildu zaitez, bestela lepoa moztuko dizut.

Ipotxa Zer egingo dut orain? Aaaa! Marionari deituko diot eta hau ez da horrela geratuko.
Mariona! Mariona!

Mariona Zer nahi duzu, Ipotxa?

Ipotxa Aizkolariak nere etxea apurtu nahi du.

Mariona Bai? Zer egin? Haizemari deituko diogu.

Biak batera Haizemari! Haizemari!

(Musika).

Haizemari Zer nahi duzue?

Mariona Begira, aizkolariak Ipotxaren zuhaitza moztu nahi du.

Haizemari Ba nik haize bolada bat botako diot.

Mariona Azkar, bestela nere etxea apurtuko du.

(Musika).

Aizkolaria Aiii! Hau haizearen indarra!
Horrela ezin dut zuhaitzik moztu.
Hobeto izango dut etxera joatea.
Haize honekin ezin da aguantatu.

- Denak** Oleee! Ongi! Lortu dugu. Etxera joan da!
- Ipotxa** Eskerrik asko etortzeagatik, Haizemari!
- Haizemari** Berriro behar baduzue, deitu. Berehala etorriko naiz.
- Mariona** Agur ipotxa.
- Ipotxa** Agur Mariona.
Haizea egin duenez, banoa fruituak bilatzera.
(Musika).
- Aizkolaria** Ipotxa joan da eta orain ez dago haizerik.
Banoa zuhaitza moztera.
Jem! Hementxe dago.
- Ipotxa** Zer de zarata hori? O! Banoa nere etxea ikustera.
Aizkolaria!
Zertan zabilta nere etxea apurtzen?
- Aizkolaria** Isil zaitez! Zuhaitz hau moztu behar dut egurra egiteko.
- Ipotxa** Hau horrela ez da geratuko. Mariona! Mariona!
- Mariona** Zer?
- Ipotxa** Berriro aizkolaria nere etxea apurtzen dabilela.
- Mariona** Ba, Hodeimariri deituko diogu.
Hodeimari! Hodeimari!
(Musika).
- Hodeimari** Zer nahi duzue?
- Mariona** Begira, aizkolaria Ipotxaren etxea apurtu nahi du.
- Haizemari** Txaparrada galanta botako diot.
- Ipotxa** Azkar, bestela nere etxea apurtuko du.

(Musika).

Aizkolaria Euria hasi da! Baina euri tanta batzuk besterik ez dira. Txaparrada honekin ezin dut zuhaitza moztu. Hobe izango dut etxera joatea.

Denak batera Oleee! Ongi, Lortu dutu! Aizkolaria joan egin da!

Ipotxa Eskerrik asko etortzeagatik, Hodeimari.

Hodeimari Berriro behar banauzue, deitu. Berehala etorriko naiz.

Mariona Agur.

Ipotxa Agur.
Hodeimarik euria bota duenez, perretxikoak hazita egongo dira. Banoa biltzera.

(Musika).

Aizkolaria Azkenean atertu du eta gainera Ipotxa ez dago hemen. Zuhaitza moztera joango naiz.
Baina orain ez naute harrapatuko. Euritakoa, txamarra eta bufanda hartuko ditut.
Euria egiten badu ere, ez naiz bustiko.

(Musika).

Ipotxa Baina zer entzuten dut? Berriro aizkolaria nere etxea apurtzen.
Mariona! Mariona!

Mariona Zer pasatzen da, Ipotxa?

Ipotxa Zer pasatuko da ba? Aizkolaria berriro nere etxea apurtzen dabilela.

Mariona Eguzkiari deituko digou.
Eguzki! Eguzki!

(Musika).

- Eguzkia** Zer nahi duzue?
- Mariona** Begira, aizkolariak ipotxaren etxea apurtu nahi du.
- Ipotxa** Azkar, bestela nere etxea apurtuko du.
- Eguzkia** Nere izpiez berotuko dut.
- Aizkolaria** Zer bero egiten duen! Txamarra kendu beharko dut. Ezin dut aguantatu. Jertsea kendu behar dut. Horrela ezin dut zuhaitzik moztu. Hobe izango dut etxera joatea. Etxera joango naiz, bestela hemen jo ta erre egingo naiz.
- Denak batera** Oleee! Ongi! Lortu dugu! Etxera joan da.
- Ipotxa** Eskerrik asko etortzeagatik, Eguzki!
- Eguzkia** Behar baduzue, berriro deitu. Berehala etorriko naiz.
- Mariona** Agur.
- Ipotxa** Agur.
- Eguzkiak berotu duenez dena lehor egongo da. Egurra ekartzera joango naiz.
- (Musika).*
- Aizkolaria** Ipotxa berriro joan da. Hauxe da nerea, gaur zuhaitza bota behar dut.
- (Musika).*
- Ipotxa** Berriro aizkolaria nere etxea apurtzen? Mariona! Mariona!
- Mariona** Zer pasatzen da?
- Ipotxa** Betikoa, aizkolaria nere etxea apurtzen dabilela.
- Mariona** Elurretako amandreari deituko diogu. Elurretako Amandrea! Elurretako Amandrea!

(Musika).

Amandrea Zer nahi duzue?

Mariona Begira, aizkolariak Ipotxaren etxea apurtu nahi du.

Ipotxa Azkar, bestela nere etxea apurtuko du.

Amandrea Nere mantua astinduko dut eta elurrez hoztuko da.

Aizkolaria Hotz egiten du benetan!
Hobe izango dut etxera joatea.
Baina ez naiz joango, zuhaitza mozten berotuko naiz.

(Zarata handi bat).

(Zuhaitza botatzean musika gelditzen da. Denak geldi eta Ipotxa Negarrez).

Ipotxa Aiii! Nere etxea!

Aizkolaria Iupiii! Lortu dut! Orain bai ondo!
Oraintxe noa mozkorra harrapatzera.

(Musika).

Mariona Haizemari, Hodeimari, Eguzki, Elurretako Amandrea etor zaitezte, bilera bat egin behar dugu.

Ipotxa Zer egingo dugu orain?

Haizemari Haize bolada botako dut aizkolariaren etxea apurtu arte.

Mariona Baina hori egiten baduzu, basoko zuhaitzak ere apurtuko dituzu.

Hodeimari Nik txaparrada handi bat botako dut aizkolariaren etxea itsasoraino eraman arte.

Mariona Baina hori egiten baduzu, basoko animaliak ere ito egingo dira.

- Eguzkia** Nik nere izpiez aizkolariaren etxea erreko dut.
- Mariona** Baina hori egiten baduzu, basoa ere erreko da.
- Amandrea** Zegatik ez duzu magia egiten aizkolariaren etxea desagertarazteko?
- Mariona** Ederki! Baina zuen laguntza behar dut.
Denon artean egingo dugu.
- Denak batera** Klin, klan, klon etxea desagertuko!
(Etxea desagertzen da).
- Aizkolaria** Ieeeepa!
Zelako mozkorra harrapatu dudan.
Iep! Nere etxea ere ez dut ikusten.
Errekan garbituko dut aurpegia.
Uuuuf! Bai hotza!
Nere etxea ez dago hemen.
Aiba! Desagertu egin da.
Marionari deituko diot.
Mariona! Mariona!
- Mariona** Zer pasatzen da?
- Aizkolaria** Nere etxea desagertu da.
- Mariona** Zuk ipotxaren etxea apurtu duzu eta guk zure etxea desagertarazi dugu.
- Aizkolaria** Zer egingo dut orain?
- Mariona** Zure etxea nahi baduzu beste etxe berri bat egin behar diozu ipotxari.
(Musika).
- Aizkolaria** Perretxiko horretan egingo dut.
Mariona! Ipotxa! etorri!
- Mariona** Zer nahi duzu?

- Aizkolaria** Begira nolako etxea egin dudan.
Gustatzen al zaizu, Ipotxa?
- Ipotxa** Bai, oso polita da.
- Aizkolaria** Zuretzat da.
Eta barkatu zure etxea apurtzeagatik.
- Ipotxa** Hemendik aurrera perretxikoan biziko naiz.
Mariona, makila majikoaz agertarazi ezazu aizkolariaren etxea.
- Mariona** Hiruren artean egingo dugu.
- Denak batera** Klin, klan, klon etxea agertuko!
- Narratzailea** Eta... esaten omen da handik aurrera ipotxak perretxi-koetan bizi direla. Perretxikoen bila baldin bazoazte begiratu barrura, ea ipotxen bat ba ote dagoen.

ITSASMINEZ

Yolanda Urzelaik egokitua
(Ipurbeltz saileko izen
bereko komikian oinarrituta)
Zubi Zahar ikastola
Ondarroa 1990

PERTSONAIAK

Narratzailea	4. arraina
Ama	5. arraina
Argi	Olagarroa
Koro bat	Ilargia
1. arraina	1. lainoa
2. arraina	2. lainoa
3. arraina	Osaba Joxe

I. AGERRALDIA

Narratzailea	Ez, ez dut hemendik itsasoa ikusten, baina badakit hor nonbait dagoela. Haundi-haundia; urdin-urdina... berdea... ederra!!! Ba, ez pentsa! Hori horrela ez izateko arriskuan egon gara. Bai, bai... itsasoa arriskuan... Beno, zer gertatu zen jakin nahi duzue? Bai? Ikus ezazue antzerki hau!
Ama	Argi! Begira zer opari bidali dizun osaba Joxek!
Argi	Osaba Joxek?
Ama	Bai, itsasuntziak konpontzeaz gainera ur azpiko biztanle denak ezagun eta lagun dituen zure osaba Joxek!
Koroa	«Ur azpian, ur azpian egoten da gizon bat

ur azpian lan egiten
Joxe da bere izena.
Arrainak ditu lagunak
piratak ezagunak
bere bizitza osoa
itsaso barrenean».

Argi Aiba! Soinu bitxi bat entzuten da! Zer da? Badakit!...
Itsasoaren soinua. Baina hemen ez dago itsasorik. Nola
liteke.

Ama Hau itsas karakola bat da. Belarrian jartzen baduzu,
itsasoaren berri emango dizu.

Narratzailea Eta horrela egunero-egunero Argik ohera sartu aurre-
tik, karakola hartu eta beti galdera bera egiten zion.

Karakola, zer dio itsasoak?

Hasieran karakolaren erantzunak oso alaiak ziren.
Arrainen bizimodua nolakoa zen, eta itsasoaren hon-
doan gertaturiko mila gauza kontatzen zizkion.

Urte osoa pasa zen. Karakolaren berriak aldatuz joan
ziren. Ez ziren lehen bezain politak. Haren soinua ere
ez zen lehen bezain alaiak.

Argi Karakola, zer dio itsasoak?

Narratzailea Eta itsasoak honela erantzun zion: «Itsasoan zerbait
gertatzen da».

Argi Itsasora joan behar dut zer gertatzen den jakitera.
Joan behar dut, joan behar dut...

II. AGERRALDIA

Argi Hara...! Itsasoaren azpian nago...! Baina zein arraroa
dagoen itsasoa!

Eh! Arrainak! Zerbait gertatzen al zaizue?

1. arraina Utz nazazu pakean!

2. arraina Oso kezkatua nabil!

- 3. arraina** Pulpez olagarroak daki!
- 4. arraina** Joan eta galdetu!
- 5. arraina** Joan eta galdetu!!!
- 1. arraina** Eta itsasoa mugimendurik gabe gelditzen bada?
- 2. arraina** Akabo itsasoko bizitza!!!
- 3. arraina** Akabo itsasoko bizitza! Itsas izarrak hil egingo dira!
- 4. arraina** Eta olaturik gabe geldituko gara. Zerbait egin behar dugu!
- 5. arraina** Pulpez olagarroak jakingo du. Goazen berarengana!
- Arrain guztiak batera** Pulpez olagarroa esnatu.
- 2. arraina** Oso kezkatuak gabilta!
- 4. arraina** Itsasoa indarrik gabe gelditzen ari da!
- Olagarroa** Zer gertatzen da hemen?
Esnatu egin nauzue!!
- 1. arraina** Horixe nahi genuen!
- 2. arraina** Olaturik ez dago!
- 3. arraina** Oso kezkatuta gaude!
- 4. arraina** Itsasoa indarrik gabe gelditzen ari da!
- 5. arraina** Oso kezkatuta gaude!
- Olagarroa** Isilik...! Zaudete isilik! Pentsatu egin behar dut...
- 1. arraina** Bai, bai, isilduko gara!
- 2. arraina** Itsasoa indarrik gabe gelditzen ari da?

- 3. arraina** Ez dago olaturik!
- 4. arraina** EZ DAGO OLATURIK!!
- Arrainak** ISILDUKO AL GARA?
- Olagarroa** Beno, nire iritzia emango dizuet. Jakin behar duzue, ilargiak betidanik guretzat lan egin duela. Berari esker mugitzen da itsasoa, alde betetik bestera. Eta mugitzen ez bada...! Ilargia gurekin haserre dagoela esan nahi du. Berarekin hitz egitera joan behar dugu.
- 2. arraina** Eta nola joango gara?
- 1. arraina** Itsasotik ateratzen bagara hil egingo gara...
- 3. arraina** Arnasarik gabe geldituko gara!
- Olagarroa** Eh! eh! eh! Eta hori zein da? Eta nola etorri da honaino?
- Argi** Ni Argi naiz. Nere osaba Joxek emandako karakolak ekarri nau.
- Olagarroa** Oso ondo... Zu zeu joango zara ilargiarekin hitz egitera.
- Argi** Baina ni...
- 1. arraina** Mesedez... oso kezkatuta gaude!
- 2. arraina** Itsasoa indarririk gabe gelditzen ari da.
- Narratzailea** Eta berriro Argik soinu haundi ikaragarri bat entzun zuen.

3. AGERRALDIA

Narratzailea *(Eta bapatean zelai batean aurkitu zen. Hain nekatuta zegoenez, loak hartu zuen.*

Halako batean ilargi bete-betea agertu zen.

- Ilargia** Begiratu zein dagoen hor. Ummm! Uste dut nerekin hitzegitera etorri dela. Baina nik... ez dut berarekin hitz egin nahi.
- Bai, neska hau bidali dute nerekin hitz egitera... ba... izkutatu egingo naiz. Eh! Lainoak! Zatozte!
- 1. lainoa** Bai goazen, estali dazagun ilargia.
- 2. lainoa** Estali ditzagun izarrak, estali dezagun dena!
- 3. lainoa** Estali dena!
- Ilargia** Haserre nago eta ez noa gehiago lanik egitera. Hor konpon!!
- Argi** Badakit hor zaudela!
- Ilargia** Bai, baina oso haserre!
- 1. lainoa** Bai, oso haserre dago ilargia.
- 2. lainoa** Bai, den-denok gaude oso haserre.
- Argi** Hau pena!... ilargiarekin hitz egitera etorri naiz eta ez dago. Itsasoan gelditu diren lagunak kezkatuta egongo dira. Eh! Ilargi! Atera! Irten!
- Itsasoko lagunak bidali naute zurekin hitz egitera. Oso kezkatuta gaude...
- Ilargia** Ba NI HASERRE!!
- Argi** Zergatik?
- Ilargia** Inork ez duelako nire lana behar den bezela miresten eta lan gehiago ez egitea pentsatu dut.
- Argi** Hori ez da egia. Maite zaitugu ilargi!
- Ilargia** Maite nauzela? Eta zergatik hondatzen duzue nik hain ondo zaintzen dudan itsasoa? Itsasoa gero eta zikinago dago.

Ez zarete konturatzen itsasoan ere bizitza dagoela, bizitza zoragarria dagoela? Zer dela eta zikintzen duzue itsasoa? Zergatik ez gaituzue maite, zuen lagunak maite dituzuen bezela?

Argi

Arrazoi duzu! Gaurtik aurrera ahaleginduko gara itsasoa garbi mantentzen eta horrela maite zaitugula adieraziko dizugu.

Korrea

Maite zaitut
maite zaitut
nere laguna zara
ilargi!
Maite zaitugu
maite zaitugu
gure laguna zara...

Ilargia

Ba... ba... kanta batekin ez nauzu konbentzituko. Fro-gatzat, asko maite duzun zerbait eman behar didazu...

Argi

Nik asko maite dudan zerbait?... Eta zer da hori?...

Ilargia

Zuk jakingo duzu... Ni banoa... eguzkia dator eta...

Argi

Nik asko maite dudana eman behar diot... Zer izango ote da?... Nere lagunengana jona behar dut...

Goazen karakola!!

4. AGERRALDIA

Narratzailea

Eta berriz karakolarekin batera, itsasora iritsi zen. Han Pulpez olagarroa, sardinak, itsas-izarrak eta lagun guz-tiak itxoiten ari ziren.

Olagarroa

Ongi etorri Argi!

1. arraina

Ilargiarekin egon al zara?

2. arraina

Oso kezkatuik gaude!

- 3. arraina** Itsasoa indarrik gabe gelditzen ari da.
- Argi** Bai, ilargiarekin egon naiz. Egia da haserre dagoela. Pentsatzen du, inork ez duela berak egindako lana estimatzen eta triste dago.
- 1. arraina** Ba guk maite dugu!
- 2. arraina** Berak egindako lana miresten dugu!
- Olagarroa** Kanta bat abestuko diogu.
- Argi** Alperrik zabilzate. Nik gauza bera egin dut eta...
- 3. arraina** Eta zer?
- 4. arraina** Gu kezkatuta gaude...
- Argi** Frogatzat nik asko maite dudan gauza bat eman behar diodala esan dit. Baina egia esan, ez dakit zer den.
- Olagarroa** Ba nik bai. Zure karakola.
- Argi** Nere karakola? Osaba Joxeren opari bat da... eta asko maite dut...
- 5. arraina** Bai, emaiozu.
- Olagarroa** Horrela... gainera, ilargiak zure karakola eduki ondoren, itsasoaren berri izango du eta horrela guk maite dugula jakingo du.
- Arrain guztiak** E-M-A-I-O-Z-U.
- Argi** Nere karakola?
- 5. arraina** Oso kezkatuak gaude!
- Argi** Beno... ederki! Ilargi!... Hona hemen zuretzat nere karakola...

Narratzailea Hitz horiek esan ondoren, karakola indar batez bultzaturik gorantz joan zen eta aldi berean itsasoak kolore berde, urdin, morea, bereganatu zuen berriro, eta olatuak arrainekin jolasten has ziren.

5. AGERRALDIA

Arrain guztiak batera Gora, gora gure Argitxo! Itsasoak indarra bereganatu du berriro.

Olagarroa Ez gaude kezkatu... Festa bat egingo dugu.

Narratzailea Eta festa eta algara hartan zebilela, Argi gauza batez gogoratu zen.

Argi Aiba! Karakolarik gabe gelditu naiz. Nola aterako naiz hemendik?

1. arraina Ez larritu... Gurekin gelditu!

Beste arrainak Hori, hori gurekin geltidu!

Argi Ez, ez, nik etxera joan behar dut. Osaba Joxek jakingo balu...

Olagarroa Zure osaba Joxe!... Ummm... Nik uste dut ezagutzen dudala.

Argi Beharbada. Isas hondoan egiten du lana. Itsaspekaria da... Buzoa...

Arrain guztiak batera Joxe Jauna? Itsasuntziak konpontzen dituen?
Hain jatorra den hori?
Jantzi dotore batekin ibiltzen den hori?
Ez dugu ba ezagutuko?
Eta badakigu non dagoen ere!

Argi Eraman nazazue mesedez!...

- Narratzailea** Eta arrain berritsu horiek osaba Joxerengana eraman zuten.
- Han ari zen, beti bezala, lanean.
- Harrituta gelditu zen Argi ikusi zuenean.
- Osaba Joxe** Zer zabilta hemen?
- Argi** Argik gertatutakoa kontatu zion.
- Narratzailea** Eta osaba Joxek bere lana utziz. Argi hartu... eta bere etxera eraman zuen.
- Argi** (*Bidean*) Osaba... Eskerrik asko.
- Narratzailea** Hainbeste gorabeheratan ibili ondoren, Argi guztiz nekatuta joan zen ohera...
- Eta badakizue zer aurkitu zuen almohada azpian?
 Bai... asmatu duzue!... Osaba Joxek utzitako karakola berri bat!

IURRETONEKO MADARIKAZIOA

Joxe Martin Urrutia
Kurutziaga ikastola
Durango 1989

PERTSONALIAK

Trinitron	Patxi
Muskurutxu	Ama (Elena)
Bartolo	Punta
Basajaun	Elektrikus
Lamia	Superman
Hodei	

1. ESZENA

(Argiak itzalita daude eta iluntasuna dugu jaun eta jabe. Piskanaka haizearen zarata entzuten da. Haize normal bat dirudi baina gero eta indartsuagoa egiten da eta ekaitz baten aurkezpena ematen du. Itxurak ematen zuen bezala, ekaitza hasten da, izugarrizko tximista eta trumoiekin. Ekaitzaren erdian bi pertsonaia azaltzen dira jende artean: lehenengoa altua eta tunika beltz batekin, esku batean izugarrizko makila duelarik; bigarrena, txikiagoa, makurtuta doa eskuetan kaxa handi bat estalirik daramala.

Jende artean, erdi inguruan gutxi gora behera kokatzen dira, ekaitz izugarri honek jarraitzen duen bitartean. Lehenengo pertsonaia, poliki-poliki, bere aurpegia erakusten du parreak egiten dituen bitartean)

Trinitron

Kaixo!! ja, ja, ja, gizakumeok! Zuek nere zerbitzariok! Trinitron magoaren menpean zaudete, eta gutxi falta

da zuen lana bukatzeko. Nere makina famatuaren bidez eta zuen lanari esker, laister, munduaren jaun eta jabe izango naiz!!! ja, ja, ja... Muskurutxu!! Altxa ezazu gure makina famatua, asmatu dugun gauzarik, ederrena, politena, zoragarriena...

Muskurutxu

Aspergarriena!!

Trinitron

Isil zaitez, bestela marrazki bizidun bihurtuko zaitut!!!

Muskurutxu

Barka nazazu jaun adoretua, baina ordua da.

Trinitron

Egia duk. Urtero bezala, eta urte asko dira horrela. Momentu gutxi barru, batzarra egingo dute, baina ja, ja, ja, zuen aurrean esaten dut, nere zerbitzari maiteok, hau, euren azken batzarra izango dela, ja, ja, ja...

(Barre algara batean, eta ekaitzak jo ta ke jarraitzen duen bitartean, pertsonaia bi hauek desagertzen dira. Tximista eta trumoiaren zarata artean, beste pertsonaia bat agertzen da eszenatokian, papel mordo batekin eta izugarrizko luma bat duelarik).

2. ESZENA

Bartolo

Errekoño, mila tximista eta arraio, hau duk ekaitza, beti bezala Hodeiri eguna ahaztu egin zaio, eta eguraldi ona bidali beharrean batzarra egiteko txarra bidali du. Buru haundia bai, baina zertarako.

(Eszenatokian jartzen da itxaroten, eta ordulari antzeko bat ateratzen du).

Bartolo

Beti bezala, beti berandu... eta hori, gainera jainkoak direla, bestela...

(Ekaitza piskanaka atertzen doa, eta honen ordez, izugarrizko pausoak entzuten dira, flauta eta basoko musikaz nahastaturik. Bartolo berehala altxatzen da. Eta eszenatokiko alde batera mugitzen da. Birrikak ongi betetzen ditu eta...).

- Bartolo** Urteko Batzar Nagusiko Basajaun jainkoa! Baso guzti edo eta... ia guztien jaun eta jabe.
- (Bartolok alde batera seinalatzen du eta justu beste alde-tik Basajaun agertzen da).*
- Basajaun** Piu... *(txistua)*. Bartolo, hemen nago, zahartzen ari haiz Bartolo, jo, jo, jo. Beti bezala lehenengo heldu naiz.
- Bartolo** Barkatu, jauna, bigarren.
- Basajaun** Belarria galdu duk, baina, mingaina ez, jo, jo, jo.
- Bartolo** Ji, ji, zuk ere ez umorea, ji, ji. ji.
- (Biak solasean dauden bitartean, urarekin loturik dagoen musika bat entzuten da, eta berriro ere Bartolo eszenatoko alde batera mugitzen da).*
- Bartolo** Urteko Batzar Nagusiko Lamia, erreka, iturri, putzu guzti edo ia guztien andere.
- (Lamia sartzerakoan, lehenengo Bartolok burua jaisten du erreberentzia bat eginaz, eta eskutik hartuz Basajaunarengana eramaten du, Basajaunaren ondoan dagoenean honek eskuan musu bat ematen dio).*
- Lamia** Aaa... Oraingo orraziak ez dira lehen bezalakoak, ordu erdi bat gehiago behar izan dut orrazteko! aa!
- Basajaun** Ez kezkatu, maitea, beti bezain ederra zaude oraindik. Ezta Bartolo?
- Bartolo** Egia da, eta ez hori bakarrik, inoiz baino politagoa ikusten zaitut!!
- Lamia** Ooh, benetan zoragarriak zarete!
- (Hirurak bildurik daudela, haize zarata entzuten da musika aereo batekin nahasturik. Berriro ere Bartolo abiatuko da eszenatoko izkina batera).*

- Bartolo** Urteko Batzar Nagusiko Hodei jainkoa, aire, laino, tximista, trumoi eta sirimiri guztien edo ia guztien jaun eta jabe.
- Hodei** Barka nazazue lagun maiteok berandu heltzeagatik, baina badakizue burua haizez beterik dut, eta gauzak ahaztu egiten zaizkit.
- Bartolo** Beno, beno... lasai zaitetz, ez du garrantzi haundirik, bestalde, gehiegizkoa izan da aurretik bidali duzun ekaitza, jode, ia ipurdiak erretzen dizkiguzu.
- Hodei** Nola ausartzen zara honela hitzegiten jainko bati! Lotsagabea halakoa!
- Lamia** Hori, hori, lotsagabea, oso mingain arina duzu.
- Basajaun** Jo, jo, jo... utzi itzazue lelokeriak eta has dezagun batzarra, gauza garrantzitsuagoak egiteko baditugu eta Bartolo! Hasi batzarrarekin.
- Bartolo** Ejen, ezen... Urtero bezala, eta ez dakit zenbat urte-tan... (*Hirurek begi txarrez begiratzen diote*), asko uste dut, urteko batzarra ospatzera goaz, urteko gaiak eztabaidatzeko. Basajaun, zuk duzu hitza... eta mesedez bokaliza ezazu ondo bestela gaizki jasoko dut akta.
- Basajaun** Grrr, egunen batean mingaina moztuko dizut!... Lagun maiteok egoera hau jasan ezina dut, berriro ere, seme-alaba ugari galdu ditut eta honela jarraitzen badugu hau nere azkenengo batzarra izango da, ez bait dut tokirik basoetan bizi izateko.
Astean zehar, gizon indartsu batzuk izugarritzko makina batzuekin milaka zuhaitz botatzen dituzte, eta igandee-tan, dirudienez jai hartzen dutenean, baso guztia, paper, lata eta zikinkeriaz betetzen dute. Eta hau ez da txarrena!
Urtero bezala ehiztariak azaltzen dira suzko makilekin eta ditudan senide eta lagunak txikitu egiten dituzte. Honek ezin du honela jarraitu.
(Basajauna, buru makur gelditzen da).

- Bartolo** Lasai zaitetz, konpobideren bat topatuko dugu. Orain zure txanda da, madame Lamia, ji, ji, ji.
- Lamia** (*Bere ulea apainduz altxatzen da*). Orain dela urte gutxi ibai batzuk banituen oraindik garbi, baina orain baso batzuetako errekatxo eta potzu batzuk gelditzen zaizkit bakarrik. Nere seme guztiak ia hilik daude, eta ditudan bakarrak preso ditut pizifaktoria itsusi batzuetan. (*Piskanaka hasarratzen joaten da*). Eta hau ez da txarrena, Basajauni zuhaitz pila bat kendu diotenez, gelditzen direnak ez dute behar bezalako indarrik euriari deitzeko, eta honen ondorioz iturri, erreka eta putzu asko lehortu egin zaizkit. Ez dut askotan urik nere uleak garbitzeko ere (*negar malko batzuk jauzten zaizkio*).
- Bartolo** Ene bada, madame, badut nik txanpu berezi bat zure arazoa konpontzeko.
- Basajaun** Isil zaitetz burua moztuko dizut eta, egoera ez dago txantxetan ibiltzeko.
- Bartolo** Beno, beno, ez dut gehiago egingo. Orain zuri tokatzen zaizu Hodei, buru... (*Basajaun, erdi altxatzen da, Bartolo leptik oratu eta Bartolok ez du bukatzen esaldia*).
- Hodei** Gizakumeek hipnotizaturik egongo balira bezala jokatzen dute. Ez dira konturatzen denok, denon laguntza behar dugula, ez dakit, ez dakit... Niri zuei bezala, egunero milaka laino beltz botatzen dizkidate, denak zikin-keriaz beteta. Toki batzuetan ez dut lekurik izaten egoteko eta alde egin behar izaten dut. Gero eta txori gutxiago ditut lagun, eta oso zaila egiten zait karta partidak antolatzea. Eta txarrena, siesta botatzen nagoenean, izugarrizko burdin zatiak pasatzen dira nire albotik demaseko zaratak ateraz... Batzuk gogokoak ditut, baina hainbeste, zoratzekoa da.
- Bartolo** Bai, arrazoi duzu, eta batzarrera eguzkia eta haize sua-bea bidaldu beharrean, tximista eta trumoiak bidaltzen dituzu.
- Basajaun** Bartolo!!!

- Lamia** Zer egin dezakegu madarikazio hau apurtzeko?? Ez badugu azkar zerbait egiten gure azkena izango da.
- Hodei** Honen atzetik nor dabilen jakin nahi nuke nik, eta benetan diotsuet: gustora erreko nioke ipurdia.
- Basajaun** Urtero gauza bera esaten dugu, baina esku hutsik etortzen gara beti batzarretara. Hau izan daiteke gure azken urtea eta era batean edo bestean egoera hau konpondu egin behar dugu, bestela akabo! Gure azkena!
- Hodei** Baina zer egin dezakegu, urtero bidaltzen ditugu izugarrizko ekaitzak, txingorrek, elurteak, uholdeak, guk ditugun armarik indartsuenak erabiltzen ditugu eta, hala ere, ez dugu ezer lortzen.
- Bartolo** Ejem, ejem, nik...
- Lamia, Hodei, Basajaun** Isil zaitetz, eta idatz ezazu guk esaten duguna!!!
- Bartolo** Baina, nik...
- Lamia** Zuk zer?
- Bartolo** (*Haserre*). Nik, Bartolo idazkari nagusiak badudalazuen arazoentzat konponbidea, kolegis!
- Basajaun** Kolegis? Zer esan nahi du «kolegis» horrek?
- Hodei** Laguna esan nahi du. Beno, hitz egin ezazu.
- Bartolo** Zuen amak, Marik, atzo gauean mezu bat eman zidan zuentzat.
- Bartolo edo mezulari berezi bat** Honela dio: seme-alaba maiteok, ni ere zuek bezain kezkatu nago. Ez zait haitz-zulorik gelditzen mendietan eta ordua da madarikazio hau apurtzeko. Hau apur dezakeen bakarrak kutsatu gabeko gizakiren bat izan behar du. Bere izena Patxi da, eta Santurtzin bizi da.

Laguntzaile ez kutsatu bat topatu beharko du helburua betetzeko. Horretarako arma berezi batzuk beharko dituzenez, boltsa batean bidaltzen dizkizuet. Agur seme-alabak, jota-ke bizi arte.

Mari!

Hodei Gizakiren batek salbatuko gaituela? Eta Patxi du izena. Ez dakit, ez dakit...

Lamia Patxi, zein izen arrunta, mm, mm.

Basajaun Utzi itzazue señoiritismoak, beste egun baterako, eta bilatu dezagun Santurtziko Patxi.

Bartolo Barkatu, baina ez dut bukatu mezua. Jaun- andereok, madarikazio honen jabearen izena eta helbidea falta zaizkit.

Hodei Esan zak, esan zak, petral horrek!

Bartolo Trinitron magoa, eta Iurretako mendietan du bere laborategia.

**Basajaun, Hodei,
Lamia** TRINITRON!!!

Lamia Eta nor joango da Santurtzira Patxiren bila?

(Hirurak elkarri begiratzen diote, eta gero, hirurak batera, Bartolori begiratzen diote).

Bartolo Nik ez dut Santurtzi ezagutzen!

**Basajaun, Hodei,
Lamia** BARTOLO!!!

Bartolo Beno, beno, joango naiz, baina argi gera dadila ez dudala gogorik, eta ez dela nere lana.

**Basajaun, Hodei,
Lamia** Eta?

Bartolo Eta, nola joango naiz Sarturtziraino?

Basajaun Trenez, hemendik ordu erdira baso ondolik pasatuko da trena, eta berak eramango zaitu. Eraman iezazkiozu behar dituen armak Patxiri, eta gure agurrik beroenak.

Bartolo Agurrik beroenak!

Basajaun BARTO...!

Hodei Trena, trenaren zarata entzuten da!

Lamia Agur eta suerte ona izan.

(Trenaren zarata eszenatokian nagusitzen da, eta une berean, eszenatokiko argiak itzaltzen doaz).

3. ESZENA

(Trenaren zarata eta txistua entzuten diren bitartean, eszenatokia aldatuko da. Piskanaka, musika hau desagertu egingo da eta abentura musika batekin agertuko zaigu eszenarioa. Bertan Patxi azalduko da kasko, ezpata eta ezkutu batekin; musika apur bat jaitsiko da eta dragoi batekin borrokan egongo balitz bezala mugitzen hasten da).

Patxi Ziraun nazkagarri hori, ez nauzu beldurtuko... ez nago zu bezain lodi... har ezazu kolpe hau... *(Besoa erretzen dio. Berriro ere altxatzen da eta borroka jarraitzen du)* ...Non dago altxorra moku halako hori?... Eta nere lagunak?

(Momentu horretan bere ama sartzen da gelan).

Elena Hemen!!! Patxi, zenbat aldiz esan dizut, lelokeriak alde batera uzteko, dragoiak, altxorak, piratak, mongolak, mapatxeak...

Patxi Apatxeak, apatxeak...

- Elena** Berdin zait, eta neretzat mapatxeak dira... ai ume, baina zuk ez dakizu beste umeak bezala, jarri eta telebista ikusten, lasai, lasai...
- Patxi** Ez, eta gainera aspertu egiten naiz, ez dute kategoriako dragoirik, ez piratarik, ez ezer...
- Elena** Ixo, bihar jarraituko dugu hizketan. Orain jantzi pijama eta ohera, bihar eskolara joan behar duzu eta. Entzuten badut beste trastadaren bat egin duzula, akabo...
- Patxi** Bale, baina orain lagaidazu aldatzen.
(Ama eszenatokitik desagertzen da. Eta Patxi gora begira hitz egiten hasten da).
- Patxi** Sorte handia izan duzu, zapaburu. Bihar ikusiko dugu elkar berriro!!!
(Patxi ohe gainean etzaten da eta berehala lokartu. Eszenatokitiko argiak intentsitatea galtzen doaz poliki-poliki, baina... zerbait mugitzen da, dirudienez, leihoa zabaltzen ari da... Bartolo dugu, zaratarik atera gabe gelan sartzen dena eta poliki-poliki Patxiren oherantz abiatzen da. Zoritxarrez, ezpata zapaltzen du eta lurrera jausten da).
- Patxi** Nor dabil hor? ...Zu zara, Punta?
- Bartolo** Psss... ez, ez. Ni naiz... Bartolo...
- Patxi** Zein Bartolo, herriko munizipala?
- Bartolo** Ez. Bartolo, Bartolo, basoko jainkoen ordezkari nagusia eta zoritxarrez euren mezularia.
(Patxi salto batez, ohetik altxatzen da eta argia pizten du).
- Bartolo** Itzali argia, inork ez du ohartu behar ni hemen nagoenik.
- Patxi** Zer egiten duzu hemen, basoko ez dakit zer?
- Bartolo** Basoko jainkoek aukeratu zaituzte misio arriskutsu bat burutzeko.

- Patxi** Misio arriskutsu bat, tumatxa!!! Hau duk hau!
- Bartolo** Psss... Isil zaitez taxistak ere enteratuko dira eta!
- Patxi** Eta noiz hasten da?
- Bartolo** Oraintxe bertan. Prest bazaude, noski.
(Patxik ezpata eta kaskoa lurretik altxatuz...)
- Patxi** Non daude hil behar ditugun piztiak eta bere kideak?
- Bartolo** Kaskada ederra daukak! Lasaitu hadi, ez dituk horrelako armak behar izango eta! Entzun ezak ongi esan behar diadana: lehenengo, heu bezalako laguntzaile bat behar duk! Ezagutzen al duk?
- Patxi** Bai, Puntapari, beno, Punta!
- Bartolo** Deitu ezaiok!
- Patxi** PUN... *(Bartolok ahoa tapatzen dio)*.
- Bartolo** Baina isildu hadi zoro, denak esnatuko dituk eta...
- Patxi** Puntapari, i, i...!!!
(Berehala, bagabundo itxurako mutiko bat agertzen da leihotik).
- Punta** Uaaa, zer behar duk Patxi, uaaa.
- Patxi** Psss... Sar hadi, oraintxe kontatuko diat eta.
- Punta** Errekoño, nor da tipo hau?
- Patxi** Basoko ez dakit nor. Misio baterako aukeratu nau eta laguntzaile bat behar dudala esan dit, eta hitaz gogoratu nauk.
- Punta** Bueno, gabon. Banoa berriro ere lotara. Hi zoratuta hago, Patxi!

- Patxi** Punta, itxaron! Ez hadi joan. Non gelditzen dituk gure bidaiak mundua ezagutzeko? Itsaso zabalak... gaztelu beldurgarriak...
- Punta** Bai, hori ondo zegok! Baina, nork ordainduko ziguk bidaia, Gorordok?
- Bartolo** Ez duzue dirurik behar izango, zuen fantasia nahikoa izango da.
- Punta** Kontxo! Hitz egin du.
- Patxi** Bai, eta utz diezaiogun hitz egiten. Tira, Bartolo, jarraitu mesedez!
- Bartolo** Bueno, benetan bikote bitxia osatzen duzue. Zuen misioa hau da: Trinitron magoak, madarikazio baten bitartez, gizakume guztiak hipnotizaturik ditu, honela baso guztia deseginez, eta bertan bizi diren animalia, landare eta jainkoen jabe izan nahi du. Bueno, hitz batean, munduaren jabe izan nahi du.
- P.P.** Mamma mia!!!
- Bartolo** Bere lana ia bukatuta dago eta bakarrik zuen laguntzaz salba genezake mundua. Horretarako, mapa hau jarraituz eta hemen dituzuen armekin irabazi beharko diozue magoari.
- Punta** Eta noiz hasiko gara?
- Bartolo** Oraintxe bertan. Ez dugu denborarik galtzeko. Arazo larriren bat baduzue, deitu basoko animei. Prest?
- P.P.** Bai!!!
- Bartolo** Ni ez naiz inor ezer esateko, baina Hodeik baino txarrago daukazue burua.
- P.P.** Zeinek baino diozu?
- Bartolo** Berdin da, aurrera!

(Leihotik irteten dira, eta abentura musikatxoa eszenatoki-ko jabe egiten da. Musikak jarraitzen du eta argia itzaltzen doa. Hau aprobetxatuz, eszenatokiko elementuak aldatzen dira).

4. ESZENA

(Piskanaka argiak berriro ere eszenatokia argitzen du. Orain musika, abenturako musika oihaneko zaratekin nahasturik entzuten da. Poliki-poliki musika desagertzen doa eta oihaneko zaratak gelditzen dira eszenatokiko jaun eta jabe.

Eszenan Patxi eta Punta azaltzen dira. Punta doa aurretik eta Patxi atzetik zaku baten barruan arma misteriosoak daramatzalarik).

Punta Ez zait batere gustatzen toki hau, bibrazio txarrak ematen dizkit.

Patxi Niri ere ez. Begira diezaiogun Bartolok eman digun mapari, eta honela jakingo diagu non gauden.

(Patxik eskua zaku barruan sartzen du, mapa antzeko bat atera eta Puntari ematen dio. Honek zeremonia handiz zabaldu eta begiratzen du).

Punta Mapa honek dioenez, gu gaude..., hi Patxi, Bartolo Honek ziria sartu digu, hau ez dago euskaraz idatzita!

Patxi Zer! ez da posible, ekartzak, ekartzak... Buru handia halakoa, aldrebes daukak mapa!

(Patxik berriro ere mapa Puntari bueltatzen dio).

Punta Ejen, ezen! Dirudienez bide zuzenean gaude, zoritxarrez!

Patxi Zoritxarrez!

Punta Beno zorionez, Tarzan! ...Hemen izar gorri bat azaltzen da, harritzekoa.

- Patxi** Ea, erakutsi! Egia duk! Zer esan-nahi ote du?
- Punta** Begira dezagun atzekaldean (*Mapari buelta ematen dio*) «...um, um! izar gorria, hemen, Elektrikus mozorroaren lurraldean aurkitzen zarete, berarekin aurkitzen bazarete, erabil ezazue plastikoa duen zerbait bere indarra deuseztatzeko».
- Patxi** Elektrikus!!!
- Punta** Bai Elektrikus, eta ez zait batere gustatzen bere izena.
(Txispazo batzuen zaratak musika batekin nahasturik entzuten dira, Patxi eta Punta erne eszenatokian izkutatzen dira).
- Elektrikus** Oso pozik nago, oso pozik. Nere jaunak, Trinitron Magoak, bonbila kaja bat erregalatu dit. Bai tipo majoa! Eta denak neretzat dira. Ai! Trinitron maitea! Zer nolako afaria egingo dudan!
(Esku artean daraman kaxa lurrean lagatzen du, eta bertatik bonbila bat ateratzen du. Eta jatera doanean...).
- Elektrikus** Afaldu baino lehen inguruak miatuko ditut. Trinitron nere jaunak adi egoteko esan dit momentu oso garrantzitsuak datozkigunez, bere laborategiko bidea ongi zaintzeko.
Nere elektrolitoek zerbait arraroa somatzen dute... Ene bada! Bi ezezagun nere lurraldeetan!!!
- Punta** Goaziak hemendik, ikusi gaitu eta!
- Patxi** Etorri hadi hona, hemen bait da benetazko abentura!
- Punta** Bai, hirea izango duk, ni banihoak.
(Puntak aldegiterakoan Elektrikusek txispazo batzuk botatzen dizkie).
- Punta** Patxi! Pentsa ezak zeozer azkar, bestela gure belarriak erre egingo ditu!

- Patxi** Gogoan al duk mapan ipintzen zuena?
- Elektrikus** Ze mapa eta ze demontre, pentsa ezazue zuen agurraz, azkena da eta.
- (Eta beste txispazo bat botatzen du...).*
- Punta** Ekartzak plastikoa duen zerbait bere aurka erabiltzko.
- (Patxik eskua zaku barruan sartzen du eta basura poltsa bat ateratzen du).*
- Patxi** Hau izango ote da?
- Punta** Nik zer dakit, baina erabil dezagun azkar!
- Patxi** Har ezak eta atzetik eraso. Nik bitartean despistatuko diat.
- Punta** Bale, bale, Tartzan!
- (Patxi Elektrikusen aurrean ipintzen da eta aurre egiten dio; bitartean Punta...).*
- Patxi** Zuk ez duzu indarrik nere amonaren irratia pizteko ere!
- Elektrikus** Ja, ja, ja, ume txistoso! Ja, ja, ja.
- (Bitartean Punta Elektrikusen atzean jartzen da).*
- Patxi** Txistoso! Bai, baina zu bezain indartsua, etor zaitez!
- Elektrikus** Gggrrr... zure azkena da! Baina, non dago bestea?
- Patxi** Orain!!!
- (Puntak basura poltsa zabalik duelarik burutik sartzen dio Elektrikusi, hau berehala indarra galtzen joaten da, lurrera jausi arte).*
- Punta** Geurea da, geurea da...

Patxi Bai, baina goziak hemendik, ez dakigu beste lagunen bat hemendik zehar izkutaturik egongo den ala ez.

Punta Bai, Tartzan, goziak. Hi Tartzan! ...ni Txita!

(Puntak tximinoarena eginaz eskua eskaintzen dio Patxiri).

Patxi Beno, utz itzak lelokeriak eta goziak!

Punta Aaaaa... aaaaa... aaaaaaaaaaaa...

5. ESZENA

(Patxi eta Puntak eszenatokitik alde egiterakoan, abentura musika entzuten da eta berehala musika misteriotsu batekin nahasten da. Bitartean eszenatokia aldatu egiten da, Trinitronen laborategia azalduz, gauza sakratu bat izango balitz bezala. Muskurutxuk zeraman kaxa agertzen da).

Trinitron *(Pentsakor dagoen pertsonaren aurpegia du).* Kontxo, kontxo! Basoko jainkoek ez dute amore ematen, eta borroka nahi dute; beno, beno, hori nahi badute, horrela izan dadila!

Muskurutxu Jaun adoretua, mago guztien artean ederrena, azkarrena, indartsuena...

Trinitron Zer?

Muskurutxu Ez duzu uste bi borrokalari gogor aukeratu dituztela?

Trinitron Jo, jo, jo, borrokalari gogorak, jo, jo, jo, ez dira inoiz laborategi honetara iritsiko, eta lortzen badute, txingurriak izango balira bezala zapalduko ditut! jo, jo, jo...

6. ESZENA

(Barreak entzuten diren bitartean, argiaren intentsitatea jaisten doa, eszenatokia aldatzen da eta argiak berriz ere indarra hartzen dutenean, abentura musika entzuten da eta berarekin batera Patxi eta Punta).

- Punta** ...Uf, uf... Lurralde honek Igeldoko «Montaña Rusa» dirudi, gora ta behera, gora ta behera... aspertzen ari naiz. Ez ote da pasatuko hemendik autobusik edo trenik.
- Patxi** Punta! Koñazo bat haiz, beti kexaka habil eta utz iezaioke txorradak esateari. Nola pasatuko duk hemendik trena!
- Punta** Klaro, jakina! Tarzanek lianak erabiltzen dituen bezala, ba besteok... ji, ji, ji...
- Patxi** Punta!!!
- Punta** Lasai, lagun, eta begira dezagun nondik gabiltzan. Atera mapa!
- Patxi** Har ezak! Baina oraingoan zuzen begiratu!
- Punta** Bai Ardantza jauna! Mmmm... gora, behera... (*Hatzamarrarekin jarraitzen dio bide bati mapa gainetik*) ...eta txatxan, txatxan, hemen gaude.
- Patxi** Ikur berezirik azaltzen al da?
- Punta** Bai, «S» handi bat. (*Buelta ematen dio mapari eta zer esan nahi duen irakurtzen du*). Jo, jo, ja, ja, ji, ji.
- Patxi** Zerk eragiten dik barre?
- Punta** Jo, jo, jo, Supermanen, ja, ja, ja, lurraldean gaudela.
- Superman** Bai, arrazoi duzu eta zer?
- (*Superman atzekaldetik azaldu da eta justu Puntaren atzean kokatu da. Hori esan eta gero Superman pelikularen musika entzuten da eta honek demostrazio batzuk egingiten ditu Punta eta Patxi beldurtzeko*).
- Patxi** Hau ez dago oso ondo burutik!

- Punta** Kontuz! Hauek izaten dira txarrenak.
- Superman** Zer esaten duzue, gizakume petralok! Eseri zaitezte hemen, nere indarra zuen lepoetan probatzea.
- Punta** Lasai, Superman. Arditxoek bezala jarraituko ditugu zure esanak.
- Superman** Horrela gustatzen zait!
- Patxi** Baina, Punta!
- Punta** Isildu hadi eta irakur ezak ze arma erabili behar dugun!
- Superman** Isil zaitezte eta etorri honantz, nere sortzailea den Trinitron Magoari deitzen diodan bitartean.
- (Superman bere buruaz flipaturik dago eta hitz egiten jarraitzen duen bitartean, Patxik maparen atzean ipintzen duena irakurtzen du). Ah, a, a.... nere jauna honetaz enteratzen denean, ziur aski kapa kapa berri bat erosiko dit eta galaxia osoko neskak nere atzetik ibiliko dira. (Hau esaten duen bitartean, Patxik mapa ostean dagoena irakurtzen du).*
- Patxi** Kriptonitazko borragoma erabil dezagula dio.
- Punta** Baina, nola?
- Patxi** Nik zer dakit!
- Superman** Zertan ari zarete? Eta gainera, zer duzue zaku horren barruan?
- (Patxik zakutik borragoma handi bat ateratzen du eta Puntari pasatzen dio).*
- Patxi** Egin ezak zeozer!
- Punta** Ni, ...hi haiz jefea!!! *(Eta hau esan ondoren, Patxiri botatzen dio).*

- Superman** Zer da hori?
- Patxi** Erakutsiok zer den Punta! (*Patxik Puntari bueltatzen dio*).
- Punta** Har ezak Super! (*Puntak esku artean sua izan balu bezala botatzen dio Supermani*).
- Superman** Ja, ja, ja. Borragoma erraldoi bat, ja, ja, ja... Ez duzue pentsatuko marrazki bizidun bat bezala ni borratzea... ja, ja, ja...
- Punta** Baina, dirudienez, kriptonitarekin eginda dago...
- Superman** Oh, ez!!! Kriptonita ez!!!
- (Hau esaten ari den bitartean indarra galtzen doa eta poliki-poliki belaunikatzen da, lurrean etzanda gelditu arte).*
- Patxi** Tiro bikaina!
- Punta** Inoiz ez diat komentatu baina Lezaman egin nituen nire pinitoak!
- Patxi** Bai, sinisten diat! Goazik hemendik Iurreton ez duk urrin egongo eta!

7. ESZENA

(Abentura musikarekin batera eszenatokiko argiak desagertzen dira, bitartean eszenarioan, abenturako musika musika tetriko batekin nahasten da. Batera argia berriro ere bueltatzen da, Trinitronen Laborategia aurkeztuz. Trinitron eta Muskurutxu agertzen dira, eta lasai-lasai eseri eta lokartzen dira.

Berehala, musika bukatu bezain pronto, Punta eta Patxi agertzen dira).

- Patxi** Dirudienez iritsi gara Iurretoneko Laborategira.
- Punta** Hau errezegia izan duk, eta hor dauden bi horiek ez ditut gustoko.

(Hau esaten duten bitartean Trinitron esnatzen da eta agurtzen ditu).

- Trinitron** Gabon lagunak, zuen bisita itxaroten nengoen, zuek merezi duzuen harrera egiteko. Egia esanda, ez nuen pentsatzen honaino iritsiko zinetenik, baina batzuek dioten bezala, gaur egun ez dago etsai txikirik, jo, jo, jo...
- Muskurutxu** Hori Klementek dio.
- Trinitron** Isil zaitez!
- Patxi** Rollo gutxiago eta goazen mamira.
- Trinitron** Hau lotsagabea,... Nik esango dut noiz joango garen mamira! Orain, zertara etorri zareten esango didazue.
- Patxi** Zuk ezarri duzun madarikazio bat apurtzera. Esaiguzu, lehenbai lehen zertan datzan, eta berehala joango gara.
- Punta** Ez duk uste pasatzen ari haizela?
- Patxi** Lasai, kontrolatuta diat.
- Trinitron** Oooh, benetan ausartak zaretela esan behar dut. Baina madarikazioa apurtu baino lehen, gauza bat erakutsi nahi dizuet: madarikazioaren sortzailea!
- Muskurutxu** Asmatu dugun makinarik politena, zoragarriena, ederrena, liluragarriena,...
- Trinitron** Hori nik esan behar dut!
- Muskurutxu** Beno,...
- Punta** Ez dugu denborarik, osea se, emai guzu behar duguna eta kitto!
- Patxi** Lasai, non duzu makina zoragarri hori?
- Punta** Hi zoratuta hago.

- Trinitron** Hemen! Muskurutxu, altxa ohiala gure lagunek ikus dezaten!
- Muskurutxu** Zure esanetara jaun adoretsua.
- (Muskurutxuk tela altxatzen du eta telebista bat martxan azaltzen da, Patxi eta Punta, sinestu ezinik hurbiltzen dira, eta poliki, poliki, madarikazioaren barrura jausten hasiak dira).*
- Patxi** Logure izugarria daukat, zer egiten dugu hemen?
- Punta** Madarikazio bat apurtzera etorri garela uste diat.
- Trinitron** Ja, ja. Ez lagunak, niri bisitatxo bat egitera besterik ez, ja, ja...
- Punta** Patxi, non dago mapa eta zure arma?
- Patxi** Ez dakit, lagaidak pakean, logura handia diat.
- (Elkarrizketa hau kamara lentoan egiten dute, Patxik amore ematen duela ematen du, baina Puntak oraindik borrokatzen du).*
- Punta** Basoko animak, lagundu arren, lagunduuuu...
- (Hau esan eta gero, biak leloturik telebistaren aurrean gelditzen dira).*
(Momentu horretan Bartolok eman dituen txilinak, publiko ostean zarata egiten hasten dira).
- Trinitron** Zer da zarata hori, nire burua apurtu behar dute. Isil daitezela! Bestela nere indarra euren aurka botako dut!
- Muskurutxu** Hitz gutxiago eta egin zerbait azkar, ezin dut jasan gehiago zarata hori.
- (Zarata publikoaren laguntzaz haunditzen doa. Trinitron eta Muskurutxu, euren buruak eutsiaz, bueltak ematen hasten dira, bitartean, Punta eta Patxi esnatu egiten dira).*

- Patxi** Zer duk zarata hau! Punta, Punta...!
- Punta** Eh, zein zarata zoragarria, non gaude Patxi?
- Patxi** Trinitronen Laborategian! Begira, hor daude biak zarata aguantatu ezinik ! Baina zer egin behar dugu?
- (Patxik eskua sartzen du eta handik artazi batzuk ateratzen ditu).*
- Patxi** Artaziak!!
- Punta** Argi zegok, kable honek indarra emango dio trasto horri, eta artaziak kablea mozteko izango dituk!
- (Esana egin dute, eta kablea moztu).*
- Trinitron** Oh, ez, urteetako lana pikutara, mundua nere eskuetan... Madarikatu halakoak, banoa, baina nere izena berriro ere entzungo duzue hortik zehar. Goazik, Muskurutxu!
- Muskurutxu** Eta nereak!
- (Trinitron eta Muskurutxuk alde egiterakoan, bakarrik gelditzen dira eszenatokian).*
- Patxi** Punta, lortu dugu, heroeak gara! Ama enteratzen de-nean... Nolako sustoa! jua, jua...
- Punta** Bai, baina poltsikoak hutsik ditugu, eta gainera zer egi-ten du heroe batek altxorren bat lortzen ez badu? Nork sinistuko gaitu?
- (Haizea eta trumoiaren zarata entzuten da, musika batekin nahasturik. Musikarekin batera, Bartolo, eta Basoko Jainkoak sartzen dira).*
- Bartolo** Geuk!
- Patxi, Punta** Bartolo!
- Bartolo** Bai, hemen nauzue, nere lagunekin!

**Hodei, Basajaun,
Lamia**

Lagunekin!!!

Bartolo

Beno, Jainkoekin. Hemen dituzue geure heroeak. Denon ustez bikain bete duzue zuen papera eta garai luze baterako Trinitron eta Muskurutxu gainetik kendu dituzue. Zuen lana hain baliogarria izan denez oparitxo bat prest daukagu.

(Horrela musika potente batekin batera bi zerbitzari sartzen dira kutxa haundi batekin).

(Bartolok altxorra aurrean duenean).

Bartolo

Basoko jainko guztien ordezkari bezala, basoko semeak izendatzen zaituztegu, eta zuen lanaren truk, hemen duzue basoko altxorra, milaka urtetan gorderik egon dena, eta orain zuentzako izango dena.

(Musika jaisten da).

Punta

Iupi, agur nere estutasunak!

Patxi

Gehiegizkoa da! Ezin diat onartu!

Punta

Zer, zoratuta hago, ala? *(Jainkoei eta Bartolori begiraturaz)*
Barka ezaiozue, oso nekatuta dago.

Bartolo

Lasai, bagenekien horrelako zerbait gertatuko zela. Punta, zu geldi zaitezke altxorrarekin, Patxirentzat beste gauza bat dugu eta.

(Berriro ere laguntzaileak azaltzen dira, ezpata zoragarri bat esku artean dutela).

Bartolo

Patxi, hemen duzu Arturo erregeak utzi zigun ezpata, eta denen ustez, zu zara aproposena bera erabiltzeko.

Patxi

Ezinezkoa da, «Eskalibur» nere eskuetan.

Bartolo

Bueno lagunak, joan egin behar dugu, ezin gara denbora luzean basotik kanpo egon.

Punta Bartolo, baina nola bueltatuko gara gure herrira?
Ez duzu pentsatuko bide guztia oinez egingo dugunik?

Bartolo Lasai, trenaren honantz dator eta berak eramango zaituzte-
te zuen etxeetaraino.

(Bartolo eta Jainkoak eszenatik desagertzen dira eta batera trenaren zarata entzuten da. Biak aldamera igotzen dira eta eszenatik desagertzen dira, pozaren pozez. Trenaren zarata entzuten dugun bitartean, eszenatokia aldatzen da, eta Patxiren logela agertzen zaigu, Patxi barruan lo dagoela).

(Argiak pizten dira).

8. ESZENA

Elena Patxi, ordua da, gora azkar!

Patxi Eh ama, «Eskalibur» ezpa... non? Non nago?

Elena Etxean ume.

Patxi Eta Punta, Bartolo?

Elena Nortzuk dira horiek? Ai, buruan haize larregi duzu! Gora ipurdi horiek!

(Argiak itzaltzen dira eta patatin-patatan, sartu dadila kalabazan).

JONTXUREN EGOERA LARRIA

Ikasleak, Lukas
Dorronsororen ardurapean
Herri ikastetxea
Aizarna 1989

PERTSONALIAK

3. arrantzale	Jontxu
Bandojolea	Aitona
Kamareroa (neska)	Jendea
Alkatea	

I. EKITALDIA

(Taberna arrunta: mostradorea, mahai batzuk etab).

1. AGERRALDIA

(Tabernan, mahai batean arrantzaleak jokoan ari dira. Tabernaria, bere lanetan. Geroago, kontzertu berezia entzuten da kanpoan, behin eta berriz: «Titri-piti-dun-dun...», geroz eta hurbilago lehenbizi; geroz eta urrutirago gero). (2. arrantzaleak kartak ematen ditu patxada ederrean).

1. arrantzalea Enbido handira.

2. arrantzalea *(Haserre)* Zer enbido eta zer mila deabru. Keinurik ez botatzekotan hasi gaituk, ez?

1. arrantzalea Bai, eta zeinek bota dik keinua?

- 3. arrantzalea** Nik ez diat keinurik ikusi!
- 2. arrantzalea** Ba, nik bai. Hogetamaikarena bota dik.
- 1. arrantzalea** Beno-beno, pakea behar diagu, hi! Ikusiko diagu nork zeukean hogetamaika!
- 2. arrantzalea** Hik baldin badaukak, hire kontu joango duk hemengo kontua.
- 1. arrantzalea** Konforme! Baina, bestela, hire kontura.
- Bandojolea** (*Urrutian*) Tiri-piti dun-dun... Entzun!... Alkate jaunaren aginduz... herri honetako arrantzaleei... hemendik aurrera... balea harrapatzea... debekatu egiten zaie (*arrantzaleak adi-adi jartzen dira*).
- 1. arrantzalea** (*Entzuten*) Ixo! Ixo!
- 2. arrantzalea** (*Adi*) Zer esan du?
- 3. arrantzalea** (*Adi*) Joko dik berriro ere.
- Bandojolea** (*Hurbiletik*) Tiri-piti dun-dun... Alkate jaunaren aginduz...
- 1. arrantzalea** (*Haserre*) Ez zegok eskubiderik balea harrapatzen galarazteko! Alkate txitxidun hori, erreka zulora botako diagu! Eta itotzen denean izango diagu nahi duguna egiteko denbora.
- 2. arrantzalea** Bai, arrazoi duk. Horixe egingo diagu!
- 3. arrantzalea** (*Isil-misilka*) Zer iruditzen zaizue bihar bertan harrapatu eta botatzen badugu?
- Besteak** (*Denek batera*) Bi, bai, zenbat eta lehenago hobe.
- Bandojolea** (*Urruti*) Tiri-piti dun-dun!... Alakate jaunaren...
- 2. arrantzalea** (*Haserre*) Damutuko zaiok ederki, alazankoa!

- 3. arrantzalea** Jarrai dezagun jokuan. Handira, enbido jo al duk?
- 1. arrantzalea** Bai. Enbido!
- 3. arrantzalea** Nik ez diat nahi.
- 2. arrantzalea** Euki!
- 1. arrantzalea** Bost txikira!
- 2. arrantzalea** Harro al habil? Bajatuko haiz, bai!
- 3. arrantzalea** Ez diat nahi!
- 1. arrantzalea** Pareak bai.
- 2. arrantzalea** Ez.
- 3. arrantzalea** Bai.
- 1. arrantzalea** Enbido!
- 3. arrantzalea** Euki.
- 1. arrantzalea** Jokurik ez!
- 2. arrantzalea** Hik jokurik ez?
- 1. arrantzalea** (*Harro*) Ez, ez zeukeat jokurik.
- 2. arrantzalea** Barka iezadak, moteil!
- 1. arrantzalea** Barkatua zegok, baina hik ordaindu behar duk hemengo kontua.
- 3. arrantzalea** Bai, horretan geratu zarete.
- 2. arrantzalea** Ondo zegok, moteil; egingo diagu horrenbeste.
- 3. arrantzalea** (*Kartak bilduz, 2. arrantzaleari*) Aizak hi! Zer ordutan elkartuko gaituk bihar?

- 2. arrantzalea** Zuk nahi duzunean.
- 3. arrantzalea** Jar itzak hiru bat txirrin, bestela ez haiz hi esnatuko eta.
- 2. arrantzalea** Bai jauna, ipiniko ditut hiru txirrin! Baina, zer ordutan?
- 3. arrantzalea** Bederatzietan.
- 1. arrantzalea** Zortzietan hobe!
- 3. arrantzalea** Bale! Zortzietan elkartuko gara.
- 1. arrantzalea** Tintxonean egingo diagu orain.
(*Hala egiten dute*).
- 2. arrantzalea** (*Pozik*) Txintxon...! Osatu dut. (*kartak erakusten ditu*).
- 3. arrantzalea** (*Ikusi eta imintzioka*) Alua! Ehun pezeta irabazi zizkidak!
- 2. arrantzalea** Kamareroa! Atera iezagun beltxa! (*jokoan jarraitzen dute*). Kamareroooo! Mugi hadi!
- Kamareroa** Arnasa hartu beharko diagu behintzat!
- 2. arrantzalea** (*1. arrantzaleari*) Ken ezak eskua, urrezko atso motza hemen zetorrek eta.
- Kamareroa** Har ezak, moteil, har ezak, larri baldin bahago (*1. arrantzaleari*).
- 1. arrantzalea** Ni ez baina, hau zegon larri (*3. arrantzalearengatik*).
- 3. arrantzalea** Zer larri eta zer larri ondoko? Egarrria zeukeat eta kitto!
- Kamareroa** Beno-beno, alperrik duk zuekin berriketan ihardutea.
- 1. arrantzalea** (*2. arrantzaleari*) Hurrengoan ez duk irabaziko, arrano-pola!

- 2. arrantzalea** Ezetz uste al duk? Hogei duro apustu, irabazi baietz!
- Beste biak** (*Erronkan*) Bota hogei duro mahai gainera!
(*Jokoan jarraitu. Geroxeago*).
- 1. arrantzalea** Beste seiko bat etortzen bazaidak, txintxon ederra osatuko diat. (*Kamareroari*) Kamareroa, atere iezadan kafe bat bero-beroa; ea zorte ona ematen didan.
- Kamareroa** Jesus Maria! Zuen edan beharra!
- 3. arrantzalea** Hi burutik sano al hago? Heuretzat hobe, asko edaten baldin badinagu. Gainera, botila erdi bat ardo dun edan dugun guztia!
- Kamareroa** Gutxi dela uste al duk?
- 2. arrantzalea** Beno-beno, utz gaitzan pakean eta hoa kafearen bila.
- Kamareroa** Banihoak, banihoak!
- 1. arrantzalea** (*Adarra jotzen*) Azkar ibili, e! Txintxon egin behar dut eta.
- Kamareroa** Jesus, horrenbesteko presa!

(*Parre egiten diote, eta jokuan jarraitu*).
- 1. arrantzalea** Orain niri tokatzen zaidak hartzea.
- 2. arrantzalea** Har ezak ba. Noren zain hago?
- 1. arrantzalea** Urrezko atso motzaren zain...
- 2. arrantzalea** Hirezat izango delakoan...! A, ja, ja, ja, ja...
- 3. arrantzalea** (*Karta hartu ondoren. 1. arrantzaleari*) Ez duk ba, zain egonbeharrik. (*Kartak erakutsi*).
- 2. arrantzalea** (*Hortzak estuturik*) Bat bakarra falta nian.

2. AGERRALDIA

(Lehenagoak eta alkatea).

Alkatea *(Sarrera ona eginaz). Egunon! (Arrantzaleak begira dagozkio).*

Kamareroa Egunon, alkate jauna. Zer nahi zenuke?

Alkatea Atera iezadan bermuta.

Kamareroa Oraintxe aterako dizut.

Alkatea Ez dun presaka ibili beharrik; komunera nihoan eta.

2. arrantzalea *(Bere lagunei) Nahiago nitek txixak galtzetara irtengo balio! (denak parrez). Orduantxe bai bermuta pagatuko niokeela (kartetan jarraitzen dute). (Geroxeago, alkatea dator, botoiak lotu ezinik).*

Alkatea Atera al didan bermuta?

Kamareroa Ez, ez dizut atera. Presaka ez ibiltzeko esan ez didazu, ba?

Alkatea Bai, bai. Lasai ibiltzeko esan dinat; baina, bermuta ez ateratzekorik ez.

Kamareroa Beno, ez al dugu, ba, oraingoan ere asmatu? Barkatu!

Alkatea Barkatzeko? Badakin ondo barkaturik hagonala.

Kamareroa Eskerrik asko, alkate jauna *(bermuta atereaz)*. Torizu bermuta.

Alkatea Zenbat dun guztia?

Kamareroa Hemezortzi duro.

Alkatea *(Atera eta emanaz)*. Torizkin.

Kamareroa Eskerrik asko!

Alkatea Ekarri asko!

- Kamareroa** (*Disimuloan, jokularien mahaira zerbaitekin doala*) Ostikada bat galanta ekarriko nitek nik hiri!...
- 1. arrantzalea** (*Isilka*) Guk bai emango diogula ostikada galanta!
- 3. arrantzalea** (*Isilka*) Ideia bat! Bihar arte egon gabe, oraintxe helduko zioagu.
- 1. arrantzalea** Horixe egingo diagu.
- 3. arrantzalea** Etxe aldera abiatzeko itxura egingo diagu.
- 2. arrantzalea** (*Hots handian*) Beno, mutilak, gaurkoz nahikoa izango dugu. Hasiko al gara etxe alderantz?
- 3. arrantzalea** Bai, hobe. Orduak ere aurrera zihoazik.
- 2. arrantzalea** (*Zutituz*). Goazen, ba. (*Denak zutitu eta mostradore aldera doaz*).
- 1. arrantzalea** (*Kamareroari*) Zenbat dun gure kontua?
- Kamareroa** Oraintxe aterako dizuet.
- (*Arrantzale denen artean alkateari heltzen diote gogor. Hau aiunaz hasten da, baina alperrik*).
- 3. arrantzalea** Iepa, moteil! Balea harrapatzea debekatu diguk, e! Hi baleen laguna izango haiz, orduan?... Ondo, ondo! Ba, nola balea uretan ibiltzen den, hi ere uretara botatzea erabaki diagu.
- Beste arrantzaleak** Ez al zaik ondo iruditzen? (*Alkatea aiunaz*).
- 1. arrantzalea** Beno, jolas piska bat egiteko, aingura bat lotuko diagu lepotik, urazpira errazago joan hadin.
- 3. arrantzalea** Baina ez apuratu! Laister etorriko dituk baleak hi salbatzera, moteil.
- 2. arrantzalea** (*3.ari*) Heldu hik belarrietatik! (*1.ari*) Hik, hanketatik eta, nik gerritik helduko zioat.

- Alkatea** (*Aiumaz*) Ez, mesedez, ez. Beste bando bat jotzeko agindua emango diot bandojoleari.
- 3. arrantzalea** Hobe duk, bai! Bestela laister haiz zerraldoan!
- Alkatea** Baina, lehenbizi askatu egin beharko nauzue.
- 2. arrantzalea** Mantxo, mantxo, mutikoa...!
- 1. arrantzalea** Hik hori nahi!
- 2. arrantzalea** Ideia ona duk, bando berriarena. Baina, hemen idatzi behar duk bandoa eta, ez haugu askatuko herri guztian jo arte. (*Mahai baten aurrean eseriarazten dute. Papera eta bolia ematen dizkiote eskura. Idazten du*).
- 3. arrantzalea** Zer idatzi duk?
- Alkatea** Lehengo bandoak ez duela balio eta balea harrapatzea libre dagoela.
- 3. arrantzalea** (*1.ari*) Aizak hi, Patxiku, joan hadi bandojolearen bila.
- 1. arrantzalea** Zure aginduetara, jauna.
- 3. arrantzalea** Esaiok etortzeko; alkateak esan duela eta.
- 1. arrantzalea** Bai, esango diot. Ea ongi irtetzen duen.
- 3. arrantzalea** Nik esandakoa egiten baduk, ondo irtengo dik. (*Badoa*).
- 2. arrantzalea** (*Alkateari*) Hi! Zer nahi duk? Aulkiari lotuta egotea ala gurekin txintxonean formal ibiltzea? Heuk aukeratu.
- Alkatea** Txintxonean ibiltzea nahiago diat.
- 3. arrantzalea** (*2.ari*) Askatu ezak. (*Askatzen du*). (*Alkateari*) Har ezak aulki bat eta eseri hadi gure ondoan.
- Alkatea** Ni begira egongo nauk.

- 3. arrantzalea** Begira? Beno, ba. Orduan jar hadi hementxe, belauniko. Errezatu ezak piska bat. (*Alkateak agindu diona egiten du*).
- 2. arrantzalea** Hasiko al gara edo zer?
- 3. arrantzalea** Bai. Neuk banatuko dizkiat kartak.
- 2. arrantzalea** Ez. Nik banatuko dizkiat.
- 3. arrantzalea** Gurutz-aurpegi egingo diagu.
- 2. arrantzalea** Nik aurpegi.
- 3. arrantzalea** Nik gurutze. (*Botatzen du*).
- 3. arrantzalea** (*Haserre*) Ikusiko duk lehengo suertean jarraitzen badiat.
- 2. arrantzalea** (*Kartak emanaz*) Laister ikusiko diagu.
- 3. arrantzalea** (*Alkateari*) Onak etorri zaizkiok nonbait, irriparrez zegok.
- 2. arrantzalea** Hik zer uste duk, ba? Ni harrigarria nauk!
- 3. arrantzalea** Hi harrigarria? Ni zoragarria.
- 2. arrantzalea** Hau duk hau suertea eta etorria!
- Alkatea** Aspertu nauk belauniko egoten.
- 3. arrantzalea** Hartu aulki bat eta eseri hadi, tontoa ez baldin bahaiz.
- Alkatea** Ez daukak burlaka ibili beharrik.
- 2. arrantzalea** Zer nahi duk, ba, listoa deitzea? Orain bai, izan beharko duk listoa.
- Alkatea** Ni listoa nauk orain eta beti.
- 3. arrantzalea** Listoa izan bahintz balea harrapatzerik ez huen debekatu. Jaaa, ja, ja...

- Alkatea** Baina, ez al zarete konturatzen era horretan balerik gabe geratuko dela itsasoa?
- 2. arrantzalea** Gabe? Esandakoa egiten ez baldin baduk, hirekin bat gehiago. (*Denek parre*). (*Bandojotzailea eta 1. arrantzalea sartzen*).

3. AGERRALDIA

(*Bandojolea eta, eta besteak*).

- 1. arrantzalea** Hemen duzu bandojolea, alkate jauna.
- Alkatea** (*Bandojoleari*). Aizak hi, Txomin: bando berri bat jo behar duk (*Papera emanaz*). Hemen daukak.
- Bandojolea** Egingo dut zure esana, alkate jauna, baina, aurretik, kafetxo bat ordainduko didazu, ez?
- 3. arrantzalea** Kamareroa! Kafe bat, mesedez.
- Kamareroa** Oraintxe ekarriko dizut kafe beroa.
- Bandojolea** (*3. arrantzaleari*) Zuk ordainduko al duzu?
- 3. arrantzalea** (*Alkatearengatik*). Horrek bazeukak lehen ere nahiko lan, gure gastuak ordaintzen ibili gabe.
- Kamareroa** Aiba kafe beroa!
- 3. arrantzalea** Zenbat dun kontua.
- Kamareroa** Berrogeita hamar pezeta.
- 3. arrantzalea** Hotson! (*Ematen dio*).
- Kamareroa** Eskerrik asko!
- Bandojolea** (*Kafea edaten hasten delarik, izugarrizko karrasia ateratzen du; ahoa erre diolako*). Irakiten zegon hau, neska! Aho guztia erre zidan.

- Kamareroa** Esan diat, ba, beroa zegoela. (*Parrez*).
- 3. arrantzalea** Hasi hadi bando polit eta lirain hori jotzen. (*Badoa*).
- Bandojolea** (*Bere trasteak hartu eta badoa*) Gero arte! (*Kanpoan bandoa entzuten da*). «Alkate jaunaren aginduz: balea harrapatzea libre dela hemendik aurrera ere orain arte bezala. Deskuidoa izan duela goizeko bandoarekin, eta barkatzeko mesedez, dio. Agur eta hurrengo bat arte. (*Tiripiti dun-dun...*).
- Arrantzale denak** (*Pozaren pozez dantzan*). Iufiiii! Iufiiii! Lortu dugu! (*Alkatea nigarrez*).
- 1. arrantzalea** (*3. arrantzaleari*) Zer ordutan irtengo gara itsasora?
- 3. arrantzalea** Betiko orduan.
- 2. arrantzalea** (*Isilka antzean*). Lehengoan ikusi genuen balekumea harrapatuko bagenu! Haragi samurra edukiko dik hark!
- 3. arrantzalea** Ikusiko diagu. Dena prest al dago irteteko?
- 1. arrantzalea** Ez, nagusi. Arraun batzu puskatuak dauzkagu eta...
- 3. arrantzalea** (*Haserre*). Ba, konpondu egin behar dira berehala.
- 1. arrantzalea** Saiatuko gara, baina... ez dakit nola ibiliko garen.
- 3. arrantzalea** Beno, utz ezazue. Berriak hartuko dizkiagu.
- 2. arrantzalea** Bai hobe izango dugu. Zenbat hartuko ditugu?
- 3. arrantzalea** Zenbat daude puskatuak?
- 1. arrantzalea** Bi.
- 3. arrantzalea** Hartu orduan lau-bospat. Sokak eta arpoiak ere prestatu.
- 1. arrantzalea** Goazen, ba.
- 2. arrantzalea** Egon zaitetze piska batean, komunera noa eta. (*Badoa*).

3. arrantzalea Azkar ez baldin ba hator, hanka egingo diagu. (*Besteei*)
Hartu hiru arpoi: bi handi eta txiki bat.
1. arrantzalea Ongi da.
2. arrantzalea Beste mutilei nork abisatuko die?
3. arrantzalea Heuk egin ezak hori, gaizki ez baldin badatorkik.
1. arrantzalea Ez, ez. Egingo dut.
2. arrantzalea (*Korrika datorrela, oztopatu eta erori*) Maaarrazkilo!!!!
(*Denek parre egiten diote eta ORIOKO BALEA kantatzen dute*).

Mila beatzirehun da
lehenengo urtean,
maiatzaren hamalau
garren egunean,
Orioko herriko
barraren aurrean,
balea agertu zen
beatzik aldean.

Handia bazen ere
azkarra ibilian,
buelbaka han zebilen
jun da etorrian,
hondarra harrotuaz
murgil igerian,
zorriak zeuzkan eta
haik bota nahiean.

Ikusi zutenean
hala zebilela,
berehala jun ziren
traineruen bila;
arpoi ta dinamitak
eta soka-pila,
aguro ekartzeko
ez zen jende hila.

Bost traineru jun ziren
patroi banarekin,
jende bizkor bikain ta
gutziz onarekin:
Manuel Olaizola
eta Loidirekin,
Uranga, Atxaga ta
Manterolarekin.

Baleak egindako
salto ta marruak
ziren izugarri ta
ikaratzekoak;
atzera eragin gabe
hango arriskuak,
arpoiakin hil zuten...
han ziren hangoak!...

Hamabi metro luze,
gerria hamar lodi,
buztan-pala, lau zabal,
alboetan pala bi;
ezpainetan bizarrak
beste ilara bi,
orraziak bezala,
hain zeuzkan ederki!

Gorputzez zen mila ta
berrehun arroa,
beste berrehun mingain
ta tripa barrua;
gutxi janez ez zegon
batere galdua,
tinako sei pezetan
izan zen saldua.

Gertatua jarri det
egiaren alde;
hau horrela ez bada,
jendeari galde.
Bihotzez pozturikan
atsegintsu gaude.
Biba oriotarrak!
esan beldur gabe.

- 3. arrantzalea** Jesus Maria! Astoa ematen duk (2. *arrantzaleari*).
- 2. arrantzalea** Astoak lau hanka ditu; nik, berriz, bi.
- 3. arrantzalea** Benga, goazen lehenbait lehen, bestela berandutu egingo zaiguk.
- Arrantzale guztiak** (*Kamareroari eta alkateari*) Bihar arte! (*Badoaz*).

OIHALA

II. EKITALDIA

(*Muino tontorreko baserri baten aurrean jolasten dabil Jontxu. Eta aitona muino gainetik itsasoari begira*).

1. AGERRALDIA

(*Jontxu eta aitona*).

- Jontxu** (*Etxe atarian, pentsati*) Zein zoriontsu bizi naizen itsas gaineko muino honetan! Badakit herriko haur guztiak nere bizimoduaren inbiritan daudela.
(*Aitona zorrozki itsasora begira dago, eta bapatean, olatu erraldoi bat herriaren gainera datorrela ikusten du*).
- Aitona** (*Izututa*) Jon! Jon!!! Ekarri adar batean sua, azkar!!!
- Jontxu** (*Harriturik*) Baina, aitona, zertarako duzu sua?
- Aitona** Ekarri azkar zuzia, berriketari utzita, eta eman sua hik ere mendi guztiari.
- Jontxu** Beno!!! Hain beharrezkoa baduzu, tori, ba sua!!!

- Aitona** Eman hik ere sua mendiari.
- Jontxu** Baina, aitona, eroturik al zaude?
- Aitona** Egin ezak nik esandakoa.
- Jontxu** Zuk jakingo duzu zertan ari zaren! Hor konpon! Nik emango diot sua. (*Berekiko*) Gure aitona honek San Joan suak egin nahi ote ditu? Zer pentsatzen ote du, San Joan bezpera dela gaur edo?
- Aitona** Hau ekaitzaren iluna! Hau ekaitzaren iluna!!! (*Iluntzen doa. Gero, suaren dekorazioa antolatutakoan, argi egokia eman*). (*Mendia*).

2. AGERRALDIA

(*Denak agertzen dira*).

(*Mendia sutan dago, eta herriko jende guztia hasi da agertzen beldurturik, haurrak ere besoetan dakartzatela*).

- 1. jendea** (*Haserre eta istiluka*) Nor izan da mendiari sua eman diona?
- 2. jendea** Herri guztia erreko da. Etxeetaraino joan da sua!
- Aitona** Neuk eman diot su mendiari!
- 3. jendea** Zergatik egin duzu hori? Ai gure Jainkoa!, Gure Jainkoa!
- Aitona** Ixo!!! Nik ikusi dudan olatu erraldoia eta itsasotik datorren ekaitz ikaragarria ikusi bazenute... Begira itsasoari!
- 2. jendea** (*Karrasika*) Herri guztia itsasoak hartua dago. Ez da etxerik bat ere zutik geratuko!
(*Jende guztia karrasika eta aiumaka*).
- Aitona** Inor geratu al da herrian?

- 1. jendea** Ez. Suaren beldurrez, denok aldegin dugu, meak eta zaharrak geurekin ditugula.
- 3. jendea** Zuri esker salbatu dugu bizia.
- Aitona** Bai, salbatu duzue bizia gaurkoz. Baina balearen izpiritua haserre dago. (*Triste eta hots handian*). Zer egin duzue, arrantzaleok!!! Zer egin duzue?
- 3. arrantzalea** (*Triste, beste hiru arrantzale lagunei*) Arrazoi zian alkatteak.
- 1. arrantzalea** Bai. Gaizki jokatu diagu. Goazen barkamena eskatzera. (*Alkatea aitonarekin besarkatzen da*). (*Arrantzaleak etortzen zaizkio ondora*).
- 2. arrantzalea** (*Alkateari*). Gaizto portatu gara.
- 3. arrantzalea** Ez dugu sekulan gehiago balerik harrapatuko. (*Jende guztia nigarrez*).

O I H A L A

EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

1. GLOTODIDAKTIKA-LANAK

a) *Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak*

- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. N. Gardner (1).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. J.A. Mujika (2).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. I. Olaziregi (3).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
- HIZKUNTZ JOLASAK. M. Sainz-I. Olaziregi (15).
- BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (18).
- BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (22).
- BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (29).
- TREBATZEN. OHO.ko GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. M. Sainz (23).
- EUSKALKIZ EUSKALKI. R.M. Pagola (19).
- EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. J.M. Etxebarria. J.A. Mujika (31).
- OINARRIZKO HITZAK. EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. I. Olaziregi (34).

b) *Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika*

- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. I.M. de Lezea-Kukubiltxo (6).
- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. I.M. de Lezea (9).
- ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. I.M. de Lezea (14).
- IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. L. Iriondo (10).
- KONTU KONTARI. L. Iriondo (20).
- AMONAREN IPUINAK. E. Genua (12).
- IPUIN GEHIAGO. A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada (13).
- JOLASEAN. I. Urbietta (11).
- MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. I. Urbietta (21).

c) *Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)*

- EUSKALTZAINDIK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
- EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA (7).
- EGA. 1990-91-92KO AZTERKETAK (40).

d) *Hizkuntz testak eta ebaluazioak*

- EABHEM. EUSKARA-MAILA NEURTZEKO TESTA (D ereduko eskolaurreako). G. Ajuria - I. Ibarra - J. Sierra (16).
- GALBAHE E1 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHoko 2. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (26).
- GALBAHE E2 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHoko 5. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (25).
- GALBAHE C1 y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testuak OHoko 2. eta 5. mailatarako). J. Sierra - I. Olaziregi (27).
- ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA (A ereduko OHoko 8. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (28).
- PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako eskolaurre-amaierako). I. Olaziregi - J. Sierra (30).
- EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA (euskaraz, erdaraz, frantsesez eta ingelesez). J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra (H.U.I.S.-H.P.I.N.).
- EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. J. Sierra - I. Olaziregi (33).
- EIFE 3. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. J. Sierra - I. Olaziregi (36).
- EUSKARA PROBAK. Irakurmena eta idazmena (OHoko 8. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (37).
- HINE. HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA ESKOLAN. J. Sierra - I. Olaziregi (38).
- PRUEBAS DE LENGUA. Comprensión lectora y expresión escrita (8º de EGB). J. Sierra - I. Olaziregi (39).

2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKLINABIDEA ETA ADITZA. A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte (1).
- EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. J.M. Irazola (2).
- BIZKAIERAZKO JOSKERA. A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte (4).
- HEZKUNTZ ADMINISTRAZIOKO BEHIN-BEHINEKO HIZTEGIA. I. Artola - J.M. Berasategi - G. Narzabal - I. Olaziregi (3).

3. ZABALKUNDE LANAK

a) *Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)*

- IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1990. M.K. Kamino (22).
- IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1990. M. Usabiaga (23).
- EIMA. EKINTZA-PLANA. AZALPEN BATERABILDUA 1986. (14).
- EIMA. LAGUNTZA-DEIALDIEN EMAITZAK 1980-85 (10).
- HEZKUNTZ SOFTWAREAREN BILDUMA 1990-91. M. Usabiaga (27).

b) *Irakaslegoaren Alfabetatze Euskalduntzea (IRALE programa)*

–IRALE. 1992-93ko AURKEZPEN-TXOSTENA (29).

c) *Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)*

- IKASTETXEEN BARNE-ERROTULAZIORAKO ESKULIBURUA. I. Artola - J.M. Berasategi - I. Muruaga (15).
- EUSKAL GIROTZE-EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. R.M. Ardanza - I. Artola - J.M. Berasategi - L.M. Landaluze - A. Mujika - I. Muruaga (16).
- ESKOLA-ANTZERKIA (18).
- URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA. LAN SARITUEN BILDUMA 1992.
- GOAZEN BARNETEGIRA (bideoa).
- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK (bideoa).
- ESKOLA HIZTUN BILA (28).
- ESKOLA ANTZERKIA 2 (30).
- ESKOLA ANTZERKIA 3 (31).

d) *Beste txostentxo batzuk*

- EUSKARA GAUR EGUNEKO HEZKUNTZA ARAUBIDEAN (20).
- EUSKAL IRAKASKUNTZA: 10 URTE (24).
- EUSKAL IRAKASKUNTZAREN GARAPEN-BIDEA (txostena) (25).

OHARRA: Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.



Hezkuntza Saileko Liburutegia



1005363

891.69-2 ESK

Orain, zuhur guztiek, liburua arbuiatu eta, deabruaren zirikaldi maltzurari zuhurki ihes egiteko adorea ukan dutelako atseginez, lo-zurrunka lasaiari ekin diotenean, badakit nortzuentzat ari naizen idazten. Eta, ero-haizearen babes epelean gozoro elkartu garenez, konfidentzia bat egin behar dizuet ezer gehiago esan aurretik, ustekabeen jaso dudan atsekabe dorpearen zama gainetik erauz dezadan.

"Barruan gordea daukazuen haurra esnazi eta zuengan agintzen jartzeko kapaz ez zareten bitartean ez zaitezketen haurren hezitzaile izan" - bota zigun.

Lukas Dorronsoro



Eskola antzerkia EK22090065



EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA



Salneurria: 700 pta.